

Zu hemen zaude.

goiena



EMAKUME INGENIARIAK: GIZONEN ESPARRUAN AURRERA EGITEN

Geroago eta emakume zientzialari gehiago daude eta alor batzuetan gehiago dira; ingeniartzan ere bidea urratzen doaz, apurka. Ateak irekiko dituzte Ikerlanen datorren astean, eskualdeko ikasleendako / 2

Lorea Belategi eta Jone Zubizarreta ingeniariak, Arrasaten, Ikerlanen egoitza nagusian, aste honetan.

XABIER URTZELAI



Ehiza-uxaldiak bueltan dira joan den astea ezkerro, "segurtasuna hobetu" ostean / 4

Hezkuntza alorreko lan-gatazkan "aurrerapausoak" eman direla dio Pedrosa sailburuak / 3

Lanak amaitu dituzte, eta gaurtik aurrera erabilgarri dago Bergarako Udal Pilotalekua / 20

SINADURAK

	BEÑARDO KORTABARRÍA / 6		MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA / 14
	MAITANE MUÑOZ / 9		KARMELE URIBESALGO / 22
			MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 40

 Emozioen kontzentzia hartzea, giltzarri

Maitane Ormazabal psikoterapeutari elkarrizketa

AZKEN EGUNAK

MERKEALDIA

2MÓ 189€
lehen 229€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak


Kontsultatu optikan karpainaren ezaugarriak.

MULTIÓPTICAS S.P.A. 91/20

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE

943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com





Lorea Belategi eta Jone Zubizarreta ingeniariak, Ikerlanen. XABIER URTZELAI

Emakume zientzialariak: pixkanaka, presentzia irabazten ari dira

Otsailaren 11n ospatzen da Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna, eta egun horri lotutako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Debagoiengan. Ikerlanen lanean diharduten bi zientzialarirekin egon da GOIENA, haien errealitatea ezagutzen.

Josu Bilbao Atxutegi ARRASATE Nazio Batuen Erakundeak 2016an hala erabakita, Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatzen da otsailaren 11n. Egun horren bueltan, Emakumeak Zientzian egitasmoren baitan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Debagoiengan. Horietako bat batxilergoko ikasleek Ikerlanera egingo duten bisita izango da. Bertan lanean diharduten Jone Zubizarreta (24 urte) eta Lorea Belategi (44 urte) arrasatearrek lehen pertsona bizi dute emakume ingeniari baten egunerokoa.

Ikerlanek duen zibersegurtasun arloan dabilta lanean biak. "Digitalizazio aro honetan oso garrantzitsua da zibersegurtasuna. Teknologia eta konektibitate honekin guztiarekin askoz ere garrantzitsuagoa da", azaldu du Jone Zubizarretak.

Ingeniariak oraindik gutxi dira Jone Zubizarretak Ingeniaritza Elektronikoa ikasi zuen eta Sistema Txertatuetan masterra ere egin zuen: "Ikerlanen ikasketen bigarren mailan hasi nintzen praktikan, eta, orduetik hona, zibersegurtasun ikerlari nabil lanean. Ni sistema elektronikoen lantaldean nabil".

"Batxilergo teknologikoan neska oso gutxi ginen, eta unibertsitatean ere lauzpabost izan gara ikasgelan. Ikerlanen nire lantaldean gauzak antzera daude. Egia da Ikerlanen taldeen arabera aldatzen direla gauzak,

INGENIARITZETAN, ORAINDIK, NABARMEN GUTXIAGO DIRA EMAKUMEAK LAN-ESPARRUAN (%28,3)

baina zibersegurtasun sailean %20 inguru izango gara"

Lorea Belategik, bestalde, Ingeniaritza Informatikoa ikasi zuen, eta, tesia egin ostean, industriari hasi zen lanean: "Bi enpresatan lanean ibili ostean, zazpi urte daramatzat dagoeneko Ikerlanen. Gaur egun, zibersegurtasun eta fidagarritasun arloan nabil lanean".

"Unibertsitatean oso neska gutxi ginen, eta bai entzun izan nuen komentarioren bat edo beste... 'Emakumeek laborategia arrosez margotuko digute', eta horrelakoak... Gero, lehen lanlekuan, bi emakume bakarrik geunden. Urteek aurrera egin ahala, beste bi emakume sartu ziren, baina, gizonekin alderatuta, proportzioan oso gutxi ginen. Nire bigarren lanlekuan dispositibo medikuak balidatzen nituen, eta han alderantzizkoa

izan zen; oso mutil gutxi, eta gehienok emakumeak. Zientzian barnean adar ezberdinen artean dagoen ezberdintasuna ikusi ahal izan nuen. Bukatzeko, Ikerlanen, ezberdina. Ez gara langileen erdia, baina orekatuago dago genero aldetik. Hala ere, urteek aurrera egin ahala gehiago orekatzen doala ikus daiteke", azaldu du Lorea Belategik.

Gero eta emakume gehiago

Gaur egun, 2024ko azaroko datuen arabera, 14.039 emakume zientzialari ari dira I+Gn lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, ikertzaile, teknikari edota iker-tzaile-laguntzaile. I+Gn lanean ari direnen %38,5 dira emakumeak –Gipuzkoan %36,6–, 2023an baino %1,3 gehiago –12.497 emakume zientzialari zeuden lanean–.

Diziplina zientifikoaren arabera, ingeniarietan, oraindik, nabarmen nagusi dira gizonak, langile guztien %71,7 dira-eta –Gipuzkoan, %72,1–. Zientzia zehatzetan ere modu nabarmenean nagusi dira gizonak %61,5ekin –Gipuzkoan, %63,4–. Emakumeak gehiengo dira, bestalde, medikuntza-zientzietan (%59,1) eta nekazaritza-zientzietan (%55,6). Gizarte-zientzietan ere, gehiago dira emakumeak (%55,1) gizonak baino. Gipuzkoaren kasuan, datuak antzekoak dira, medikuntza-zientzietan diharduten %54 dira emakumeak, nekazaritza-zientzietan diharduten %55,7 eta gizarte zientzietan diharduten %56.

"Emakume erreferenteen falta dugu oraindik, baita desinformazioa ere. Nire ustez, nahiz eta interesa eduki, zaila da animatzea, adibidez, ingeniarietan bat ikastera erreferenterik ez baduzu", azaldu du Zubizarretak.

Ekimenak Debagoiengan

Otsailak 10

- 10:00etan. Arrasateko MUko Iturripe campusera eskola-bisita.

Otsailak 11

- 09:00etan. Ikerlanera bisitak –Batxilergoko 2. mailakoak– hiru hizlari emakumeren eskutik.
- 10:00etan. *Emakume Ingeniariak* mahai-ingurua Seminarixuan.
- 12:15ean. Arizmendi ikastolako 35 neska Fagor Automation bisitatzeraz joango dira.

"Emakumeok beste ikuspuntu bat ematen diogu zientzian. Beti egin daitezke ekarpen ezberdinak, eta, gainera, eman daitezkeen irtenbideak ere aberasgarriagoak izan daitezke. Badaude aipatzen dudan horri loturiko ikerketak, eta, horien arabera, ikerketa-talde mistoek, orokorrean, emaitza aberasgarriagoak ematen dituzte", azpimarratu du Lorea Belategik.

Ekimen ugari

Emakumeak Zientzian egitasmorekin bat egin dute Debagoieneko eragile askok, eta, enpresetara bisitak antolatzeaz gain, Arrasaten *Otsailaren 11 erakusleihen* ekimenarekin bat egin dute hamalau komertzioek. Horrela, komertzioetako erakusleihen emakume zientzialariei aipamenak eta omeldiak egingo dizkiete.

EAEko langileak I+Gn lanean

	Guztira	Emakumeak	Gizonezkoak
Guztira	36.471	14.039 %38,5	22.432 %61,5
Zientzia zehatzak	3.353	1.613 %48,1	1.740 %51,9
Ingeniaritza	22.599	6.394 %28,3	16.205 %71,7
Medikuntza-zientziak	5.659	3.347 %59,1	2.312 %40,9
Nekazaritza-zientziak	1.394	775 %55,6	619 %44,4
Gizarte-zientziak	3.465	1.909 %55,1	1.556 %44,9

OHARRA: 2024KO AZAROKO DATUAK ITURRIA: EUSTAT

"Aurrerapausoak eman dira lan gatazkan"

BEGOÑA PEDROSA HEZKUNTZA SAILBURUA

Hezkuntza sistemaren egoera eta etorkizuneko erronkak aztertu ditu. Greba deialdiez, eskola-segregazioaren aurkako neurriez, hizkuntza ereduaz eta abarrez hitz egin du

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Bizkaitarra jatorriz, Begoña Pedrosak (Areatza, 1975) hemezortzi urtez lan egin zuen Mondragon Unibertsitatean, eta 2014tik 2020ra Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa izan zen. Ondoren, Eusko Jaurlaritzara jauzi egin zuen. Lau urtez sailburuorde izan ondoren, oraingo legegaldian Hezkuntza sailburua da, eta hezkuntza sistemaren erronkak dira haren jardunaren ardatz nagusi; sektoreko grebaz dio hitzarmen batzuei dagokienez "aurrerapauso garrantzitsuak" eman direla azken asteetan.

LAB, Steilas, ELA eta CC00 sindikatuek greba deitu dute, irakasleak, Haurreskolak Partzuergoko langileak eta sukalde eta garbiketa arloetako langileak barne hartuta; zein puntutan daude negoziazio-mahaiak?

Hainbat negoziazio-mahai daude, bakoitza bere antolaketa eta ordezkartzearekin. Guztiak zabalik eta aktibo daude, eta azken asteetan gure prestutasuna adierazi dugu elkarrizketarako eta akordioarako. Negoziazio-prozesu luzea da, eta emaitzak ez dira egun batetik bestera lortzen. Esaterako, duela bi urte, hezkuntza publikoaren hobekuntzak biltzen zituen akordio bat sinatu genuen, eta abenduan hezkuntza bereziko langileen hitzarmen historikoa adostu genuen, hiru urteko negoziazioen ondoren. Aldarrikapenak ulertzen ditugu, baina zaila da greba deialdia ulertzea negoziazioak martxan egonda.

Kolektibo bakoitzaren eskarrietan aurrerapenik izan da?

Bai; adibidez, Haurreskolak Partzuergoko hitzarmenaren. Azken asteetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, eta laster emaitzak izatea espero dut. Haur Hezkuntza funtsezkoa da, doakotasun politikarekin



Begoña Pedrosa asteon, Arrasaten. GOIENA

"AZKEN ASTEETAN GURE PRESTUTASUNA ADIERAZI DUGU ELKARRIZKETARAKO ETA AKORDIORAKO"

partzuergoa hazten ari da, eta negoziazio-aukera berriak zabaltzen ditu.

Zein dira akordioetara iristeko oztopo nagusiak?

Ohiko gaiak ordutegiak, kontratazioak eta lan-baldintzak dira. Gure lehentasuna da erabaki bakoitzaren eragina ikasleengan aztertzea, negoziazioa ikuspegi horrekin bideratuz. Erronkak baditugu, baina baita akordioak eraikitzeak aukerak ere.

Hezkuntzari eta teknologiarik berruzko jardunaldi batean nabarmendu zenuen teknologiek hezkuntzan balioa gehitu behar dutela; nola bermatzen da hori?

Duela hiru urte hasi ginen hezkuntza sistemaren eraldaketa digitalerako estrategia garatzen. Gakoa da irakasleak prestatzea teknologiaz baliatzeko irizpide eta helburu argiekin, eta ikasleengaitasun digitalak garatzea.

Ikastetxeetan eztabaida osasuntsua sortu da teknologiararen erabilerrari buruz; adituak eta familiak inplikatu dira. Balia-bideak eskuratzearaz harago, lidergo digital argia behar da prozesua zuzentzeko.

Euskal Hezkuntza Legea onartu zenetik urtebete pasa da; zein aurrerapen lortu dira?

Hezkuntza-ituna sinatu zenetik, ekimen ugari garatu dira. Mugarri garrantzitsua da eskola publikoaren lehen plan estrategikoa, martxoan aurkeztuko duguna. Hiru ardatz ditu: irakasleengonkortzea, azpiegituren hobekuntza eta eraldaketa pedagogikorako proiektua. Gainera, dekretu berriak prestatzen ari gara, eta eskolen mapa antolatzen dugu epe luzeko ikuspegiarekin.

Onartu duzue duela bi urte ezarritako matrikulazio-araudia ez dela nahikoa segregazioari aurre egiteko; zein neurri osagarri hartuko dira?

Aurrerapauso garrantzitsuak eman dira eta ematen ari gara, hala nola onarpen-politika berria eta konplexutasun handiko ikastetxeentzako laguntza indartzea. Baina gehiago egin behar

dela argi dago: tokian tokiko estrategiak, ikastetxeei laguntza eta planifikazio eraginkorra. **Euskal Hezkuntza Legeak zehazten du ikasleek hizkuntza-gaitasun jakin bat lortu behar dutela; nola bermatuko da?**

Hizkuntzen irakaskuntza antolatuko duen esparru bat garatzen ari gara, euskara ardatz izanik. Horretarako, institutua sortu da, eta 25 ikastetxek parte hartzen dute dagoeneko proiektu pilotu batean beren hizkuntza-proiektuak sendotzeko. Ikerketa eta unibertsitateekin lan-kidetza funtsezkoak izango dira prozesu horretan.

Hezkuntza Sailak 140.000 euroko isuna jarri dio Salbatore Mitxelena ikastolari, matrikulazio-muga gainditzeagatik; zein da Hezkuntza Sailaren erantzuna?

Araudia bete egin behar da, eta ikastetxe guztiek errespetatu behar dute. Komunitate hezitzaile batek bere iritzia adieraztea zilegi da, baina administrazio-prozedurak bete egin behar dira. Hau askotan gertatu izan da, eta ez bakarrik hezkuntzan, beste esparru batzuetan ere.

Bergaran izaera bereziko eskola txikiak daude: Angiozarko Eskola Txikia eta Osintxuko eskola; zein izango da joera? Badute kezkatuta egoteko arrazoirik?

Eskola txikien sarea oso sare indartsua dela pentsatzen dut, eta ondo funtzionatzen duela ziur nago. Lidergo handia eta hartu-eman estua dugu bertako zuzendariarekin. Angiozarren jaitziera demografikoa izan daiteke kezka, baina Udalarekin elkarlanean ari gara berrikuntzak sartzeko helburuarekin. Eskola txikiak oso erresilienteak dira, eta beti moldatzen dira.

Astelehenean ireki da 2025-2026ko ikasturteko aurrematrikularako epea; zein da gomendioa?

Familiak bertako ikastetxeetan matrikulatzera animatzen ditugu. Ondo begiratzea eta eskaera bat baino gehiago egitea gomendatzen dugu. Euskal hezkuntza sistemaren kalitate onena bermatzen dugu eta prozesua lasaitasunez egitea aholkatzen dugu.



Bideoa ikusteko, eskaneatu QR kode hori poltsikoko telefonoarekin.

ARANZADI IKASTOLA

T. ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren balizuaaren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK. ren Ohiko Batzar Orokorra dei egiten du. Batzarra **2025eko otsailaren 19an** egingo da, arratsaldeko bost eta erdietan lehen deialdian, **seietan bigarren deialdian**, eta hala balegokio, sei eta erdietan hirugarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko Aranzadi Ikastolan.

GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea.
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen-bostena irakurtzea.
3. 2023-24ko ikasturteko memoria aurkeztea. (Informazioa)
4. 2024-25eko ikasturteko egitasmoa aurkeztea. (Informazioa)
5. 2023-24ko ikasturteko kontuen kudeaketa aztertu eta hala balegokio, onestea.
6. Galdu-irabazien banaketa azaltzea eta hala balegokio, onestea.
7. Artezkaritza batzordeko kide berriak hautatzea.
8. Ikastolen Elkartetik datozen gaiak aurkeztea. (Informazioa)
9. Ekarpenen inguruko informazioa ematea. (Informazioa)
10. Galde-erantzunak.

Bazkideek gai-zerrendan dauden gaien inguruko dokumentazioa aurrez Aranzadi Ikastolan aztertzeko aukera dute. Batzarra euskaraz izango da, baina aidi bereko itzulpena egingo dugu horrela behar duenarentzat.

Bergaran, 2025eko otsailaren 7an

Lehendakaria
Iker Badiola Etxaburu



Bi ehiztari, txakurrekin, Bergarako lurretan, basurdeen bila. JOSEMARI AROZENA

Bueltan dira ehiza-uxaldiak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Ehiza Federazioaren akordioari esker, joan den astean itzuli ziren basurde eta orkatz gainpopulazioei aurre egiteko uxaldiak. Neurri berriek ehiza modu seguruagoan egitea ahalbidetuko duela diote, besteak beste, bi aldeek


Jokin Bereziartua Lizarazu DEBAGOIENA Urtarrilaren 29an akordioa itxi eta urtarrilaren 30ean baimenak jasota, Gipuzkoan martxan dira berriz ere basurde eta orkatz gainpopulazioari aurre egiteko ehiza-uxaldiak. Debagoienara etorrita, Bergaran uxaldia antolatu zuten otsailaren 2rako, San Blas auzoaren gainaldean; bi basurde akabatu zituzten.

Negoiazio luzearen ondoren

2023ko abenduan ehiztari baten tiro baten ondorioz Deban hildako emakumearen gertaerak sortu zuen arrakala Diputazioaren eta Ehiza Federazioaren artean. Heriotza haren harira erakundeek hartutako neurriek ehiztarien artean sortutako ezinegona eta protokoloaren berrikuspina tarteko, luze jo dute negoziaketek, baina heldu dira akordiora.

Sei edo zazpi ehiza-kuadrilla

Debagoienean sei edo zazpi ehiza-kuadrilla daude. 20-30 lagunekoak dira gehienak, eta Bergarako da handiena: 60 lagun inguru dira, Elgetakoak eta Antzuolakoak ere badira tartean eta basurdetan ibiltzen dira. Josemari Arozena da Bergarako kuadrillako kideetako bat. Akordioak guztien nahiak asetzen ez dituen arren, lehengo hobetzeratorrela dio Arozenak: "Batzuk gusturago eta beste batzuk gutxiago, oinarritzko akordio batera iritsi gara. Ez dugu eskatutako guztia lortu, baina lehengo baino akordio hobea da". Orain arte 1970ean onartutako Ehizaren Espainiako Legea aintzat hartuta jardun dutela azaldu du Arozenak, baina Andaluziako baldintzak kontuan hartuta egin zela lege hura eta hango eta hemengo orografiek ez dutela zeri-



Basurdeak, Bergarako ortu batean. J.A.

kusirik eta oso zaila dela lege horrekin hemen ehizatzea: legeak ehiza-tokiak pistetatik gutxienez 50 metrora egotea eskatzen zuen, eta distantziak zaintzea errekatxo inguruetan ere. "Hori guztia jakin arren eta pentsatu arren gure ustez seguru ari ginela, konturatu gara, akaso, batzuek ez genituela indarrean zeuden neurri guztiak betetzen".

Segurtasuna hobetu

Akordioari esker, baso-pistetean ehizatzea posible da orain; seinalezatu egin behar da, hori bai, mendian aisialdiaz gozaten dabilzan herritarrek ere ehiztariak non dabilzan jakin dezaten. "Uxaldi batean gaudenean, beti seinalezatu behar izaten ditugu uxaldiaren eremu osoko errepide eta pista guztiak, zintekin eta karteekin", zehaztu du Arozenak. Neurri berriak

jasotzen dituen aginduak lurraldean ehiza modu seguruagoan egitea bermatuko du, Foru Aldundiak azaldu duenez.

Lurralde Oreka Berdeko diputatu Xabier Arruti pozik dago akordioarekin: "Agindu berriak orain arteko neurriak osatu nahi ditu, eta, eremu jakin batzuk salbuesteaz gain, neurri gehigarriak sartu ditugu, ehiza egiten ari dela errazago ikus dezaten herritarrek. Ehiza-mapa guztiak digitalizatu egin ditugu, ehiztariari zehaztasun handiagoa emateko. Neurri horrekin espero da ehiztariak denbora errealean jakitea bere jardura horretarako prestatutako gunean egiten duela". Arozenak uste du hobetu egin dela segurtasuna, eta balio izan duela ehiztariak euren mugak ezagutu ditzaten.

Populazioa "nabarmen" igo

Esandako moduan, ehiza-mapa guztiak digitalizatu dituzte, ehiztariari zehaztasun handiagoa emateko, eta kontrol neurriak zorrotzak izango dira: martxan den Aldundiaren ehiza-aplikazioan alta eman beharko zaio uxaldiari, eta zein kuadrillak, zein tokitan eta zein ordutan egingo duen eta orkatzetarako edo basurdetarako izango den adierazi; gainera, aurrerantzean parte hartuko duten kide guztien izen-abizenak ere sartu beharko dira. Behin harrapaketa eginda, horren berri ere eman beharko dute aplikazioan bertan: zenbat basurde, zenbat kilo, arra edo emea den eta ipinitako prezintuaren zenbakia sartuta.

Ehizarako eremuari dagokionez, ez dago aldaketarik, bere horretan mantenduko da, eta ehiza-egunek eguna, zapatua eta domeka jarraituko dute izaten. Basurde eta orkatz populazioa "nabarmen" igo da, ordea, eta populazio hori murriztea kosta egingo dela dio Arozenak; dio azken hilabeteotako etenak ondorio zuzena izango duela. Apirilaren 13ra arte egongo da zabalik denboraldia.

Ekologistak Martxan, kontra

Bestalde, Gipuzkoako Ekologistak Martxan taldeak bere iritzia helarazi du ohar bidez; azaldu dutenez, besteak beste, ehiza ez da irizpide teknikoetan oinarritutako jardura, uxaldiak ez dira basoko populazioak behar bezala kudeatzeko tresna eraginkorra eta akordioak ez du istripuak saihestea ekarriko.

"Segurtasuna hobetu dugu akordioarekin"

JOSEMARI AROZENA
EHIZTARIA

Hilabeteetako etenaren ostean, otsailaren 2an elkartu ziren Bergarako kuadrillakoak San Blas auzoaren gainaldean basurde-uxaldirako; hantxe izan zen Josemari Arozena. **Zer moduz lehen uxaldia?** Ondo joan zen. Bi basurde harrapatu genituen; beste askok alde egin zuten, beti bezala. Gure txakurrak basurdetara daude ohituta, eta, horregatik, basurdetan bakarrik ibiltzen



GOIATZ ARANA

gara. Uxaldira joan aurretik jakinarazi behar dugu basurde edo orkatz bila goazen.

Zenbat elkartu zineten?

Kuadrillan 60 bat lagun gara, asko. Azken uxaldi honetarako 30 bat lagun elkartu ginen, Bergatik, Antzuolatik eta Elgetatik etorritakoak.

Gustura akordioarekin?

Lehengoa hobetu egin da. Legea eguneratu eta segurtasuna hobetu dugu.

DATUETATIK TIRAKA: ODOL EMATEAK



Bailarako odol-emateek behera egin dute

Odol-emateak %11,9 jaitsi dira Debagoiengan, eta Arrasaten ia %50eko beherakada gertatu da. Bergaran eta Antzuolan izan ezik, eskualdeko gainerako herrietan jaitsiera izan da. Aldi berean, baina, odolaren eskaria handitu egin da

Sara Lanz Azpiazu DEBAGOIENA

Azken bost urteetan, Debagoiengo odol-emateek %11,9ko jaitsiera izan dute. Arrasaten izan da jaitsiera handiena, ia %50ekoa. 2020tik 2024ra bitartean, eskualdeko herri guztietan behera egin dute emateek, salbuespen bakarrekin: Bergaran %13,5 eta Antzuolan %5,8 igo dira.

Odol-emateen beherakada hainbat faktoreen ondorio izan daiteke; besteak beste, kontzientziazio faltagatik, odol-emate ohituraren galeragatik eta pandemiak ekarritako aldaketak direla tarteko. Egoera horrek osasun sisteman ondorioak izan ditzake; odol-beharrak gora egin duen testuinguru betean, zehazki. Emaile berrien kopurua egonkor mantendu arren, joera kezagarria dela azaldu du Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak.

Euskal Autonomia Erkidegoan Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak kudeatzen ditu odol-emateak. Gipuzkoako arduradun Nuria Patinoren arabera, Debagoiengo egoera bereziki larria da, emaille kopurua etengabe jaisten ari delako. EAEn odola Galdakaotik bideratzen da ospitaleetara, behar duten pazienteengana irits dadin.

Odol-emaile berrien kopurua nahiko egonkor mantendu dira Debagoiengan azken urteetan, %6,7ko jaitsiera izan arren. 2021ean EAE mailan gehiengoa izan bazen ere, ondorengo urteetan beherakada izan du.


EAEn, egunero 200 pertsona inguruk behar dute odola, eta azken bi urteetan odola jaso duten pertsonen kopurua %16,6 igo da. Iaz, 2024an, 30.000 gaixok baino gehiagok jaso zuten odola. Duela bi urte baino 5.000 gehiagok. Gainera, odol mota guztien bateragarritasuna ez da berdina.



Odol-emaile bat, Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. GOIENA

Odol-emateak Debagoiengan

ITURRIA: TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA



Plasmaren garrantzia

Azken urteetan, plasmaren – odolaren osagaietako bat–dohaintza ere sustatzen ari da. Odolarekin alderatuta, hor bateragarritasuna alderantzizkoa da: zero negatiboek edonorengandik jaso dezakete plasma, baina beren odol-motakoentzat soilik eman dezakete.

Bailarako datuak

2024ko datuei erreparatu, Debagoienak EAEko odol-emate guztien %3 baino ez du ordezkatzen, eta odol-emaile berrien

%1,5 debagoiendarrak dira. Eskualdean izandako beherakadak bereziki nabarmen egiten du datu hori, kontuan hartuta odol-emateak etengabe jaitsi direla azken bost urteetan.

Odol-emateen beherakadak osasun sisteman ondorio larriak izan ditzakeen faktorea izanik, Transfusio eta Giza Ehunen Zentroak argi du garrantzitsua da herritarrak kontzientziaztea eta, bereziki, gazteen artean odol-ematea sustatzea. Odolak bizitzak salbatzen ditu, eta premiazkoa da ekimenak indartzea.

Bidegiren Bergarako aurrez aurreko arreta zerbitzua, zabalik

Bergarako Bidegiren bulegoa, lurraldean ireki duten bigarrena, aste honetan zabaldu berri dute

Sara Lanz Azpiazu BERGARA

Otsailaren 3an, astelehena, ireki zituen ateak Bergarako Bidegiren aurrez aurreko arreta zerbitzuak, eta astelehenetik ostiralera 08:00etik 20:00etara egongo da hara joateko aukera.

Bulegoa Ondartza baserrian (Goiauzoa 34), Bergara-Iparraldeko AP-1erako sarreran, kokatu dute, eta Gipuzkoako autobideen erabiltzaileei eta lurraldean zehar zirkulatzen duten garraio-lariei zerbitzu irisgarriago eskaintzeko helburua duela azaldu du Eider Mendozak, Gi-

puzkoako diputatu nagusiak: "Aurrez aurreko zerbitzu hori hobetzera goaz".

Zerbitzuak

Bulegoan hainbat kudeaketa egin ahalko dira: Abiatu gailua eskatzea, baja ematea, matrikula aldaketak kudeatzea zein *free flow* arkuen bidezko joan etorrietarako ordainketa-txartelen lotura eta abar. Arreta presentzialaz gain, 943 10 51 06 zenbakira deituta edozein zalantza argitzeko aukera egongo da.

Mintzalagun egitasmoan izena emateko deialdia bailaran

Hizkuntzaren erabileran trebatzeko taldeak martxan daude, baina oraindik berriak sortzeko aukera dago

Sara Lanz Azpiazu DEBAGOIENA

Bailarako hainbat herritan Mintzalagun egitasmoan izena emateko aukera zabaldu zen urtarril amaieran. Egitasmoak euskara praktikatzeko guneak eskaintzen ditu, hizkuntzaren erabileran trebatzeko, galdutako ohiturak berreskuratzeko eta euskarazko harreman berriak egiteko. Aurtengo taldeak martxan dauden arren, oraindik talde berriak sortzeko aukera zabalik dago. Proposamen berriak edo galderak egiteko, herri hauetako mintzaprakti-

kako gidariekin harremanetan jarri: Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta eta Eskoriatza, hain zuzen ere.

Zaletasunak eta mintzapraktika

Eta euskaraz egiten badugu? lelopean aurkeztu dute aurtengo kanpaina. Horregatik, zaletasunen inguruko taldeak sortzeko deialdia egin zuten. Euskal Herrian asko dira horrela sortu diren taldeak, parte-hartzaileei gehien gustatzen zaiena mintzapraktikarekin uztartzeko aukera emanda.

Eraldatze metodologikoen aurkezpena Oñatin

Antzuola HLHI eta Luis Ezeiza HLHI ikastetxeek azken urteetan garatu dituzten eraldatze metodologikoak ezagutzeko aukera izango da datorren otsailaren 12an, arratsaldeko bostetan, Oñati BHiko aretoan.

Bertan, bi ikastetxe horiek metodologia berritzaileak nola implementatu dituzten azaltzearekin batera, beren esperientziak

eta emaitzak partekatuko dituzte. Ekitaldia hezkuntza berrikuntzan interesa duten irakasle, guraso eta herritarrentzat aukera paregabea izango da, eta bertaratzeko ez da aurrez izenik eman behar.

Horrez gain, beste hainbat praktika on landuko dituzte ikastetxeen arteko elkartrukeko aurrez aurreko bileretan: nola egin lan eremuka, hamarretako osasungarriak, matematika txokoak LHn, Baso Eskola eta First Lego League.



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

Harrerak eta jarrerak

9-20=-11. Horixe da 2024. urteak Antzuolan utzi zigun emaitza; hau da, iaz, bederatzi haur jaió ziren, eta hogeí pertsona hil. Ez dakit kanpotik zenbat etorriko ziren, ez eta hemendik kanpora zenbat joan ziren ere. Dena den, emaitza kezagarria da. Are eta okerragoa, kontuan hartzen bada ez dela urte bakar bateko gertakaria, joera bat baizik.

Beraz, umegintzan aparteko ahaleginik ez dudanez espero, kanpotik etor daitezkeenengan jarriko dut biztanleriari eusteko esperantza. Eta etorrera horretarako prest egon beharra daukagu. Harrera-herri bihurtu behar dugu: datorrenari ongietorria egin, gure ohituren eta historiaren berri eman, gure jaiak zeintzuk diren aipatu, ingurua zaintzen nola ahalegintzen garen adierazi, hemen eskura dituen zerbitzuak azaldu eta, batez ere, euskararen

INOIZ JARRI AL ZARA ANTZUOLARA ETORRI DEN PERTSONA BERRI BATEN ONDOAN?

mundura hurbiltzeko gonbidapen beroa egin. Horrela egin ezean, gure izaerak jai du; kitto.

Badakit aipatutako kontu horiek guztiak, neurri batean, egiten direla, baina hankamotz

gelditzen dira. Zerbait falta da hor: harrera egiteak gerturatzea ere esan nahi du, etorri denaren errealitatea, bizipenak eta emigratzeko arrazoiak ezagutzea. Inoiz jarri al zara Antzuolara etorri den berri baten ondoan? Galdetu al diozu nondik etorri den? Zergatik alde egin zuen jaioterritik? Nola egin duen bidaia? Zer dakien egiten edo ikasketarik baduen? Zer utzi duen atzean?... Eta, batez ere, zer espero duen aurkitzea hemen, zeren bila etorri den.

Azken urte hauetan, egon naizen tokian egoteagatik, niri tokatu zitzaidan horrelako elkarrizketaren bat edo beste egitea. Tokatu egin zitzaidan, eta, egia esan, gustura entzun nituen etorri berri batzuen gorabeherak. Baina ez nituen berariaz bilatu horrelako momentuak. Orain, iruditzen zait herriaren etorkizunari egin ahal diogun ekarpen onenetako bat hortik etor daitekeela, gerturatze horretatik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Autoa pertsonen gaintetik?

OLATZ LEZETA URZELAI
ANTZUOLAKO ALKATEA
ANTZUOLA

Aspaldian ari gara Udaletik herri lasai eta egokia sortzeko lanean, guztiontzako herria, haurrak kalean libre ibiltzeko modukoa, orgatxo hartu eta herrian erosketak egiteko egokia. Herrigunean kotxerik ez ibiltzeko ordutegiak jarri ziren orain dela urte dezente, baina batzuek ez dute errespetatzen.

Bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea duen gizarte honetan, ez dugu ikusten ondokoari egiten

diogun kaltea. Kafe bat hartzeko autoa espaloi gainean jarri eta gainontzekoei traba egiteko eskubidea al dugu? 20 metro oinez ez egitearren oinezko pasabide gainean aparkatzeko eskubidea al dugu, nahiz eta aulki gurpildunean doanak ezin pasatu ahal izan? Eguzki auzoan aparkaleku libreak egon arren, gimnasioko atean espaloi gainean aparkatzeko eskubidea al dugu, nahiz eta goiko eskaileretatik behera datorrenak kotxea saihesteko bidera irten beharra izan? Moztuta dagoen bide bat zeharkatzeko eskubidea al dugu kotxez espaloi gainera igota?

Ba, ematen du Antzuolan baietz. Norberak eskubide guztiak dituela uste dute batzuek, ondokoarenak urratuz. Hori bai, gure herrian arauak errespetatzen ez dituzten horiek herri handiagoetan zintzo asko betetzen dituzte hangoak. Zergatik ote?

Antzuolan distantziak ez dira handiak; har ditzagun ohitura onak, aparkalekuetan kotxea utzi eta paseatu gaitezen herrian lasai.

Leku ederrean bizi gara, herri polita daukagu, ondokoa errespetatu eta herri hobea egiten saiatu gaitezen.

Denontzat onuragarria izango da.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
Mireia Larrañaga, Narroa Inza,
Olatz Alberdi, Amaia Mundifiano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



KUDEAKETA AURRERATUARI
ZILABREKO ANTZATES-PENA
GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

HANDIK HONA

Jone Arruabarrena ARETXABALETA Angolakoa da Filipe Quipungo Augusto (Sambizanga, Luanda, Angola, 1993). Euskal Herritik joandako Elizbarrutiko misioetako misiolariak ezagutu zituen han, eta haiekin laguntasuna mantendu zuen urte luzez. Azkenean, haien laguntzarekin, Aretxabaletara etorri zen, duela bi urte. **Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?**

11 urterekin hasi nintzen lanean. Amak zazpi seme-alaba zituen, eta aita gazte hil zen. Amak guztioi jaten emateko egiten zuen lan, arrain-saltzaile. Orduan hasi nintzen autoak garbitzen, etxeetako zaborra bildu eta zabortegira eramaten... txanpon batzuen truke. 13 urterekin, jada gai nintzen nire etxean bizi ginen guztientzat janaria erosteko, nire lanarekin.

Zer igartzen duzu faltan zure herrialdeetik?

Gehien gustatzen zaidana janaria da. Bestalde, hango gazteak beti alai daude. Goizetan kalera irteten dira, eta mundu guztia agurtzen dute. Autobusetan ere mundu guztiak hitz egiten du, dena oso alai da. Hona etorri nintzanean, horrek harritu ninduen asko; hemen jendea isilik joaten da.

Nolakoa zen zure bizitza Angolan?

Angolan formakuntza asko egin nituen; zortzi ikastaro dauzkat. Gauza ugari egin dut lan: autoak garbitzen, obrako segurtasun teknikari, aire girogailuak konpontzen... Lan egitea gustuko dut; burua zerbaitetan edukitzea.

Nola ezagutu zenituen Euskal Herritik joandako misiolariak?

Andonirengana [Andoni Ilarramendi apaiza] joaten hasi nintzen, diru edo janari pixka baten truke autoa garbituko niola esanez. Hark dilistak, garbantzuak eta horrelako gauzak ematen zizkidan. Carlos eta Luis Maria Perez de Onraita anaia apaizak ere ezagutu nituen, eta asko lagundu zidaten haiek ere. Haien omenez,

"Euskara pixka bat eraman nahiko nuke Angolara"

FILIFE QUIPUNGO AUGUSTO ARETXABALETA



Filipe Quipungo, Arrasateko Biteri plazan. JONE ARRUABARRENA

nire seme-alabek Carlos, Luisa Maria eta Andoni Pedro dute izena.

Nola erabaki zenuen Europara migratzea?

Nire ametsa hona etortzea zen. Etorriko nintzela esaten nuenean, jende askok ez zidan sinesten, baina nik zerbait nahi dudanean ez naiz nekatzen, lortu arte. Andoniri deitzen nion, eta behin eta berriz esaten nion hona etorri nahi nuela, ikastera eta lan egitera. Eta, azkenean, iritsi zen momentua.

"EUROPARA ETORRIKO NINTZELA ESATEN NUENEAN, JENDE ASKOK EZ ZIDAN SINESTEN"

"HONA ETORRI NINTZENEAN, HORREK HARRITU NINDUEN; JENDEA ISILIK JOATEN DA"

Zure familiakoak Angolan bizi dira?

Bai. Emaztea eta hiru seme-alaba ditut, baita nire ama eta anai-arrebak ere. Asko igartzen ditut faltan; jada bi urte da ikusten ez ditudala. Hemen paperak erregularizatu arte itxaron behar dut, bisitatzera joan ahal izateko. Etorkizunean, familia hona ekarri nahi dut.

Nola egokitu zara hemengo gizartera?

Hasieran, triste jartzen nintzen. Autobusera igotzen nintzanean, barruan zeuden pertsonak agurtzen nituen, eta inork ez zidan erantzuten; goitik behera begiratzen ninduten. Izan ere, errespetua adierazteko modu bat zen jendea agurtzea, eta ez nituen jarrera haiek ulertzen.

Orain ezberdina da egoera?

Zaila da, baina lortu daiteke. Esaterako, Aretxabaletan adineko gizon bati bizikletako gurpila zulatu zitzaion behin, eta laguntza eskaini nion. Hark ez zidan erantzuten, ezikusiarrena egiten zidan. Nik ez nuen ulertzen. Angolan pertsona zahar bat ezinean ikusten baduzu, derrigorra da hari laguntzea; errespetuzko jarrera bat. Azkenean, esan nion: "Ados, nahi baduzu, ez egidazu erantzun, baina laguntza behar duzu eta lagunduko dizut". Gurpila aldatu nion. Bukatu nuenean, dirua eskaini zidan, eta nik esan nion: "Dirua? Nik ez dut dirurik nahi. Zure laguntasuna nahiago dut dirua baino". Handik aurrera, kalean elkar ikusten dugunean, hizketan geratzen gara beti.

Zertan ari zara gaur egun?

Formakuntza profesionaleko gradua egiten nabil,

soldaduran. Duala egin nahi dut gero. Lan egin nahi dut, nire familiari lagundu ahal izateko, baita Angolan nire herrian dauden beste familia batzuei ere.

Euskaraz hitz batzuk badakizkizu.

Bai. Gauetan nire seme-alabei deitzen diet, eta otoitzak errezzitatzen dizkiet euskaraz. Galdetzen didate: "Aita, zer ari zara esaten?", eta erantzuten diet: "Aita euskara ikasten ari da". Euskara asko maite dut. Ez dut espero euskaldunek bezala hitz egitea, baina oinarritzko gauzak ikasi nahi ditut, eta ondo ulertu. Euskara pixka bat eraman nahiko nuke Angolara.

Euskaldunengana hurbildu eta harremanak sortzea, zaila

Denetarik ikusi du euskaldunen artean Quipungok: "Jende on asko dago, baita txarra ere, leku guztietan moduan". Hala ere, zaila egin zitzaion hasieran euskaldunekin harremanak izatea: "Ez da batere erraza. Itxiak dira oso, eta ahalegin handia egin behar izaten dut haiengana hurbiltzeko". Hori bai; kontua aldatu egiten da bertako norbaiten erreferentzia izanez gero: "Hemengo norbaitek ezagutzen bazaitu eta beste bati esaten badio zure laguna dela, eta zutaz fidatu daitekeela, orduan bai, ondo hartzen zaituzte. Baina, bestela, oso zaila da. Hala ere, errespetatzen dut jarrera hori, eta ulertzen dut hemen horrelakoak izatea". Bestalde, Baltasar aritu da Eskoriatzan azken bi urteetan, eta umeen aldetik kuriositatea nabaritu du: "Nire herrialdeari buruzko galderak egiten hasi zitzaizkidan. Jakin-min handia zuten".



Martitzenean egin zuten otsaileko ohiko osoko bilkura. ENEKO AZURMENDI BARRENA

Behin betiko onarpena telelanaren araudiari

Abenduko osoko bilkuran onartu zuten, behin-behinean, eta, alegazio epea bukatu ostean, behin betiko onarpena eman diote araudiari. Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren 49. urtemugaren aldeko adierazpen instituzionala ere egin du Udalak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Telelanaren araudiari behin betiko onarpena eman dio udalbatzak otsaileko ohiko osoko bilkuran. Abenduko osoko bilkuran onartu ostean, alegazio epea ireki zuten, eta langile batek, hain zuzen, alegazioa jarri du, nahiz eta ez duen aurrera egin. Era horretan, behin betiko onartu dute, aho batez.

Hala, azken urteetan lantzen eta garatzen joan den prozesuaren emaitza iritsi da. "Pandemiaren eraginez, modan jarri zen lan egiteko modua izan zen telelana, eta Arrasateko Udalean arautu gabe zegoen. Langile batzuek modu hori erabili zuten

eta beste batzuek ez, baina arautu beharra zegoen", adierazi du Kepa Urteagak, EH Bilduren udal bozeramaileak.

Orduko hartan, EAJ zegoen Udala Gobernuan, eta Ander Garay jeltzaleen udal bozeramaileak nabarmendu du pandemiaren eraginez hasi zirela gaia lantzen. "Araudi hori onartu izana oso positiboa dela deritzogu. 2020an,

**ALDERDI POLITIKOEN
ETA SINDIKATUEN
ADOSTASUNAREKIN
GAUZATU DUTEN
ARAUDI BERRIA DA**

Gobernuan geundela, gaia lantzen hasi ginen. Izan ere, pandemiak prozesua azkartu zuen. Orditik, hainbat pauso eman izan dira, eta guztiontzako ona dela uste dugu. Eskerrik asko Udaleko Pertsonaleko Sailari, egindako lanagatik".

Sindikatuarekin eta alderdi guztien adostasunarekin egindako araudia da, beste herrietako eta instituzioetako ereduak kontuan hartuz eta Arrasateko errealtatera egokituz gauzatu dutena.

"Erreminta bizi bat" da Urteagak dio araudia "erreminta bizi bat" dela. "Urtebete barru, ikusiko dugu zer bilakaera izan

duen, zer abantaila eta zer gabezia dituen. Beti izango dugu aukera araudia aldatzeko eta ahalik eta kasu gehienetara egokitzeko. Denboraren poderioz, ikusiko dugu zer hobetu daitekeen eta zerk ez duen funtzionatzen. Uste dugu positiboa dela langileek aukera hori izatea, eta haiek ere hala uste dute".

Gaineratu duenez, araudi horrek bermatuko du lanaren jarraipena egitea. "Ordutegi batzuk bete beharko dituzte eta baldintza zehatz batzuk bete beharko dituzte telelana egin ahal izateko. Brigadako langileek, adibidez, ezin dute telelanik egin, baina teknikariek txostenak etxetik egin ditzakete. Halaber, kanpoko bilerak daudenetan ere, haien etxetik zuzenean bileretara joan ahal izango dira eta bilera ostean etxetik bukatu haien jarduna".

Etxetik lan egin ahal izateko, gutxienezko baldintzak bete beharko dituzte langileek: "Baliabide guztiak eduki beharko dituzte etxean, baita Udalean erabiltzen diren programa informatiko guztien baimenak ere".

Adierazpen bateratua ere bai

Modu berean, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoaren 49. urteurrenaren aldeko adierazpen instituzionala egin du udalbatzak. Besteak beste, Udalak berretsi du Fronte Polisarioa saharar herriaren ordezkari legitimoa eta bakarra dela, Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko komunitateak halakotzat aitortua. "Horrez gain, salatzen dugu marokarrek Mendebaldeko Saharan duten presentzia legez kanpokoa dela eta nazioarteko arauak urratzen dituen okupazioa dela", dio adierazpenak. Era berean, exijitu du NBEk Mendebaldeko Saha-

Ruiz de Azua bueltan dator

Pedro Maria Ruiz de Azua jeltzaleak zinegotzi kargua hartu du; iazko martxoan kargua utzi zuen Bizente Etxebarria ordezkatu du. la urtebeteren ostean dator aldaketa, zerrendan haren aurretik zeuden bost hautagaik uko egin baitiote karguari. Aurrez ere zinegotzi izandakoa da Ruiz de Azua, 1987tik 1993ra. Halaber, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide izan zen 1991-1995eko agintaldian, eta Aldundiko Ogasuneko zuzendari ere bai, 2007tik 2011ra.



Ruiz de Azua, udaletxean. E.A.B.

raren banaketa aurreikusten duen edozein proposamen baztertzea eta, horren ordez, saharar herriaren autodeterminazioarako "erreferendum aske, justu eta behin betikoa" bermatzeko haren agindua betetzea.

Zerrajerako arku mantentzeko lanak hasi ditu Udalak asteen

2025ean Portaloi eta Kontzezinoko arkuak ere berrituko dituzte, Markuleteko labea berreskuratzearekin batera

E.A.B. ARRASATE

Zerrajerako arkuak berritzeko azken lanak hasi dituzte. "Egiturari eragiten zioten lanen ostean, pintaketa eta azpiegitura lanekin ari dira", dio Udala Gobernuak. "Besteak beste,

egoera txarrean dagoen ur kanalizazio berria jarriko da, eta aterpearen fatxadak eta teilatupea garbitu eta margotuko dira. Berdea den sabaia grisa izango da, jatorrizko eraikinaren estetikara gerturatzeko".

Lanek bost aste iraungo dute eta baliteke trafikoan noizbehinka eragina izatea. Kasu horietan, trafikoaren bi noranzkoak mantenduko dituzte, eta trafikoa txandaka bideratu. Lanak egiteko aurrekontua 44.727,89 eurokoa izango da -BEZa barne-.

Halaber, beste lan batzuk ere egingo dituzte aurten: "Iaz, Markuleteko labearen jabetza eskuratu zuen Udalak, eta hura konponduko dugu aurten. Horrez gain, Portaloi eta Kontzezinoko arkuak berrituko ditugu".



Makina bat, aste honetan, Zerrajerako arku berritzeko lanetan. ARRASATEKO UDALA

Txorimalo, kukumarru eta paella, mozorrotzeko deia

Aratusteen berri emateko agerraldian nobedade esanguratsuak iragarri dituzte asteon: lehen aldiz, euskal Inauterietan oinarritutako kalejira antolatu dute, eta mozorro paella herrikoia ere egingo da lehenengoz. Kartela Izaro Sanchez aretxabaletarrarena da

Jokin Bereziartua Lizarazu ARRASATE Aratusteen berri emateko agerraldia egin dute asteon Olarte kaleko arrandegian, aurtengo sariak bertan ikusgai daudela baliatuta. Hasteko eta behin, kalera mozorrotuta eta karrozekin irteteko dei egin zuen Aratusteetako jai batzordeko Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-k: "Ea iazkoa baino giro beroagoa dagoen kalean. Animatu!". Martxoaren 1a izango da egun handia; iazko kuadrilla irabazle izan zen Sanbamañak irakurriko du pregoia, eta ondoren hasiko da desfile koloretsua; bost sariak desfile ostean banatuko dituzte (Ikus ondoko egitaraua).



Aratusteen aurkezpena, asteon, Olarte kaleko arrandegian. J.B.L.

Txorimaloak eta kukumarruak Herriko kultura eragileen ekimenez, lehen aldiz antolatu dituzte Euskal Herriko Inauteriei eutsi dieten herrietako Inauterietan oinarrituta. Musikariak, dantzariak eta kukumarruak –Arrasaten mozorroei deitzeko erabiltzen zen izena– izango dira protagonistak. Lehen urte honetarako, gainera, dantzariak eta txistulariak propio otsailaren 28rako sortutako kalejira bat antzeztuko dute. Alegia, sorpresa bereziak datoz aurten. "Iaz hasi ginen ideiarekin eta aurten gauzatuko dugu. Herrikoia izango da, jende askok hartuko du parte; ea zein erreakzio eragiten duen", dio Iñaki Barrutiak.

Paella herrikoirako txartelak Gainera, Haur eta Guraso Asanbladak mozorro paella herrikoia antolatu du, Kulturoloko pasabidean, goizeko giro beroa ahalik eta gehien luzatzeko. Gaur jarri dituzte txartelak salgai, Irati tabernan –hiru txartel mota daude–, eta 200 lagunendako lekua egongo da. Bazkalostea girotzeko, DJ Goiko gonbidatu dute. Kartela Izaro Sanchez aretxabaletarrak egin du; *Zein ote?* izena jarri dio lanari.

2025eko Aratusteak: egitaraua

Otsailak 28, egubakoitza

- **18:30** Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertua Amaia antzokian.
- **19:00** Arrasateko Herri Karnabalak: TXORIMALOAK –musikariak eta dantzariak– eta KUKUMARRUAK –mozorroak–. Kalera irtengo dira, tradizioari eutsiz; 21:00etan Herriko Plazan amaituko dute.

Martxoak 1, zapatua

- **12:00** Pregoia Biteri plazan, suziri jautiketa eta guzti. Ondoren, DESFILEA hasiko da, Arrasate Musikaleko txarangak lagunduta.
- **13:00** MOZORRO LEHIAKETAREN sari banaketa, plazan. SARIAK: kuadrilla onena, urdaiazpikoa, plaka eta 1.000 euro; karroza onena, urdaiazpikoa, plaka eta 500 euro; kuadrilla gazte onena, urdaiazpikoa, plaka eta 300 euro; taberna onena, urdaiazpikoa, plaka eta 300 euro; eta bakarkako onena, plaka, gazta eta 150 euro.
- **14:30** MOZORRO PAELLA HERRIKOIA Kulturoloko pasabidean, Haur eta Guraso asanbladak antolatuta. Bazkalostean, dantzaldia, DJ Goikoren eskutik; txartelak salgai daude Iratin.
- **18:30** KALE ANIMAZIOA, Arrasate Musikaleko txarangaren eskutik.
- **19:30 eta 22:30** DANTZALDIA plazan, BIDE BATEZ taldearekin.

Martxoak 2, domeka

- **19:30** Kamikaz taldearen *Renata* ANTZEZLANA Amaia antzokian.

Martxoak 4, martitzena

- **17:00** DISKO FESTA Biteri plazan eta PAILAZOAK Amaia antzokian.
- **17:30** KALE ANIMAZIOA Samasiku txarangaren eskutik.
- **18:30** Erraldioen eta Kilikien Konpartsaren KALEJIRA.
- **19:30 eta 22:00** Nemux taldearekin DISKO-FESTA plazan.
- **21:00** SARDINAREN HILETA. Segizioa Kulturolatik abiatuko da, 20:30ean, eta, erdigunean ibili ostean, sardina plazan erreko dute.



NIRE USTEZ

MAITANE MUÑOZ

Neguan ere, jolas grina

Umeak beti dira ume, neguan, udaberrian, udan eta udazkenean. Urtaro bakoitzak, baina, jolasteko espazio eta tresna ezberdinak jartzen ditu hurren eskuetan. Eta jakina da gurean negua luzea eta euritsua izan ohi dela eta aisialdi aukerak murriztu egiten direla espazio itxi eta estalitakoetara.

Aurreko legealdian, EAJ udal taldean egoera honetaz oso kontziente izanik, lanean hasi ginen parkeak estali eta haurrentzat aisialdirako espazio berriak sortzen. Umeek eskertu zuten aire libreaz gozatzeko parada izatea, txirristan gora eta behera ibili eta lurtean arrastaka aritzea, blai-blai bukatu gabe. Eta uste dut garrantzitsua dela erdialdean ere parke estali bat izan dezaten lanean jarraitzea. EAJtik, Aprendizeseko jolastokia estaltzea proposatu genuen, eta udal gobernuek ezetz. Erdialdeko beste parke bat estaltzeko aukera partekatu zen, eta orduan ere, ezezko borobila. Egin dezagun lan, gure txikiek neguan ere jolas parke eta kanpo espazioaz goza dezaten posible egiteko. Negua, hotza eta euria izanda ere, gure txikiek jolasteko grina bizi-bizi daukate eta. Merezi dute.

Autolaguntza: lehen liburua aurkeztuko du gaur Ruben Sierrak

Gaur egun Ondarroan bizi den Ruben Sierra arrasatearrak bere lehen liburua aurkeztuko du gaur, otsailak 7, Kulturateko areto nagusian (18:30); aurkezpena gaztelaraz izango da. *Actualiza tu historia interior. Transformación y empoderamiento* du izenburu autolaguntzarako liburua; egileak berak dioenez, irakurraldi baterako "baino

askoz gehiagorako" aukera eskaintzen du liburua.

Hain zuzen ere, liburua Sierraren beraren bizipenetan dago oinarritua: "Norbera aurkitzeko bidaia bat da eta, beraz, pertsona bezala hazteko aukera. Konfiantzazko ikuspegi ausart, gertuko eta praktikoko batetik gidatuko dut irakurlea, haren mugak hautsi eta benetako indarra eta boterea topatzeko laguntzeko. Bizitza osoago eta ahaldundua go baterako bidelagun ederra izan daiteke askorentzat".

OHARRAK

'Otsailaren 11 erakuslehoak' ekimena

Otsailaren 11n ospatuko den Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin bat egin dute herriko hamalau saltokik, haien lana ikusaraztea helburu (Ikus 2. orria).

Arrasaten bizi diren oñatiarren topaketa

Martxoaren 29an elkartuko dira, Erreka jatetxean bazkaltzeko. Izena emateko: 616 27 59 38 (Ibai) edo 696 77 73 97 (Pasku).

Txotxpartan izena emateko aukera

Takun taldeak martxoaren 21erako antolatu du Txotxparta eguna; Aramaioko Untzuetan sagardotegian afalduko dute. Izena eman daiteke Irati tabernan, martxoaren 18ra arte. Prezioa da 45 eurokoa (autobusa barne); ikasle eta langabeentzat, 40 euro.

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria

Bihar, otsailak 8, Musakolako gazte txokoan egongo da 3 eta 12 urte arteko umei zuzendutako zerbitzua. Orduetgia: 11:30-13:30.

Errezoarekin lotutako saioak abade-etxean

Pako Etxebeste apaizak gidatutako topaketak dira, hamabost egunean behin. Hurrengoa otsailaren 11n izango da, 19:00etan.

Aulki hutsak bete gura dituzte, errelebora begira

SUDCeko zuzendaritzako Juan Luis Arkauz eta Antton Zumalde elkartu ditu GOIENAK, elkarteak aspalditik bizi duen errelebo faltan sakondu guran: "Ez dago SUDC modukorik Gipuzkoan... Jende gaztea behar dugu; prest gaude gazte horiei edozertan laguntzeko"

Jokin Bereziartua Lizarazu
ARRASATE

1963an sortu zen SUDC elkarteak, San Isidro, Udalpe, Danok-Bat eta Casino elkarteak elkartuta. Egun, 22 bat elkarte dira SUDCeko parte. Hori bai, Casino elkarteak Jose Egidazu lehen presidentea izan zenetik gauzak "asko" aldatu direla diote egungo presidente Juan Luis Arkauzek (Arrasate, 1955) eta 1989an presidente izan zen Antton Zumaldek (Arrasate, 1949). SUDCen Kulturoloako egoitzan elkartu da GOIENA bi historiko horiek.

Musu-truk, borondaterik ez

Gaur egungo gizarteak, oro har, musu-truk lan egiteko borondaterik ez dagoela argi dute biek. SUDCek bizi duen egoera zailaren isla, Arkauzek datu bat eman du: "Ofizialki 22 elkarte osatzen dugu SUDC. Bada, azken bilera-tara hamabi elkartetako ordezkari bana etorri izan da, asko jota. Ez dago interesik". Eta ho-

nako hau gaineratu du Zumaldek: "Elkarte bakoitzeko kargu berriak izendatzen direnean, SUDCeko ordezkaria, askotan, kanpoan ari da lanean edo kanpoan bizi da eta ez da bileretara etortzen. Urtero bazkari batera deitzen ditugu elkarteetako delegatuak, eta bazkaltzeko ere erdiak elkartzen gara. Egun osoko plana izaten da, debalde, baina asko ez dira etortzen".

Elkarte gastronomikoei bizi duten gainbehera aipatu du Arkauzek: "Ez dago mugimendurik apenas. Gu gazte ginenean, ia egunero ibiltzen ginen elkarteak, jendez lepo egoten ziren. Musean, sukaldean... Gure aisialdiaren ezinbesteko parte ziren; gaur egun, apenas ibiltzen da jende gaztea".

Laguntzeko gertu daude

Gaur egun, bost kide dira SUDCeko zuzendaritzan, guztiak gizonezkoak, hiru erretiratu eta bi langile. Arkauzekin eta Zumalderekin batera Roberto Bel-

tran, Abel Canales eta Iban Goñi dira zuzendaritza taldekoak.

Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, edota ekitaldien antolaketan lagundu; betiere, auzolan boluntarioa oinarri: sanjuanetako helduen danborrada, Aste Santuko doke txapelketa, erretiratuaren bazkaria, Aratusteetako sardina-ehorzketak, Arrasate Hiria Akordeoi Lehiaketako partaideendako bazkariak... eta beste hainbat. "Lanean laguntzeko egun zailak izaten dira: sanjuanak, Aste Santua... Askok nahiago izaten dute herritik alde egin, oporretara", uste du Zumaldek.

Erreleboa "oso zail" ikusten badute ere, ez dute itxaropena

1963AN SORTU ZEN SUDC, SAN ISIDRO, UDALPE, DANOK BAT ETA CASINO ELKARTUTA



SUDCeko zuzendaritza taldeko Juan Luis Arkauz eta Antton Zumalde, asteen. J.B.L.

erabat galdu. "Gu laguntzeko prest gaude, edozertarako. Jende gazteak ziur ideia berriak dituela... Urte gehiegi daramatzagu SUDCen, nekatuta gaude", dio Arkauzek. Zumaldek dio ordainpeko lana balitz egoera guztiz aldatuko litzatekeela: "Soldata jasoko bagenu, ez litzateke errelebo arazorik egongo; gaur egun, inor ez dago gertu musu truk-lan egiteko. Askotan ahalegindu gara, baina ez da posible izan".

SUDC, bakarra Gipuzkoa osoan

SUDC desagertuko balitz Arrasatek zer galduko ote lukeen galdetuta, honako hau uste du Zumaldek: "Ekitaldi garrantzitsuenak ez lirateke desagertuko;

okerrenera, Udalak hartuko litzuke bere gain. Baina ez dugu uste modu boluntarioan egingo zutenik, ordaindu egin beharko litzateke". SUDC herriko eragile garrantzitsua dela uste dute, eta, hori azpimarratzeko, kanpotik datozenek esaten dituztenak hartu ditu aintzat Arkauzek: "Arrasatera datozen bisitari askok esaten digute SUDC modukorik ez dagoela Gipuzkoa osoan. Adibidez, akordeoi lehiaketak Arrasaten egiten dira, hein handi batean, akordeoilariak ematen diegun jangela-zerbitzu ederragatik. Akordeoi munduko beste txapelketa batzuetan txartel bat ematen diete partaideei, bazkariarekin trukatu dezaten; Arrasateko beste kontu bat da".



ENEKO AZURMENDI BARRENA

Usadioa berrituz, geroa bermatu

Santa Ageda bezpera berezia bezain arrakastatsua izan da. Martitzena izanda, ez zen iazko domekako jendetzarik batu, baina abesbatzaren bueltan gero eta gazte zein emakume gehiago elkartzea bada aspaldiko ohiturak oinarri dituen ospakizunari etorkizuna bermatzeko

modua. Eguraldia lagun, egun osoan aritu ziren eskean; udalbatxe barruan egin zuten goizeko azken kantaldia – argazkian–; eskailera lepo beteta zeudela, saio hunkigarria izan zen. Aurrerago jakinaraziko dute zenbat diru bideratuko duten aurten Arrasateko Caritasera.

Gazte Olinpiadak: izena eman daiteke martxoaren 9ra arte

Iazko arrakastaren ostean, aurturaren bigarren eguneko izango dira Gazte Olinpiadak, ekainaren 21ean. Aldaketak iragarri dituzte, gainera: "Jolas berriak, sari gehiago, gosaria eta abar. Egun borobilagoa antolatzen gabilta. Eta lasai egon: aurturaren hurrengo egunean deskantsatu egin ahal izango da". 18 urtetik gorako arrasatearrei zabaldu diete deialdia, eta honako irizpide hauek hartu beharko dira kontuan izena emateko: taldeak gutxienez hamar pertsonakoa izan beharko du, izen-ematea 100 euro izango da kuadrillako eta martxoaren 9rako eman beharko da izena, Interneteko galdetegi bat beteta.

Bergaran lehiatuko dira, bihar, Arrasate Dragoiko gimnastak

Asteburu honetan ekingo die Arrasate Dragoi gimnasia taldeak 2024-2025eko denboraldiko txapelketei eta erakustaldiei. Bihar, otsailak 8, Bergarako Labegaraia kiroldegian jokatu den Gipuzkoako amateur mailako txapelketaren lehen fasea jokatu dute (Ikus 22. orria). Taldeka zein banaka lehiatuko dira arrasatearrak. Kadete eta gazte mailatan lehiatuko dira taldeka, eta banaka, berriz, gazte mailan; banaka lehiatuko diren gazte mailako gimnasta horien artean egongo dira Anne Hurtado, Eider Vazquez eta Paula Andres. Denboraldi honetan 155 gimnastak osatzen dute Arrasate Dragoi gimnasia taldea.

Pilar Ansoategi gogoan, margo alaiak klaustroan

2020ko otsailaren 27an hil zen Pilar Ansoategi Iribekaposen akuarelen erakusketa atzo ireki zuten, Kulturaten, eta hilaren 27ra arte egongo da ikusgai. Herrian arrastoa utzi zuen militante feminista izan zen: "Emakume handi hark esker on zabalagoa merezi zuen"

Jokin Bereziartua Lizarazu ARRASATE Erakusketa berezia ireki zuten atzo Kulturateko klaustroan, Pilar Ansoategi Iribekapos zenaren akuarelekin osatutako erakusketa. Erakusketa otsailaren 27ra arte egongo da zabalik, astelehenetik zapatara, 17:30etik 20:30era.

Militante feminista nekaezina eta alor askotan nabarmendu zen pertsona izan zen Ansoategi; 1970eko hamarkadan hasi zen askotariko mobilizazioetan parte hartzen; Arrasateko langile mugimenduetan, bereziki. Besteak beste, Liga Komunista Iraultzailearen (LKI) barruan emakumeen taldea bultzatu zuen eta Makatzena auzoan ekimen ugari antolatatu zituen, auzolana oinarri.

"Esker on zabalago baten" bila 1947an jaioa, 2020ko otsailaren 27an hil zen Ansoategi. "Gaixorik zegoela bagenekien, baina, hala ere, lehen aldiz pairatu zuen minbizia indarberrituta gairitu zuenez, bigarren hartan ere hala izango zela pentsatu genuen. Eta ia ezustean joan zitzaigun, 2020an, pandemia deituriko horren hasierarekin batera. San Kristobalگو kanposantuan ahalik eta agur goxoen emanen saiatu ginen arren, hutsune handia geratu zitzaigun, utzi zigun gabeziagatik, batez ere, baina baita emakume handi hark esker-on zabalagoa merezi zuela pentsatu genuelako ere", adierazi zuten atzo, erakusketaren irekiera-ekitaldian.

Omenaldia Aretxabaletan 2016an Arrasaten ez ezik, Aretxabaletan ere oso maitatua zen Ansoategi. Horren adibide da 2016an Aretxabaletan jaso zuen aitortza –ondoko argazkian–. Karmele Unzuetaekin batera omendu zuten, besteak beste, Ansoategi, parekidetasunerako bidean egindako ekarpena aitortzeko. Pun-



Pilar Ansoategi 2016an, Aretxabaletako frontoian jaso zuen omenaldian. E.Z.

HILAREN 27AN ITXIKO DUTE ERAKUSKETA, ANSOATEGI HIL ZELA BOST URTE BETEKO DIREN EGUN BEREAN

tu more eta "hegan egiteko" erratz bana eman zieten esker on modura, euren eguneroko lana aitortu eta eskertzeko.

Hil zela bost urte beteko dira Ansoategik bere bizitzan zehar "hainbat alor" jorratu zituela azpimarratu zuten atzo, haren gertuko lagun hauek sinatutako testu hunkigarrian: Marifran Arana, Ana Rosa Etxebarria, Nekane San Miguel, Edurne Arregi, Amaia Iturriaga, Marije Zabarte, Klara Elkorobarrutia eta Idoia Salaberri. Ansoategiri omenaldia egiteko "modu asko" daudela esan zuten: "Pilarrek margotu egin zuen; akuarelak. Hori haren bizitza aberatsaren alor bat besterik ez zen izan, baina guretzat aitzakia ederra da umiltasunean pasatu zen emakumea, gure lagun handi hura, ahaztua izan ez dadin.

Erakusketari bukaera emateko jarritako egunean bost urte beteko dira joan zitzaigula; data borobila dela pentsatu dugu urteurrena oroitu eta gure esker ona erakusteko, biografia xume bat ere eskainiz".

Belaunaldi baten "isla"

Ansoategiren bizitza bere belaunaldiko Arrasateko emakume askoren bizitza izan dela ere adierazi zuten: "Pilarren bizitzaren pasarte esanguratsuenak bildu eta idazteko orduan, iruditzen zaigu Arrasateko haren belaunaldiko hamaika emakumek ikusiko dutela euren burua islatuta. Ez, agian, Pilarrek landu zituen eremu guztietan, baina ziur arlo baten baino gehiagotan; eta hori nahikoa litzateke nondik gatozen jakiteko eta gure atzetik datozenek ezagutu dezaten nolako giro eta egoeratik egin zuen aurrera Pilarrek, ailegatu zen leku eta mailatara ailegatzeko. Ez zuen kemena haren mesedetan erabili; jendarte hobea, solidarioagoa, berdina eta justuagoa lortzeko erabili zuen. Haren margo alaiak disfrutatzeaz gain, gure oroimean luzaroan iraun dezala".



Mejillon Tigre taldearen Hitz esana ikuskizuna, Usurbilgo Emakumeen Etxean. NOAUA

Mejillon Tigre taldearen poesia saio berezia, gaztetxea girotzeko

Kooltur Ostegunak ekimenaren eskutik, 'Hitz esana' emanaldia ikusiko ahalko da hilaren 13an, 22:00etan

J.B.L. ARRASATE

Proposamen bereziki ezberdina dakar Kooltur Ostegunak ekimenak otsailaren 13rako; gaztetxean, 22:00etan; sarreraren prezioa, zazpi euro. Eider Adetxek eta Ane Zubeldiak osatzen duten Mejillon Tigre kolektiboa gonbidatu dute, *Hitz esana* emanaldia egin dezan. Eider Perez eta Ane Garcia izenez ere ezagutuko dituzte askok; bi sortzaileek, euren literatur lanak argitaratzeko, amamen abizenak baliatzen dituzte.

'Spoken word' formatua

Sormen-lanak kolektibotasunetik landu eta plazaratzeko asmoz sortu dute Mejillon Tigre, baina aurretik ere elkarrekin jardunak ziren. 2016tik 2019ra, *Autobiografikak* emanaldiarekin aritu ziren, munduko emakume poeten lanak euskaraz errezipitatu eta antzezten. Orain esku artean

duten *Hitz esana* ere poesia da, *spoken word* formatua darabilena. Honela azaldu dute bi sortzaileek: "*Spoken word* delakoa, batez ere, ingeles hiztunak diren herrialdeetan landutako poesia-molde konkretu bat da: ahoz gora esateko idatzitako poesia; errepikari, erritmoari eta hitzen soinuari arreta berezia ematen dion poesia; entzulearekin zuzen-zuzenean komunikatu nahi duen poesia; gorputzaz ahazten ez den poesia; esan egiten den poesia; momentuan gertatzen den poesia". Kooltur Ostegunetan kontzertuak badira ere ekitaldi ohikoenak, oraingoan poesia izango da protagonista; betiere, musikaz lagunduta.

Bi sortzaileak zeharkatzen dituzten bizipenak dira aurkeztu dituzten testuen oinarri: etxebizitza, sexu-indarkeria, gorpuztasuna, idoloak eta erreferenteak, besteak beste.

Ipuin-kontalariak: Pello Añorga hilaren 13an Kulturaten

Udal Bibliotekaren eskutik, Pello Añorga ipuin-kontalariaren *Irudi liburuak kontatzen* saioa izango da Kulturateko Jokin Zaitegi gelan otsailaren 13an (18:00). 2 eta 3 urte arteko umei dago zuzenduta eta antolatzaileek eskatu dute izena alde aurretik emateko: izenemateak.arrasate.eus. Plazak izen-emate ordenaren arabera esleituko dituzte.



Pello Añorga ipuin-kontalaria. 'IDAZLEAK.EUS'



Itsaraz zentrala jartzea aurreikusita zegoen Ganborralde menditik ateratako argazkia. ARAMAIXO BIZIRIK

Ospakizun-egun bihurtu da 'Aramaio bizi-bizi'

Aramaixo Bizirik taldeak "herriaren eta mendien defentsan" egun osoko egitaraua antolatuta zeukan hilaren 15erako, eta aldarrikapen-egun izatetik ospakizun-egun izatera pasako da, Itsaraz proiektuak Espainiako Gobernuaren ezezkoa jaso ostean

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO
Modu positiboan baloratu du Aramaixo Bizirik taldeak urtarriaren 16an Madrilgo administrazioko Trantsizio Energetikorako Ministerioak Itsaraz proiektuaren aurkako erabakia hartu izana. Eta, Itsaraz proiektuak Espainiako Gobernuaren ezezkoa jaso ostean, honela baloratu du erabakia Aramaixo

Bizirik taldeko Beñat Agirrek: "Oso positiboki baloratzen dugu Ministerioaren azken ebazpena. Taldean geundenok bageneukan esperantza proiektua atzera botako zena, eta herrian, egia esan, bizilagunek eta biztanleek hasieratik nahiko etsipenezko jarrera zuten, Aramaion trenaren kontuarekin ere nahiko esperientzia txarra daukagulako.

Guk bagenekien gure argumetuak sendoak zirela, baina, azkenean, hori erabaki tekniko bat izaten da, eta eskertzen dugu, batez ere, Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariek landu zuten txosten hura; izan ere, horren bidez bota ahal izan da atzera".

Agirrek gogora ekarri du taldearen hastapena: "Aramaixo Bizirik sortu zen, proiektu horren

kontra baino gehiago, aurrekaria egon zelako Jarindon. Izan ere, bere egunean bazegoen asmoa orain Asentzio mendian jarrita dagoen moduko dorre bat jartzeko, haizea-eta neurtzeko dena. Han batu ginen, eta, nahiz eta Itsaraz atzera bota duten, Jarindon bertan badago beste proiektu-eskaera bat, nahiz eta oraindik aurreproiekturik ez den aurkeztu, eta inguruan ere badaude beste proiektu batzuk; beraz, gurearekin aurrera jarraitzeko asmoa daukagu".

Ospakizuna hilaren 15ean

Agirrek azaldu du jakitun zirela ebazpena urtarrilean etorriko zela, eta konturatuta zeudela gaia azken hilabeteetan "hozten" zebilela. Horren harira, egun bat antolatzeko nahia adierazi zuten, nahiz eta momentuan ez zekiten "aldarrikapen-eguna edo ospakizun-eguna" izango zen.

Azkenean, hilaren 15ekoa ospakizun-eguna izango dela azpimarratu du, eta gogoz daude, herriko beste hainbat eragile alboan izango baitituzte *Aramaio bizi-bizi* egunerako; hauek, zehazki: Lagun Artea dantza taldea, Trikikalejira trikiti taldea, bertso eskola, Orixol mendi taldea, Alaiak jubilatuta elkartea, talde feminista, Iturzuri emakumeen elkartea, Gazte Asanblada, Pargorri abesbatza, Aramaio antzerki taldea, Aramaio herri eskola, Aramaio Udala eta beste hainbat norbanako –abeslariak eta artistak–.

Eguneko egitaraua

Datorren zapatuan, hilaren 15ean, 09:00etan emango diote hasiera *Aramaio bizi-bizi* egunari. Mendi buelta didaktikoa egingo dute, frontoian hasita, Azkoagatik igaro eta Ganbo-

rraldera. Mendian dantza taldeak emanaldia egingo du, eta Agirrek aurreratu du "salbatu gaituzten hegaztiei" buruzko azalpenak emango dituela aditu batek. Dena den, mendira joaterik ez dutenendako gosari-tertulia ere antolatu dute, 11:00etan, jubilatuen elkartean, adin guztietako herritarrendako, eta ekologismoaz hausnartuko dute han.

13:00etan, manifestazioa eta ekitaldia egingo dituzte, frontoian hasita; eta 14:30ean, baba-jana egingo dute eskolako jangelan. Bazkarirako txartelak herriko tabernetan daude salgai: heldu, langile eta jubilatuetarako, 20 eurotan; eta gainontzekoendako, 10 eurotan.

Egunean zehar herriko hainbat talderen eta kolektiboren sorpresak egongo direla ere aurreratu dute, eta gauean, berriz, kontzertuak izango dira, 21:00etan hasita. Talde hauek izango dira: Zero, Harrikada, Bat Bat Bi eta DJ Tigers Brothers.

Manifestazioetara joateko deia

Otsailaren 15ean Iruñean eta martxoaren 22an Gasteizen egingo diren manifestazioekin bat egitera gonbidatu ditu Aramaixo Bizirik taldeak herritarrak, *Aramaixo bizi-Bbzi* egunean parte hartzeko gonbidapena egi-teaz gain.

Gainera, ondoan izan dituzten taldeei, kolektiboek eta herritarrei eskerrak eman dizkiete.

ALBOAN IZAN DITUZTEN TALDEAK, KOLEKTIBOAK ETA HERRITARRAK ESKERTU DITUZTE

EAJk Udal Gobernuari eskatu dio bi langileren egoera argitzeko

Kultura etxean diharduten bi langileen egoera zertan den jakin nahian, informazioa eskatu du EAJk

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI
Urtarrileko ohiko osoko bilkura egin zen joan den asteke egunean. Dekretuen berri eman, 2023ari dagokion kontu orokorra onartu eta administrazio orokorreko teknikariaren

lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren aldaketa onartu ostean, galde-eskaeren tartean EAJko Alberto Amenabar bozeramaileak hartu zuen hitza. Bertan, jeltzaleak Udal Gobernuari esan zion kultura etxeko

bi langileen egoeraren txosten juridikoak –kanpokoak zein barnekoak– jaso nahi dituztela, baldin badaude, eta egoera "konpontzeko" zein pauso eman diren jakin nahi dutela. Salaketarik dagoen edo ez eta egoera zertan den jakin nahian, txosten bat eskatu zion Amenabarrek Udal Gobernuari. Bestetik, Udal Gobernuko Libe Ramila zinegotziak hartu zuen hitza, eta erantzun zion esanaz bidaliko dietela gai horri buruz eurek daukaten informazioa.

Sei landa-gunetako plan berezia kontsulta daiteke

Arriola, Arexola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola landa-gunetako plan bereziari behin-behineko onarpena eman zitzaion 2024ko uztailaren 10ean, baina, ingurumen-txosten estrategikoa iraungita dagoenez –hasierako onarpenaren ondoren eskatu ziren zuzenketek denbora luzatu dute–, berriz prozedurarekin hasi behar izan du Udalak, es-

katutako zuzenketak aintzat hartuta.

Ondorioz, 2025eko urtarrilaren 22an berriz hasierako onarpena eman zitzaion sei landa-gune horietako plan bereziari. Hasierako onarpenaren iragarkia ALHAOn (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean) argitaratuta dago, eta hilaren 28ra bitartean egongo da kontsultatzeko moduan. Beraz, espedientea ikusgai dago udal bulegoetan eta webgunean, interesdunek aztertzeko moduan.



Energia-komunitateei buruzko jardunaldian, herritarrek hizlarien azalpenak entzuten, eguazten arratsaldean. MIREIA BIKUÑA

Inguruko energia-komunitateak ezagutzen

Aramaion energia-komunitatea sortzeko prozesuari ekin zioten duela hilabete batzuk, eta, proiektura herritar gehiago erakarri nahian, horri buruzko azalpenak eman dituzte eta inguruko beste lau herritako esperientziak partekatu dituzte

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Energia-komunitateei buruzko jardunaldia egin dute asteon, eta bertan, alde batetik, horrelako bat sortzeko prozesuari buruzko informazioa eman dute, eta, bestetik, euren esperientziak partekatu dituzte herritarrekin Eskoriatzako, Elgetako, Urartereko eta Otxandioko energia-komunitateetako ordezkariak.

Aramaion energia-komunitatea sortzeko prozesuari ekin zioten orain dela hilabete batzuk, eta hamar lagunek lantalde batek interesa du prozesuan parte hartzeko, baina herritar gehiagorengana iristeko asmoz antolatu du Udalak mahai-ingurua. Hauxe esan du energia-komunitateen bidelagun den Goienerreko Oier Etxebarriak: "Hasi ginen aurreko udazkenean; orduan bilera batzuk egin genituen, eta oso ondo joan zen, baina herritar gehiago batzea interesgarri ikusten genuen, eta saio honekin aukera izan dugu inguruko beste energia-komu-

nitate batzuen esperientziak ezagutzeko, eta ea jende gehiago animatzen den".

Esperientziak partekatu dituzte Elgetako Ixotzen energia-komunitateko Ibai Larrañagak, esaterako, honela azaldu du euren esperientzia: "Elgetan 2022an abiatu genuen prozesua, Udalaren eskutik. Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko proposamena egin ziguten herritarro, eta talde txiki bat hasi ginen lanean. Gaur egun, kooperatiba bat daukagu osatuta, eta lehenengo instalazioa martxan jartzen gabilta".

Eskoriatzan ere badute energia-komunitatea. Iazko udazkenean aholkularitza jaso zuten,

MOMENTUZ, HAMAR LAGUN INGURUKO TALDE BATEK DU PROIEKTUAREKIKO INTERESA

Goienarren eskutik: autokontsumoa, argindar-faktura irakurtzen eta interpretatzen ikasi... Guztira, 120 bat familiak erakutsi zuten komunitateko kide izateko interesa, eta pozik daude orain artekoak eman duenarekin, bertako Nestor Aranen esanetan: "Duela bi urte, neguan, aholkularitza-zerbitzu bat eman genuen eta 120 familiak parte hartu genuen. Gogoratu behar da garai hartan gasaren prezioa oso altu zegoela, eta, gutxi gorabehera, kalkulatu dugu familiako 1.000 euro aurreztu zirela. 120 familiak hartu zuten parte; beraz, estimatzen dugu 120.000 euro aurreztu zirela. Hortik ikus daiteke komunitate batek zein ekarpen egin diezaiokeen herriari".

Gizarte komunitateetan antolatzearen garrantziaz ere egin dute berba, eta auzolana beste esparru askotara zabal daitekeela azaldu dute. Bukatzeko, herritarren zalantzak argitu dituzte.

Bigarren Bertso Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Sastiñan

Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketaren barruan, herriko bigarren taldea aurkeztuko dute, 19:00etan

A.T.G. ARAMAIO

Aurtengo Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketaren lehenengo fasean, talde parte-hartzaileak ezagutzeko bertso egunak antolatu dituzte. Joan zen zapatuan, santa-eske egunarekin bat eginez, Aramaio lehenengo talde parte-hartzailea aurkeztu zuten herrian: Bañera FT.

Eta bihar, zapatua, Aramaio bigarren talde parte-hartzailea ezagutzeko aukera izango da, Sastiñan 19:00etan egingo den saioan. Izena Pentsau Bida 2 izena daraman taldearen aurkezpen-eguna izango da, zehazki, eta bertsolari hauekin dago osatuta taldea: Manex Agirre, Gari Arexolaleiba, Aitor Ugarte, Eñaut Olaziregi, Iraide Onaindia, Olatz Zuazubiskar, Iker Elexpuru, Maialen Torres eta Gillen Agirre. Haiez gain, bertso eskolako txikiaren taldekoek ere

abestuko dute Sastiñan egingo den saioan.

Hilaren 14a, berriz, Aramaio azken talde parte-hartzailea ezagutzeko eguna izango da. Baina hori Legutian izango da, hango kultura etxean, 17:30ean. Aramaio Talde taldea izango da bertsoan: Peru Abarategi, Andere Arriolabengoa, Txomin Abarategi, Anitz Abarategi, Hegoi Azkarate, Sabin Abarategi, Mikel Ruiz de Azua, Unai Etxenausia eta Mikel Ullibarriana.

Danel Herrarte, Lapurdin

Bertsolari gazteei bertsoan aritzeko plazak eskaintzea helburu duen Bertsozurla lehiaketan, bestetik, Lapurdiko Azkaine herrian arituko da bertsoan gaur, 19:00etan, Xoko Ona ostuan, Danel Herrarte bertsolari aramaioarra.

Aurreko hilabetean 24 odol-emate izan dira Aramaion

Odola emateko autobusa Aramaion izan da urtarrilean; hilaren 21ean izan zen, zehazki, eta Odol Emaileen Elkarteak adierazi du 27 pertsona joan zirela odola ematera eta, azkenean, 24k eman ahal izan zutela. Hala, odola eman zuten herritarrei eskerrak eman dizkiete, eta jarritako erraztasun eta laguntza ere eskertu dute.

Mozorro lehiaketan parte hartzeko izen-ematea, zabalik

Martxoaren lehen ospatuko dituzte Inauteriak, eta orduan egingo duten mozzorro lehiaketan parte hartzeko zabalik dago izen-ematea. Hilaren 28ra bitartean eman ahal da izena. Udal webgunean eskuragarri dagoen esku-orria kultura etxean entregatuta edo, bestela, egunean bertan. Talde mozzorrotuak eta originaltasuna sarituko dira.

Palestinari buruzko ikus-entzunezkoa eta solasaldia zapatuan

Gorbeialdeko Kuadrillak Palestinari buruzko zinema-zikloa antolatu du, eta, horren baitan, Aramaion *Soshana* ikus-entzunezkoa proiektatuko dute bihar, zapatua, kultura etxean, 18:00etan. Gainera, zinema-proiektzioaren ostean, Markel Elorza historialariak hitzaldia egingo du. Herritarrek hango errealitatea ezagutu ahaliko dute.

Gorbeialdeko mintzalagunen topaketa egingo dute

Zigoitian izango da, etzi, domeka, Gorbeialdeko mintzalagunen eta gurasolagunen topaketa. 10:00etan, mendi buelta egingo dute, Muruako errota baino lehenagoko aparkalekuan hasita, Madalenako baselizaraino. Eta 12:30ean, luntxa izango da Gopegiko txokoa. Horretarako, izena eman behar da aurrez, 650 26 67 44 zenbakian.



Astlehenean Euspot lehiaketaren aurkezpenen batutakoak, Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean. EUSPOT

Laguna izatea ardatz, spot onenaren bila

Euskarazko sormena sustatzeko Euspot-en hamalagarren edizioko parte-hartzaileek 30 segundoko iragarki bat egin beharko dute, formatu librean, 'Zer da laguna izatea?' gaiari erantzunez. Maiatzaren 26ra arte dago lanak aurkezteko epea

Imanol Beloki ARETXABALETA

Euspot euskarazko spot lehiaketaren hamalagarren edizioa aurkeztu dute asteon. "Harrobia landu, talentua erakarri eta publizitatea euskaraz sortzeko asmoz. Era berean, aurtengo helburu nagusia gazteak euskarazko publizitatera gerturatzea izango da, Euskal Herrian sortzen den publizitatearen oinarri izan dadin gure hizkuntza", adierazi dute antolatzaileek.

Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean egindako aurkezpenen izan ziren Aitor Aldasoro, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Garikoitz Iturbe, Aretxabaletako alkatea; Arantzazu Lagunilla, Arteman Komunikazioko zuzendaria; Mad-di Iregi, Bai Euskarari elkarte-ko aholkularia; Naiara Okina, Arizmendi ikastolako komunikazio-arduraduna; eta Xabi Igoa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko komunikazio arloko zuzendaria.

Euskaraz sortzeko premia

Aurkezpenen batutakoak hitzetan, ez da jakinikoa zein izan den azken urteotan euskarazko publizitateak izan duen bilakaera, baina susmoa dute "euskaraz sortu baino gehiago, jatorriz gaztelaniaz sortzen diren publizitate piezak euskarara itzultzen" direla: "Publizitateak jarrerak eta jokabideak aldatu behar ditu; eta, hori guztia, komunitatearen hizkuntzan. Horrenbestez, ezinbestekoa da euskal publizistek, agentziek eta arloko agenteek euskaraz sormena garatzeko gai izango diren profesionalak sustatzea, talentuan eragitea eta euskarazko sormena bultzatzea".

GAZTEEN ARTEAN ERRESPEUZKO HARREMANAK SUSTATzea DA HELBURUA

Gai bati erantzuteko asmoa

Aurten, *Zer da laguna izatea?* izango da gaia Euspot lehiaketan, eta "adiskidetasun harremanak" inspirazio iturri, antolatzaileen hitzetan. "Gaur-gaurko gaia" dela azpimarratu zuten, eta 30 segundoko iragarki bat sortzea izan behar dute helburu parte-hartzaileek, eta maiatzaren 26ra arte dute lanak aurkezteko epea; formatua, berriz, libre izango da, horizontalean edo bertikalean grabatu daiteke eta. Interesdunek euspot.eus/parte-hartu helbidearen bitartez eman dezakete izena.

Sariei dagokionez, lau izango dira nagusiak: spot onena, 1.000 euro; Publikoaren Saria, 500 euro; Gazte Saria, 18 urtez azpikoei zuzenduta, 500 euro; eta musika-sinkronizazio onena, 300 euro. Horrez gain, bi sari gehigarri banatuko dituzte: Mondragon Unibertsitateko ikasleek spotik onenak 500 euro eskuratuko ditu eta Arizmendiko ikasleek onenak, berriz, 250 euro.



NIRE USTEZ

MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA

Osasungintzako profesionalen lana

Azken urteetan sarri hitz egiten da osasun publikoaren higaduraren inguruan: kalitate eskasia, baldintza kaskarrak, baliabide falta, pribatizazioa... Jakina da osasun sistemaren eta bertako langileen egoera nahiko larria dela; hori dela eta, konplexuagoa da herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzea. Askotan entzuten ditugu: "Nahiago dut larrialdietara joan, familia-medikuarekin txanda hartzeko egunak itxaron behar ditut eta"; edota: "Larrialdietan hiru ordu igaro nuen zain...". Aipatutakoa errealitatearen parte da.

Kontua da gizakiok urduritasun uneetan txanponaren alde bakarra ikusteko joera dugula, aurrez aurre dugunari leporatuz gure frustrazioa. Eta, agian, gauzak ez daude aurrean ditugunaren esku. Testuingurua ulertzen dugunean, gutxiago sufritzen eta sufriarazten dugula uste dut. Gure eskubideak aldarrikatzearen alde nago, baina paradigma horretan esker onekoak izatea dagokigu. Norberari begira jarrita, Osakidetzako eta, bereziki, Txagorritxuko onkologia taldeko profesional guztien izugarritzko lana azpimarratu nahiko nuke.



MIRARI ALTUBE

Jai giroan murgildu dira kintoak

2006an jaiotako gazteen abestiak eta etxafuego hotsak entzun dira astean bazterretan. Martitzenean baserri-auzoetan jardun ostean kantu-eskean, eta eguaztenean kalerik kale, lehen dantza saioa egin zuten Herriko Plazan; 80 bat elkartu ziren horretarako. Aratusteetara bitartean domeka guztietan dantzatzeko dute jendaurrean, 19:00etan.

Gazteen ongizate emozionalaren diagnostikoa, gertu

Gazteen ongizate emozionalaren gaineko lanketa abiatu zuten Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek 2024ko ekainean, eta horrek emandako emaitzak aurkeztuko dituzte datorren astean. Aretxabaletan eguaztenean egingo dute bilera, hilaren 12an, Arkupeko bigarren solairuan, eta Eskoriatzan hurrengo egunean, hilaren 13an,

kultur etxean; biak 18:30ean izango dira.

Lanketa horretan, adikzioen fenomenoez gain, nerabeen aisialdia, harremanak, norberaren buruarekiko duten autopertzepzioa, elikadura-ohiturak eta beste hainbat aldagai aztertu dituzte. Horretarako, galdetegiak banatu zizkieten ikasleei eta herritarrei, eta 900 erantzun baino gehiago jaso zituzten, eta antolatutako foroetan 100 lagun inguruk hartu zuten parte, gazte zein heldu.

Dolua izango du hizpide Manex Beristainek

Manex Beristainek 'Azken galdera amari' ipuin musikatua aurkeztuko du udal liburutegian hilaren 19an. Bestetik, otsailaren 22an, 'Hitzekin jolasean' barreterapia saioa egingo du, Arkupen; bi hitzorduen gai nagusia dolua izango da

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabalekako Udalak antolatuta, Manex Beristain Agirre idazle azpeitiarrak bi saio egingo ditu: bata, Aretxabalekako udal liburutegian; eta bestea Arkupen.

Otsailaren 19an, 17:30ean, dolu prozesu baten ondorioa batzen duen *Azken galdera amari* liburuaren aurkezpen musikatua egingo du udal liburutegian. 5 urtetik aurrerako haurrentzat zuzendutako saioa izango da, eta heldu batek lagunduta joan behar dute haiek, haurrei zein helduei zuzendutako saioa baita. Heriotzaren eta doluaren inguruan kontzientzia sortzea




Manex Beristain. NOAUA

eta horiek lantzeko tresnak ematea du helburu ipuinak. Egilearen eta bere familiaren bizipen pertsonaletik sortutako lana da. "Maitasun-istorio gordin bezain samurra" dela dio egileak. Joan nahi duenak aurrez gonbidapena jaso dezake liburutegian. Izan ere, egunean bertan, gonbidapena dutenek lehentasuna izango dute. Gero, edukiera bete arte sartu ahalko dira gainerakoak.

Barreterapia saioa

Ipuin musikatuaz gain, otsailaren 22an, 10:30ean, Arkupen, *Hitzekin jolasean* barreterapia saioa egingo du Beristainek. Barrearen onurak bizitzarako ardatz izanda, halako saioa izango da: "Barreterapia hazkuntza pertsonalerako eta ongizaterako prozesua izanda, barrearen eta bizipenezko hainbat trebeziaren bidez, orekan, asebate eta bizitzarekin bat eginda sentitzeko bidea landuko dugu". 16 urtetik gorakoentzat zuzendutako saioa izango da, eta izen-ematea zabalik dago hilaren 1a ezkererako; plazak mugatuak izanda, interesa duenak liburutegira joan beharko du.



Argazkiei begira. MIRARI ALTUBE

Txino dantza, argazkien bidez

Ireki dute Txino dantzaren gaineko argazki-erakusketa, Arkupen, eta ikus-entzunezkoetan jasotako irudiak ere ikus daitezke. Domekan beteko dira 50 urte berreskuratu zenetik, eta Txino dantza, bere historia izeneko ekitaldia egingo dute, 13:00etan, udaletxe zaharrean, orduan dantzan egindakoak elkartuta. Sasoi hartako kontuak gogora ekartzea da asmoa.

Bihotzez ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA

haur eta lehen hezkuntza
(2-12 urte)

IZENA EMAN:
zuzendaritza@kurtzebarri.eus
943 89 91 46

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 3tik 14ra





"Zaila da Erdi Aroko pentsaera ulertaraztea"

IÑAKI URRETA LETURIONDO HISTORIALARIA

Artxiboko lanetan jarduten du, Erdi Aroko eta XVI. mendeko kontuak ikertzen, eta hark jasotako istorio bat argitaratu dute Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen aldizkarian

Mirari Altube ARETXABALETA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 80. zenbakidun aldizkarian argitaratu dute Iñaki Urreta Leturiondo (Eibar, 1958) historialari aretxabaletarrak jasotako lan bat: *Mendiolako abadearen hilketaren ankerra* (1557). 37 urtean irakasle izan ostean, 2018an erretiroa hartu zuen, eta artxiboetan murgilduta dihardu ordutik hona.

Zelan topatu zenuen Mendiolako abadearen kontakizuna?

Valladolideko artxiboan beste kontu batzuen bila nenbilela agertu zitzaidan. Sekulako testua da, prozesu osoa jasotzen delako, eta ordu mordoa behar izan nituen letra bera ulertzeko, eskuz idatzita dagoelako, *letra prozesal* delakoarekin.

Hilketa baten berri jasotzen da.

Bi emakume Mendiolako abadea hilda aurkitu zuten Landetako zubiaren azpian, eta hura argitzeko abiatutako prozesua kontatzen da, osorik. Arkarazoko Pedro Azkarretazabal eta Maria Garcia Zuazo senar-emazteak akusatu zituzten, eta, haiei irekitako prozesu penalaren deskribapen zehatzari esker, XVI. mendeko justiziaren funtzionamendua ezagutu genezake. Sumarioari Aretxabaletan ekin zitoten; hau da, alkateak lekukoie



Urreta, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 80. zenbakiarekin. M. ALTUBE

bertan hartu zien testigantza, baina errekurtsua aurkeztu, eta Valladolidera pasatu zuten gero. Hango epaileak Gipuzkoako korrejidoreari agindu zion ikertzeko, eta hark bere ordezkoa bidali zuen.

Eta zelako prozesua izan zen?

Lekukoek ez zuten inolako sinesgarritasunik, testigantza faltsuak ere egongo ziren, eta prozesuak, gaur egungo ikuspegitik, ez zuen inolako bermerik izan. Abadea hiltzea sekulako krimena zen, eta akusatuak hasiera-hasieratik zeuden konde-

natuta. Baina prozesu baten gako garrantzitsuena aitortza zen, eta hori falta zitzaien. Horregatik, torturara jo zuten; ez egia jakiteko, aitortza lortzeko baizik. Torturak zehaztuta egoten ziren: zaldikoa edo potroa erabilia, biluzik, tornuari zenbat buelta eman... Borrero bat egoten zen horretarako, eta haren alboan epailea esandakoa idazten. Legeak ezarritako protokoloa bete zuten orduan ere; izan ere, mendekuzko justizia zegoen Europan, eta errugabatasun-presuntziorik ez zegoen.

Orduan ere, emakumeak gaiztoak?

Bai, halaxe da; testuan agertzen diren emakume gehienek dute akatsen bat: berritsuak eta gezurtiak dira (*parleras*), abadearekin oheratzen dira... Akusatu-tako senar-emazteen kasuan, esanguratsua da lehenik emakumea hautatu izana torturatzeko; zauri sakonak eragin zizkioten eta besamotz geratu zen.

Abade hura ez zen edonolako...

Erdi Aroan edonor izan zitekeen abade: latinez hitz batzuk esan, eta kito. Emakume artean ibiltzea oso ohikoa zen, seme-alabak izatea, emagalduekin oheratzea... Trentoko kontzilioarekin, hori moztu gura izan zuten, baina kosta egin zen.

Beste istorioren bat baduzu esku artean gaur egun?

Arratabe familiarekin nabil. Baita Eskoriatzako eskribauaren gainean ikertzen ere, botere handia izaten zuten-eta eskribauek. Inkisizioari ere heldu diot, eta forma ematen ari naitzaio testuari, edonorentzat interesgarria izan dadin. Nafarroako inkisidore nagusia Arratabekoa zen, eta otaloratar bat Inkisizioaren Batzordean egon zen. Gurean ere jarri ziren kartelak elizan bi pertsona akusatzuz, eta egon ziren zelatariak, salatariak...

Ez duzu pentsatu sekula eleberriren bat idaztea?

Gaiak eta istorioak asko daude, baina denbora behar da. Erdi Aroko kontuak kontatzea ez da zaila, baina orduko pentsaera ulertaraztea bai. Eta jakin behar dugu espazioek ere ez dutela zerikusirik oraingoekin; orduan oso gutxi mugitzen ziren bizilekutik. Era berean, garrantzitsua da ordukoen berri ematea, jakin dezagun oraingo kontuak ez direla beti horrela izan; jakin dezagun nondik gatozen.

'Mendiolako abadearen hilketaren ankerra'

1557ko apirilaren 6ko goizean, Eskoriatzatik Mondragoera ogia saltzera zihoazen bi emakume ohartu ziren gizon baten gorpua ahuspez etzanda zegoela Landeta zubiaren azpian. Leintz Bailarako alkate Martin Saez Galarza jaunari abisua eman ondoren, hilotza Juan Abad Ibarrundiarena zela egiaztatu zen. Juan Abad Ibarrundia Mendiolako San Juan parrokiako "meza-apaiza" zen. Alkateak ondo ezagutuko zuen abadea, hura baitzen parrokiaren haren patroia. Gorpua aurpegia odolatan zuten, eta haren ondoan ezpata bat aurkitu zuten. Alkatearen iritziz, ezpata Arkarazoko elizateko Azkarretazabal auzunean bizi zen Pedro

Azkarretazabalarena zen.

Azkarretazabalek krimenarekin harreman estua zuela sinetsita, Martin Saez Galarzak, Leintz Baikarako alkate eta, aldi berean, epaile zen aldetik, ofizioz jardunez, fiskal bat izendatu zuen, Juan Marzana. Hark Juan Abad Ibarrundiaren heriotza kriminalki leporatu zien Pedro Azkarretazabal jaunari eta haren emazte Maria Garcia Zuazo andreari.



Kontakizuna irakurtzeko, eskaneatu QR kode hori.

**INPLANTOLOGIAN ESPERIENTZIA
HANDIKO AHOLKU-EMAILEAK GARA
3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Jamaikako dantzarekin gorputza astintzeko deia

'Dancehall' tailerra egingo du Matilde Aizpurua aretxabaletarrak bihar, zapatua, kuartelean, Jaiki elkarteak gonbidatuta; Jamaikan sortua 80ko hamarkadan, reggae kultura du oinarri, baina unearren eta sortzaileen arabera eraldatuz doan dantza da

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Dancehall dantza ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak, hirugarrenez. Oraingoan ere Matilde Aizpurua Oliden (Aretxabaleta, 1998) izango dute gidari, eta oinarriko tailerra izango dela iragarri du, "ondo pasatzeko saioa", dantzak lagun eginda.

Jamaikarren kaleko erritmoa

Dantza urbanoa da *dancehall*-a, baina hori baino gehiago ere bada, Aizpuruaren esanetan: "Kultura bat da, 80ko hamarkadan Jamaikan sortutakoa, musika, festa, dantza eta bizimodu propioekin. Baina bizirik dago eta aldatuz doa, bertako gizartearen



Matilde Aizpurua, dantzan. M.A.

eraldaketekin batera. Reggae kulturaren eboluzio bat da, historia zabal baten parte". Mugimenduari erreparatuta denboran zehar mantentzen den gorputza erabiltzeko modu jakin bat dela dio: "Badu esentzia, baina haren ezaugarriak ez dira mugiezinak eta unearren eta sortzaileen arabera asko aldatzen da".

"Edonork" dantzatzeko moduko estiloa da: "Kaleko jaietatik sortutakoa da eta jamaikarrek gozatzeko eta adierazteko erabiltzen dute, jaietan zein eguneroan. Hortaz, edonorendako dantza da. Beste kontu bat da, Jamaikatik kanpo, kultura hartan hazi ez garenok ikasteko

ditugun zailtasunak, horrela mugitzera ohituta ez gaudenez gure gorputzak hasieran ez duelako ulertzen".

Aizpuruak gustuko du dantzatzea, eta umetan hasi zen estilo askotariko eskolak jasotzen: "Madrilen iritsi nintzen *dancehall*-era. Ondoren, irakasle jamaikarrek antolatutako tailer eta ekitaldietara joan izan naiz, hobeto ikasteko beharrezkoa delako". Gozamenaz eta adierazpen libreaz erabat lotuta dagoela uste du: "Sortzen den talde-energia eta komunitate-sentsazioa oso gustuko dut". Eta esanahi handikoa dela gaineratu du: "Dantzari eta sortzaile jamaikar emakumeek euren dantzaren bitartez helarazten duten indarrak asko inspiratzen nau".

Harrera polita

Pozik dago aurreko tailerrek izandako harrerarekin, hamar-hamabi lagun elkartu izan dira eta. Probatu gura dutenek bihar, zapatua, dute aukera; kuartelean izango da, 11:00etatik 13:00etara. Izena aldeztatik eman behar da -606 89 81 72-, eta zortzi euro ordaindu.

Odola emateko dei egin diete aretxabaletarrei

Datozen bi eguenetan Arabako Odol Bankuko autobusa egongo da Durana kalean; otsailaren 13an eta 20an, hain zuzen ere. 16:45etik 20:00etara bitartean joan ahal izango dira herritarrek odola ematera. Horretarako ez da aparteko baldintzarik bete behar: 18 eta 65 urte bitartean izan, 50 kilotik gora pisatu eta osasuntsu egon.

'Zapalduon pedagogia' liburua aurkeztuko dute gaur

Ane Ablanedo Larrionek idatzitako *Zapalduon pedagogia edo nola libre hazi, hezi, bizi* liburua aurkeztuko dute gaur, egubakoitzan, Arkupen, 19:00etan. Heziketa eta pedagogia arloetan aholkularia da Ablanedo, eta guraso, hezitzaile eta irakasleentzako ikastaroak ematen ditu. Liburuan jaso ditu askatasunari, politikari eta herriari buruzko gogoetak.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

Etorri eta ezagutu!

Izen emate epea: otsailaren 3tik 14ra
Hitzordua hartzeko, deitu.

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria
zeuena
geuria





Xabier Badiola Bastida, Eskoriatzako Teleskoko materiala digitalizatzeko gertu, udal artxiboan. IMANOL BELOKI UNAMUNO

"Altxor ugari aurkitu ditugu digitalizazio-prozesuan"

XABIER BADIOLA BASTIDA ESKORIATZAKO UDALEKO LANGILEA

Telesko udal telebistak 1985 eta 2012. urte bitartean egindako grabaketa guztiak digitalizatzen ari dira, etorkizun hurbilean materiala herritarren eskura jartzeko

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Xabier Badiola Bastida (2000, Eibar) Eskoriatzako udal artxibo digitalizatzeko lanetan ari da azaroa ezker. Ikus-entzuzko gradua ikasi zuen 2018tik 2022ra bitartean, Aretxabaleta-ko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Huhezin, eta, kazetaritza-lanak egiteaz batera, musika-ekoizpenean eta kontserbazioan aritutakoa da lanean. Hala, Eskoriatzako Udalak kontratatu du, 1985etik 2012ra bitartean Teleskorako -80ko

hamarkadaren erdialdean sortu zen herri telebista-kate publiko- grabatutako irudi, erreportaje eta bestelakoak aztertu eta zintetatik digitalera pasatzeko. Eskoriatzako Udalaren asmoa da bertan dagoen material guz-

"1987AN MIKEL LABOAK EMANDAKO KONTZERTU OSOA DAGO IRUDIETAN JASOTA"

tia era digitalean jasotzea eta katalogatzea, gero herritarren eskura jartzeko. Mimos ari da Badiola lan horretan.

Zergatik ari zara Telesko herri telebistak duen ikus-entzuzko materiala digitalizatzen?

Eskoriatzako Udalak egindako lan-kontratu baten bidez ari naiz lan honetan. Azaroan hasi nintzen, eta urtebeteko lan luzea aurreikusten da. Lehenbizi, ikerketa- eta garapen-lana egin behar izan nuen zenbait egunetan, eta, ondoren, udal artxiboan



Teleskoren lehenengo erreportajearen, kultura etxeko eraikina. TELESKO

Digitalizatutakoa, katalogatuta

Teleskoren udal artxiboan herritarren artean nostalgia piztu dezakeen materiala dagoela dio Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak: "Ezin dut zerbait konkretua aukeratu, baina sekulako altxorrak daude. Gure artean ez dauden pertsonen elkarriketa ugari, San Pedro jaiak, kontzertuak, danborradak, txirindularien martxak... Urte haietan Eskoriatzan gertatu zen ia dena dago artxibo horietan".

Unzuetak gaineratu duenez, bost minutuko bideo motzak hasiko dira udal webguneko plataforma batera igotzen. "San Pedro jaietarako, 150 bideo inguru herritarren eskura jartzea da asmoa. Horrekin batera, urtebetean ia guztia egongo da digitalizatuta; hori nahi genuke. Hala ere, pazientzia eskatu nahi diegu herritarrei".

dagoen materiala ordenatzen eta digitalizatzen hasi nintzen. **Zein zailtasun daude digitalizazio-prozesu horretan?**

Teleskoren biltegian askotariko formatuak daude, eta horrek zaildu egiten du pixka bat digitalizazio-prozesua. 1988ko lehenengo erreportajetik hasita, VHS, Super VHS eta DVDak ditugu. Bakoitzak bere misterioa du; ekipo aldetik, erreproduzitaile aldetik, eta digitalizatzeko-programekin. Zulo beltz bihurtu daiteke kasu batzuetan. Hala ere, gustuko lana da, eta herriko bitxikeriak ezagutzen ari naiz.

Zenbat zinta daude Teleskon? Zenbat ordu izango dira?

Guztira, 1985etik 1997ra arte bitarteko 660 zinta inguru daude, eta, orduetik aurrera, DVDak daude. Zinta bakoitzak bi ordu eta erdi irauten du; eta DVDak ere beste hainbeste daude, 700 inguru. Horiek aztertzerakoan,

"FORMATU ASKOTARIKO ZINTAK IZATEAK ZAILDU EGITEN DU PROZESU OSOA"

bereziki zintetan, aukeraketa egin behar da, denbora errealean pasa behar direlako irudiak digitalera. DVDen kasuan, berriz, 2002a ezker dagoen guzti-guztia egongo da bilduta, eta zinten kasuan, ea guztia egitera iristen garen. Helburua ahalik eta gehien digitalizatzea da.

Harribitxirik topatu duzu digitalizazio-prozesuan?

Kintoen eta Santa Ageda neska-mutilen dantzak, museoaren inaugurazioa, Mikel Laboak frontoian emandako kontzertu oso bat, Eskoria-tza musika taldearen kontzertu bateko hiruzpalau kantu, 2003an Korrika herrigunetik pasa zen unea, 1986ko Club Zikloturista taldearen aurkezpena, rallyak... Altxor ugari aurkitu ditugu digitalizazio-prozesuan. Eibartarra izan arren, ari naiz herriaz eta herriko ekintzez gehiago ikasten. **Batutako material guztiarekin zer egingo da?**

Eduki guztia digitalizatutakoan, herritarren eskura jarri nahiko dugu udal webgunean, bideo labor batzuk eginda, *high light* moduko batzuk. Digitalizazio-lanaz gain, material guztia katalogatu egingo dugu.



2023an egindako Kinttaden Egunean, Manuel Muñoz kiroldegian bederatzi kintada batu ziren. IMANOL SORIANO

Hamalagarren urtez Kinttaden Eguna

Eskoriatzarrek zapatuan ospatuko dute Santa Ageda neska-mutilei festa giroa areagotzeko aitzakian sortutako Kinttaden Eguna. Kiroldegiko herri bazkariak gain, elkarte gastronomikoetan, jatetxeetan eta tabernetan ere izango dira bazkariak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Zapatuan ospatuko da Kinttaden Eguna Eskoriatzan, eta urte berean jaiotako eskoriatzarrek elkartzeko aitzakia izango dute, beste urte batez. 18 urte beteta edo betetzear zeduen herritarrei, hau da, Santa Ageda neska-mutilei, parranda egun batean bidelagun izateko eta herriko giroa indartzeko asmoz sortua, mantendu egin da festa eguna denboraren poderioz, eta Kinttaden Eguna ondo errotuta dago herrian gaur egun. Hamalagarren edizioa izango da aurten, eta herritarren festa gustukoenetako bat da, duda barik; herritik sortuta, herriarentzat egindakoa.

Bazkaria, kalejira eta DJak
Zapatu eguerdian poteoa egin, eta kintada bakoitza bere adinekoekin bazkaltzera joango da. Horieta asko, azken hiru urteetan moduan, Itzartu Gazte Asanbladak Manuel Muñoz kiroldegian antolatutako herri bazkarira joango dira, 15:00etan. Adin askotariko 400 lagun inguru batuko dira bertan bazkaltzeko, eta, bapo jan ostean, 17:30ean, Elgoibarko Patxangoi elektrotxararak lagunduta, kalejiran Fernando Eskoriatza plaza aldeira joango dira herritarrek, kiroldegitik hasita; 22:00etan, berriz, DJ Txola Ta Potxola arituko dira Fernando Eskoriatza plaza musikaz girotzen.

Prestaketa, auzolanean
Otsailaren 8an Manuel Muñozen egingo den herri bazkariko prestaketa eta jasotzea auzolanean egingo dute. Hala, 11:00etarako, kintada bakoitzeko arduradun batzuek mahaiak eta aulkiak jartzera joan beharko dute kiroldegira, azken hiru edizioetan egin moduan.
Itzartu Gazte Asanbladako antolatzaileen arabera, kintadako hamar pertsonatik bakarra badoa nahikoa izango da: "Hogei lagun baldin bazarete kintadetan, bi lagunek joan beharko dute; 26 pertsona izanda, berriz, hiru pertsona bezala kontaktuko da... Kintada bakoitzak adostu ditza arduradunak".

Hankak gora ondo altxatuta

Eguaztenean Santa Ageda eguna izanda, 2007an jaiotako eskoriatzarrek dantza egin zuten Fernando Eskoriatza plazan, txistulariek lagunduta, usadioari jarraituz. Banakoa, aurrekuia, fandangoa eta arin-arina dantzatu zituzten, herritarren txalo artean. Domekan, 19:00etan, berriz egingo dituzte dantzak, Fernando Eskoriatza plazan.



AITOR GABIRONDO

Buruarinak egiteko tailerra antolatu dute hilaren 15erako

Eskoriatzako Udalak familiei zuzendutako tailer bat egingo du otsailaren 15ean. Tailer horretan, haur bakoitzak bere buruarina egingo du. Buruarinen gaia *Munstroak* izango da. Gorka Olazabal dinamizatzaileak emandako materialekin sorkuntza librean jardungo dute haurrek. Tailerraren prezioa 5 eurokoa da haur bakoitzeko.



Gatz Museo ingurua atontzeko egin zuten auzolana, iaz. I.B.

Herri batzarra antolatu du Udalak, eta auzolanerako dei egin

Otsailaren 14an herri batzarra egingo dute eta hilaren 22rako, berriz, auzolana kanposantu inguruan

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA
Auzolanera eta herri bilerara deitu ditu herritarrek Gatzagako Udalak. Herri batzar proposamena otsailaren 14rako egin dute, egubakoitza, 18:30ean, eta auzolana, berriz, otsailaren 22an egingo dute.

Herritarrekin elkarbanatzeko

Herritarren parte-hartzearen garrantzia azpimarratzeko, udal jardueraren eta herriko proiektuen berri emateko eta, bide batez, ekarpenak jasotzeko izango da herri batzarra. Erabilera askotariko espazioan egingo dute batzarra, ludotekan, eta parte hartzera deitu ditu herritarrek Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Gatzagako alkateak: "Herria aurrera eramateko, herritarren ekarpenak ezinbestekoak dira. Beraz, gatzagarren iritziak jasotzeko eta Udalak esku artean dituenen berri emateko batuko

gara. Oraingoan, autokritika egin beharrean gaude; izan ere, udal jardunean sartu eta dena bideratzen aritu gara denbora batez, aurreikusitako gehiago, agian, baina badugu norabidea markatuta, eta, agintaldiaren hasieran esan moduan, gure helburua Gatzaga bizirik mantentzea da. Lanketa bat egingo genuela esan genuen, eta iritsi da herritarrekin batzeko unea".

Auzolana, ezinbestekoa

Auzolanera dei egiteko kartelak egunotan jarri dituzte herriko hainbat txokotan. Sarri egin ohi da Gatzagan auzolana: museo ingurua txukuntzeko, bide-bazterrak garbitzeko, sastrakak kentzeko, zuhaixkak eta zuhaitz batzuk botatzeko... Oraingoan ere, ildo beretik egingo dute; hain zuzen ere, kanposantuko bidean egingo dituzte txukuntze-lanak.

Aratusteetarako gai proposamenak egin daitezke Labidean

Labidea denda-tabernako arbolea *brainstorming* prozesua abiatu dute gatzagarrek Aratusteetako mozorroa aukeratzeko. Azken urteetan ere modu berean egin dute, eta bertan apuntatutako proposamenen artean gai konkretu bat aukeratu eta taldean mozorrotuko dira.

Gai jakin bat aukeratu bitartean, Leintz Gatzagako Udala

egitaraua osatzen ari da Aratusteetarako. Herri-bazkariak ez du hutsik egingo, eta, bestelako ekintzak ere izango dira. Hala ere, oraingoan, herritarrei Labideara joan eta euren proposamenak egiteko eskatu die, herritar talde handi bat eta, posible bada, Aratusteetara animatzen diren pertsona guttiak gai bera ardatz duen mozorroarekin irten daitezten. Oraingoan, *Herriko edo hirietako tribuak* eta *90eko hamarkada* proposatu dituzte.

Lanak amaituta, pilotalekua erabilgarri

Frontoiko estalkia guztiz berritzeaz gain, margotze-lanak ere egin dituzte. Eguraldiak baldintzatuta, lau hilabetean egin ditu konponketak Goitu Eraikuntza SL enpresak, eta aurrekontua 356.954 eurokoa izan da. Lehen pilota partiduak gaur jokatu dira

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Lau hilabeteren ostean, amaitu dituzte Bergarako Udal Pilotalekua berritze lanak. Urriaren 7an hasi zituzten lanak, eta estalkia guztiz berri dute. Horrenbestez, isolamendu termikoa eta akustikoa hobetu egin dituzte. Aurreikuspena abenduan zehar amaitzea bazen ere, epeak ezin izan dituzte bete, eguraldiak baldintzatu egin dituelako lanak, Bergarako Udaleko kirol zinegotzi Olatz Manuelek adierazi duenez: "Teilatua da konpondu duguna, eta euri askoko egunetan ezin izan dira lan batzuk egin".

Azaldu du lanak atzeratzeak ahalbidetu duela frontoia margotzea, margotze-lana ez baitzegoen aurreikusita. Alabaina, Kirol zinegotziak aurreratu du baloratu zutela hormaren saneamendua egitea hasiera batean, baina, aurreikuspen ekonomikoak tarteko, "aurreragoko lanetarako" utziko dutela.

Halaber, emaitzarekin gustura dago Olatz Manuel, baina aurreratu du obrak amaitu direnean ikusi dutela lurrak kolorea galdu duela, eta, horrenbestez, "garbiketa sakona" egingo dutela datozen egunetan: "Lurrari hasierako itxura ematen ahaleginduko gara".

Egindako berrikuntzak

Pilotalekuaren iragazgaizte eta isolamendu arazoak konpontzeko egin dituzte lanak. Horretarako, egiturak indartu eta estalki-plakak berri egin dituzte, pilotalekuan egiten diren ekintzak "baldintza duinagoetan" egiteko.

Goitu Eraikuntza SL arduratu da obrak. Frontoiaren berritzeak 356.954 euroko kostua izan du, eta Udalak adierazi du Gipuzkoako Foru Aldunditik 135.380 euroko dirulaguntza jaso dutela.

Ohiko erabilera

Pilota partiduez gain, besteak beste, Bergarako Musika Ban-



Bergarako frontoia eguazten arratsaldean, lanak amaituta. I.A.A.

FRONTOIA ERABILTZEKO GOGOZ DAUDE BERGARAKO PILOTA SAILA ETA MUSIKA BANDA

daren hileroko kontzertuetarako eta Gabonetako jolas parkea jartzeko erabili izan da. Oraingoz, ohiko erabilera izango dela nagusi aurreratu du Manuelek. Bergarako pilotalekua euskal pilotaren historian garrantzia izan duen frontoia izan da, eta, iaz egin bezala, euskal pilotarekin lotutako jarduerak bultzatzen saiatuko direla iragarri du Kirol zinegotziak. "Iaz, ahalegina egin genuen erremontea eta emakumeen zein gizonezkoen eskupilotako partidu profesionalak ekartzeko. Aurten ere saiakera egingo dugu, eta baloratuko dugu", dio.

Frontoian jokatzeko irrikaz

Poztasun handiarekin hartu du frontoiaren irekiera Bergarako pilota sailak, eta irrikaz daude egubakoitzean, lau hilabeteren ostean, Bergaran jokatzeko: "Az-

kenean, lau hilabete eman dituzte gure pilotariak Antzuolan eta Angiozarren entrenatzen. Horrek dakarren guztiarekin entrenatzailendako, familierendako... Partiduak Antzuolan jokatu ditugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu Antzuolako Udalari eta hango pilota eskolari, primeran portatu direlako".

Akustikoa probatzeko gogoz

Bergarako Musika Bandak, berriz, Aratusteetako kontzertu bereziarekin zapalduko du pilotalekua, hilaren 28an, 22:00etan. "Oso pozik" hartu dute itzulera, bandako zuzendari Enrike Txurrukaren esanetan, erabili ezin izan duten denboran "asko igarri" dutelako faltan, bertan ezin jotzeaz gain, horrek sortu duen "mugimendu estra" guztien kudeaketatik.

Orain, datozen kontzertuetara begira, ikusmina daukate ea teilatuen berritzeak akustikari nola eragin dion probatzeko. "Aspaldiko eskaera da frontoiaren egokitzapen akustikoarena, bertan egin diren kultur ekitaldiez egoki gozatzeko. Hori frogatzeko aukera ona izango da hurrengo kontzertua".

Ongietorria egingo die Udalak iaz Bergarara bizitzera etorri zirenei

Hirugarrenez egingo da, eta aurten, otsailaren 15ean izango da ekitaldia; 250 etxetan jaso dute gonbidapena

I.A.A. BERGARA

2024an Bergarara bizitzera etorri zirenei ongietorri ekitaldia egingo die Udalak, hilaren 15ean, eguerdiko hamabietan, udaletxe osoko bilkuren aretoan. Udalak adierazi du 250 etxetara bidali dituztela gonbidapenak, eta, guztira, 30 nazionalitate baino gehiagoko pertsonak direla.

2023an jarri zuen ekimena martxan Udalak, eta nabarmendu du inoiz baino jatorri eta kultur aniztasun handiagoa dagoela herrian, eta aniztasuna

kudeatzea dela Bergaran dagoen erronka nagusienetakoa. Etorri berriei harrera egiteaz gain, komunitateko eragileak ezagutzeko aukera izango dute. Horregatik, horren ostean, elkarrekin hitz egin eta harremanak sortzeko tartea egongo da.

Hala, ekitaldira bertaratzeko asmoa duten herritarrei izena emateko dei egin diete otsailaren 14a baino lehen, Udalarekin harremanetan jarrita: 943 77 91 00 telefono-zenbakira deituta edo harrera@bergara.eus helbide elektronikora idatzita.

Bergarako Adinekoen Kontseilua egingo dute otsailaren 13an

Hirugarren batzarra izango da, eta bakardadearen eta etxebizitzaren gaiak landuko dituzte, besteak beste

I.A.A. BERGARA

Bergarako Adineko Pertsonen III. Kongresua egingo dute udaletxe osoko bilkuren aretoan otsailaren 13an, 17:30etik 19:00etara bitartean. Landuko diren gaien artean daude bakardadea, etxebizitza, informazioa helarazteko buletin baten beharra eta ekintza bateratuak: Belaualdi Arteko Nazioarteko Eguna apirilaren 29an eta Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna urriaren 1ean. Gainera, zenbait puntu taldeetan bilduta jorratuko dituzte. Gai horiek lantzeaz

gain, orain arte egindako lana aurkeztuko dute.

Hala, Bergarako Udalak nabarmendu du Adineko Pertsonen Kontseiluak bere ibilbidean zehar hainbat ekimen sustatu dituela herrian. Era berean, Udalak parte hartzeko gonbidapena egin du: "Beste belaualdi batzuek egin duten bezala, garrantzitsua da adineko pertsonen ere euren topaleku bat martxan jartzea; izan ere, bizitza osoan jasotako esperientziak bergarar guztiontzako oso aberasgarriak izan daitezke".

OHARRAK

Torradak eta pellak egiteko ikastaroa

Otsailaren 25ean emango du Gorka Lobato sukaldariak ikastaroa, Gure Ametsa elkartearen. Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete, hilaren 19ra arte, www.bergara.eus atarian.

Odol-ematea

Odol-ateratzea egingo dute otsailaren 12an San Joxepen. Hitzordua hartzeko: gotatanta.eus edo 943 00 78 84.

Hezitzaileen lan-poltsa

Jardunek aisialdian sortu daitezkeen ordezkapenak egiteko hezitzaileen lan-poltsa zabaldu du. Curriculumak bidaltzeko: gaztejardun@topagunea.eus.



Kepa Diaz, Lucio Polcaro eta Kepa Sebal, Bergarako UNEDeko Alkar Lankidetzaren Gunean. NSS

'SyntaX' programaren aurkezpena Seminarixoan

Kepa Sebal bergararra kide den New Stage Solutions 'start-up'-ak sortu du softwarea, eta Bergarako eta Debagoieneko enpresen aurrean aurkeztuko dute, otsailaren 13an, 18:30ean; 30 enpresak eman dute izena, baina izen-ematea zabalik dago

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Bergarako New Stage Solutions (NSS) *start-up*-ak industria-enpresendako garatu duen *SyntaX* softwarea aurkeztuko du otsailaren 13an, 18:30ean hasita, Seminarixoan. NSSren *SyntaX* programak, batez ere, kalitate, segurtasun eta osasun nahiz ingurumen departamentuen prozesuak erraztea du helburu, ISO estandarretan oinarrituta. "ISO estandarrek dira mundu mailan aplikatzen diren estandar batzuk, eta industria enpresa gehienek aplikatu behar dituzte euren produktuak sortzeko. Araudiak dauzkate eta neurketak batzuk egin behar dituzte. Lan hori erraztu egiten du *SyntaX* softwareak, enpresei denbora eta dirua aurreztuta", zehaztu du NSSko zuzendari nagusi Kepa Sebal bergararrak.

Inbertitzaile bila dabil NSS, eta, horregatik, egueneko aurkezpenean sektorearen joerak azalduko dituzte, baita enpresaren ibilbidea zein izan den eta

zein helburu dituzten ere: "Finantzaketa mailan zenbat diru behar dugun, zertarako erabiliko dugun, gure balioak zeintzuk diren eta zergatik inbertitu beharko luketen azalduko diegu enpresei". Sebalek adierazi du Bergarako eta Debagoieneko 30 enpresak eman dutela izena, baina oraindik izen-ematea zabalik dago (labur.eus/xJeKw). Gainera, parte hartzen dutenek bi orduko prestakuntza eta eskuliburua jasoko dute.

Aholkularitza zerbitzua hasieran Kepa Sebalekin batera Kepa Diaz bilbotarrak eta Lucio Polcaro argentinarrek Bergaran jarri zuten martxan NSS, UNEDeko Alkar Lankidetzaren Gunean, 2023ko

SEKTOREKO JOERAK ETA ENPRESAREN IBILBIDE ETA HELBURUAK AZALDUKO DITUZTE

abuztuan –Miguel Altunarekin hitzarmena sinatu dute eta hara lekualdatuko dira martxoan–. Hasiere batean, aholkularitza zerbitzua eskaintzen zuen enpresa izatea zuten helburu, baina 2024ko urtarrilean aldaketa egitea erabaki zuten. "Aholkularitza ikusten genuena zen hiru gazte ginela eta gure profilarekin ez ginela urrun iritsiko bide horretatik. Orduan, erabaki genuen ISO araudiaren merkatu-nitxo horretatik irten gabe produktura pasatzea", dio Sebalek. Orduan hasi ziren *SyntaX*-ekin lanean, eta BIC Gipuzkoan sartu ziren, eta finantzaketa "garrantzitsua" lortu zuten. "Azeleradore bezala funtzionatzen dute *start-up*-entzat", adierazi du Sebalek.

Inbertsio bila dabilta; 400.000 euro mailegu bidez eskatuko badituzte ere, 200.000 euroko finantzaketa lortzea da helburua, operazio-ahalmena handitzeko eta produktua garatzeko, adimen artifiziala, zibersegurtasuna eta *Internet Of Things* txertatuta.



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Kantuan Santa Ageda bezperan

Santa Ageda bezperan kalera irten ziren herriko hainbat talde koplak abestera. Goizean San Joxepe elkarteko korua ibili zen eta arratsaldean, berriz, Alaiberri taldea. Jardun Euskara Elkarteak eta Bergarako Musika Eskolak antolatuta, kantuan ibili ziren iluntzean herritarrak, eta, hain zuzen ere, irudian une hori ikusten da.

Hirukideren bulego ibiltaria Bergaran izango da martitzenean

Udal Liburutegian emango dute familia ugariak dituzten abantaila eta onurei buruzko informazioa

I.A.A. BERGARA

Euskadiko Kide Ugariako Familien Federazioaren (Hirukide) bulegoa Bergaran izango da otsailaren 11n, Udal Liburutegian, 09:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara. Bergarako eta bailarako herritarrei dauden abantailen eta onuren berri emango diete; besteak beste, hauen gaineko informazioa emango dute: kide ugariako familien eskubideak; laguntzak, hobariak eta baimenak; kolektiboaren inguruko azken aldaketak eta berrikuntzak; herri-

ko akordio berriak eta udalerriko eta inguruko azken abantaila pribatuak.

Ez da beharrezkoa izena ematea, baina adierazi dute webgune bidez hitzordua hartuz gero lehentasuna izango dutela arreta zuzena eta pertsonala jasotzeko orduan: www.labur.eus/D9q7Q.

Horren harira, zalantzarik edo iradokizunik izanez gero, hirukide@hirukide.com helbide elektronikoa idatzi edo 945 25 36 02 / 688 72 89 31 telefono-zenbakietara dei egin daiteke.

Adimen artifizialari buruzko solasaldia otsailaren 14an

Otsailaren 16an itxiko ditu ateaq Laboratorium Museoan dagoen *The Black Box* erakusketak, eta itxiera-ekitaldia antolatu dute otsailaren 14rako. Mahai-ingurua egingo dute, 10:00etan, *The Black Box* proiektuko sortzaile Javier Tejadak eta Norbert Bilbenyk, Teknikerreko Kerman Lopez de la Callek eta Tecnaliako Jesus Lopez Lobok. Biologian doktore

eta Jakiundeko kide Nora Alonsok moderatuko du. Adimen artifizialaren gaineko galderak eta horri buruzko zalantzak izango dituzte hizpide, eta berbaldia gaztelaniaz izango da. Laboratoriumen 10. urteurrenaren eta ZTB jardunaldien egitarauaren baitan kokatu dute ekitaldia.

Halaber, domekarako, otsailak 9, *The Black Box* erakusketa ikusteko adin guztiei zuzendutako emanaldi berezia antolatu dute. 11:30ean hasiko da eta sarrerak bost euro balio du.



Ariznoako gimnastak, iaz, Labegaraietan Gipuzkoako Amateur Txapelketan. IMANOL SORIANO

Bihar, zapatua, hasiko du denboraldia Ariznoak

Labegaraietan jokatu da gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Amateur Txapelketaren lehen fasea, eta Gipuzkoako hemezortzi klubetako gimnastek hartuko dute parte; bailaratik, Bergarako Ariznoa eta Arrasate Dragoi taldeko gimnastak lehiatuko dira

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Bihar jokatu da gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Amateur Txapelketaren lehen fasea, Labegaraieta kiroldegian, eta jardunaldi horrekin emango diote hasiera denboraldiari. Saioak 10:00etatik 14:30era izango dira; eta, bazkaltzeko etenera ostean, 16:00etatik 20:00etara. Hemezortzi klubetako kadete, gazte eta senior kategorietako gimnastek hartuko dute parte, A, B eta C mailetan banatuta, eta Debagoienetik Bergarako Ariznoa eta Arrasate Dragoi taldekoak arituko dira; bergararren kasuan, hamazazpi kirolari izango dira eta A eta B mailetan lehiatuko dira.

Taldekoarekin hasiko da jardunaldia, kadeteen erakustaldiarekin, C mailatik A mailara, eta, ondoren, ordena berbera mantenduko dute, bakarkakoekin. Ostean, master eta plus kategorietakoen txanda izango da, bakarka. Arratsaldean, gazteen taldeak izango dira lehenengo,

eta bigarrenak, seniorrak. Arratsaldearen azken zatian, gazte mailakoek eta senior mailakoek zapalduko dute tapiza, bakarka.

Ariznoako hamazazpi gimnasta
Taldea zein bakarka azken asteetan landutakoa epaileen eta ikusleen aurrean erakutsiko dute Ariznoako gimnastek, hiru taldetan –bi kadete mailakoak eta bat senior mailakoa–, eta bakarka senior A mailako Itziar Alberdik.

Ainize Lizarralde eta Irati Gardoki dira Ariznoa taldeko entrenatzaileak, eta adierazi dute zapatuko helburua dela gimnastek txapelketekin urteko lehenengo kontaktua izatea eta, "horrek dakarren urduritasu-

ARIZNOAKO HIRU TALDE LEHIATUKO DIRA, ETA ITZIAR ALBERDI BAKARKA ARITUKO DA

naren kudeaketa eginda, ahalik eta lanik txukunena egitea".

Helburuei eutsi

Ikasturte honetan 85 gimnasta dabilta Ariznoa taldean, aurrebenjaminetatik hasi eta senior mailara arte. Benjaminek erakustaldiak egin ohi dituzte, eta alebinetan hasten dira lehiatzen, senior mailara arte.

Hala, helburuak finkatuta dituzte eta bi entrenatzaileek azpimarratu dute urtero moduan ikasturteko azken txapelketak ahalik eta ondoen egitea dela: "Faseetan hobetzeko gauzak aurkitu, eta, ondoren, Gipuzkoako finalean eta Euskadiko Txapelketan lan txukuna egitea".

Denboraldiari ekinda, martxoaren 16an Ibarran jokatu da Gipuzkoako Amateur Txapelketaren bigarren fasea. Gainera, datorren asteburuan Azpeitian jokatu den Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketako lehen fasean hartuko dute parte bergarrek.



NIRE USTEZ

KARMELE URIBESALGO

Erlojupeko bizitza

Egunak 24 ordu ditu, eta 8 inguru lanean pasatzen ditugu. 16 ordu gelditzen zaizkigu. Demagun ordu erdiko bidea duzula lanetik etxera. 15 ordu ditugu kontagailuan. Berez, 8 orduz egin beharko genuke lo. 15-8=7. Eta jan ere egin beharko dugu... Pare bat ordurekin egingo dut kalkulua. 5 ordu gelditzen zaizkigu gainerako gauzetarako: erosketak egiteko, otorduak prestatzeko, garbigailua jartzeko... Eta kirola egiteko, noski. Konturatu naiz sare sozialetan sartu eta kirola besterik ez dudala ikusten. *Influencer*-ak egunero dabilta ariketa fisikoa egiten; goizean *crossfit*-era, arratsaldean 10 kilometro korrika, hurrengo egunean pilatesa... Kirolarekin duten harremana "inoiz baino sanoagoa" dela diote, baina zalantza daukat ea benetan hori den transmititzen ari direna, eta uste dut erritmo horretan aritzeko beharra sorraraz diezaieketela euren jarraitzaileei. Kalkuluak eginda, argi dago oso zaila dela beraiek adina ariketa fisiko egitea. Kontua da gimnasia joatea beraien lanaldiaren parte dela, dirua irabazten baitute kirol-marken arropak jantzita. Bestela, ez dut ulertzen nola egiten duten.



JONE ARRUABARRENA

Eskalada-komunitatea osatzen

Bergarako Neska Eskalatzailen Topaketa egin zuten domekan Labegaraietako rokodromoan. Arrakasta handia izan zuen ekimenak; izan ere, hoguei lagun izango direla espero zuten antolatzaileek, eta, azkenean, 35 elkartu ziren. Datozen asteetan, eskaladan hasi eta probatu nahi dutenendako lau ikastaro egingo dituzte.

Bergarako aurtengo txirringularitza lasterketak, zehaztuta

Lokatza urteko batzarrean data hauek onartu ditu herriko txirringularitza lasterketetarako: San Martzial Bergara Hiria, martxoaren 14an; Labegaraieta eskolarrak, martxoaren 15ean; Gorrako Igoera, martxoaren 30ean; Gorrako Igoera Zikloturista Pello Garitano Oroigarria, maiatzaren 17an; eta San Antonio SN Erlojupeko Gipuzkoako Txapelketa, ekainaren 1ean.

Hiru partida gaur arratsaldean, frontoi eraberrituan

Frontoia berrituta, gaur, 19:30ean hasita, hiru partidu jokatu dituzte Bergarako pilotariak. Gipuzkoako Binakako Txapelketan, alebinen mailan, Bergarako Arrasateren kontra jokatu du; Gipuzkoako Binakako Nesken Txapelketan, infantiletan, berriz, Bergarako Aizkorpe hartuko du; eta gizonezkoetan, Ataun eta Oiarpe arituko dira.

"Ezinegonetik sortu den begirada islatu nahi dut"

XANTI ARRIETA ARTE EGILEA

19:00etan inauguratuko du Picassoren 'Gernika' obratik abiatuta egin duen 'Gernikak. Begiradak', "gerren zentzugabekeriak egindako gogoeta kolektiboa", Aroztegin

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Picassoren *Gernika* obra oinarri hartuta, *Zenbat Gernika daude?* galdetu dio bere buruari Xanti Arrieta (Bergara, 1959) artistak, eta gaurtik hilaren 23ra arte Aroztegi aretoan ikusgai egongo den hamahiru konposizioiko *Gernikak. Begiradak* erakusketa ondu du. Duela bost urte hasi zen proiektua lantzen, eta Picassoren obra zatikatuari gerretako irudiak nahiz euskalgintzako aurpegi ezagunen hitzak gehitu dizkio. **Nondik nora sortu zen *Gernikak. Begiradak* proiektua?**

Gernika lana betidanik izan da erreferente niretzat. Ukrainako gerra hasi zenean, telebistako irudiak ikusita, burura etorri zitzaidan berri ere *Gernika*. *Zenbat Gernika ote daude?* Ezinegona sortu zitzaidan eta proiektua forma hartzen hasi zen, baina konturatu nintzen boro-biltzeko hitzak behar nituela. **Hitzak, baina ez edozeinenak: Kirmen Uribe, Martxelo Otamendi, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal...** Hamar kolaboratzaile dira, eta lan oso sakona egin du Txema Ramirez de la Piscina kazetariak. Hitzak behar nituenean, ari proposatu nion, eta proiektuan sartu zen. Kolaboratzaile gehienak hark lortu ditu. Horietako asko izan dira haren ikasleak. Kolaboratzaileek egin dute proiektua bereziago, ezberdina go eta garrantzitsuago.

Pentsatzen zenuen euskalgintzako erreferente horiek zure proiektu batean parte hartuko zutenik? Sekula ere ez. Orain arte, nire obrak koadroak eta eskulturak izan dira; gehienetan, saltzeko. Obra hau ez da saltzeko; batetik bestera ibiliko da urte batzuetan. **Gernikako irudiez gain, Gazakoak, Ukrainakoak, Hiroshimakoak... sartu dituzu; aukeraketa nola egin duzu?**

Erreferenteak diren gerrak dira. Gehienak Gernikakoak dira, baina hainbat aukeratu ditut,



Arrieta, eguztenez, Aroztegin. I.A.A.

aipatzen dituzunaz gain: Granollers, Vietnam...

Gernikako bonbardaketatik bizirik ateratakoen testigantzak ere sartu dituzu; lau, hain zuzen ere.

Haiek ere Txemak lortu ditu. Sei testu inguratu zituen eta aproposenak iruditu zitzaizkigunak hartu ditugu. Zaldia konposizioan sartu ditut. Tokia ez da handia, obraren barruan tartekatzen baitira.

Pintura, zeramika, eskultura... hainbat teknika erabili dituzu; zergatik? Urteak daramatzat arte munduan. Printzipioz, margolaria naiz, eta zeramikatik sartu nintzen eskulturaren. Hainbat teknika joan naiz ikasten bidean ikasten, eta horietaz baliatuz proiektu hau egin dut. Pintura, eskultura, zeramika, argazkilaritza... Egunera erabili dut, burdina...

Zein hausnarketa bultzatu nahi duzu lan horrekin?

Ezinegonetik sortu den begirada islatu nahi dut. Telebistan gerra irudiak ikusten ditugu, eta ohitu egiten gara. Azpitu-lua da gerren zentzugabekeriak egindako gogoeta kolektiboa; hori sustatu nahi dut publikoan. Kontua nahiko triste da, eta errealtatea, askoz tristeagoa.

Proiektu horretan Txema Ramirez de la Piscina izan da zure bidelagun.

Bai, baina ez da nire obran sartu. Testuekin aritu da, eta orain, nire prentsa-arduraduna da. Lan pila egin du eta egiten ari da. Hamar kolaboratzaile dira, hura zenbatuta, eta hark egin du lan hori. Egubakoitzean inaugurazioan egongo da, eta hura ari

da antolatzen. Nik nirea eta hura harena. Azkenean, lantalea sortu dugu.

Gaur arratsaldeko inauguraziorako zer prestatu duzu?

Zerbait berezia izango da. Kolaboratzaileetako batzuk etorriko dira, baina ez dut aurreratu nortzuk izango diren. Esan dezakedana da Txema eta biok egongo garela, eta Alaiberri taldeak ere hartuko duela parte. Lagunak ditut taldean, eta proiektuaren berri eman nienean prest agertu ziren parte hartzeko.

Beste zenbait herritara ere eramango duzu erakusketa.

Martxoaren 4tik 27ra, Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunean jarriko dugu ikusgai; apirilaren 1etik 27ra, Altsasuko Iortia aretoan; eta, nola ez, Gernikako Astrara ere joango gara: hori urriaren 3tik 24ra izango da.

Hamar kolaboratzaile

Ametz Arzallus, Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabal bertsolariak, Martxelo Otamendi eta Txema Ramirez de la Piscina kazetariak, Kirmen Uribe eta Castillo Suarez idazlariak, Eñaut Elorrieta musikariak, Patxi Ibarzabal Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak kideak eta Maite Aristegi EHNE sindikatuko idazkari nagusi ohi eta politikari ohi bergararrak sortu dituzte testuak. Ramirez de la Piscina lotu ditu kolaboratzaileak, baina Arrietak berak aukeratu zuen Aristegi, bazekielako bazeukala zer kontatu. "Proposamena egin zidanean, amona Alejandraren irudia etorri zitzaidan burura. Elorrion bizi zen, eta asko sufritu zuen. Hamaika seme-alaba zituen eta bi gerran galdu zituen: bata gudariekin joan zen; bestea faxistek eraman zuten. Haren irudia daukat sutondoan, negarrez, halako min batekin eta galdera askorekin", dio Aristegik.

Maite Aristegik *Gernikak. Begiradak* proiekturako idatzitakoa

Intxorta azpiko baserrikoan amama Alejandra, kuxkurtuta, sutondoan.

Esku ximurtuetan argazki zahar bat; otoitz ixil bat ahoan.

Horitutako bi irudiei, laztan bana, ta gorde berriz kolkoan:

Joxe, faxistek behartuta frentera;

Felipe, gudari, Herriaren aldeko bandoan.

Bi anal, parez pare, gerrate zoroa, odol jarioa.

Eta harrezkero zenbat alditan, zergatik, non daude, noiz arte?

Zenbat erantzun gabeko malko zure altzoan...

Maite Aristegi Larrañaga, nekazaria.



Aratusteetako kontzerturako sarreren salmenta

Bergarako Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua eman go dute otsailaren 28an, Udal Pilotalekuan, 22:30ean hasita. Prestatu duten ikuskizuna *Kabaret 2.0* da, eta Enrike Txurruka bandako zuzendariak aurreratu du ohiko formatua prestatu dutela, antzerkiaz lagunduta, eta soinu aldetik ere muntaita handia izango dela. Hala, sarreak otsailaren 12an jarriko dituzte salgai, 18:00-20:00 bitartean Seminarixoko leihatilan eta 19:00etatik aurrera www.seminarixoa.eus atarian. Sarrera zortzi euro da eta pertsona bakoitzak, gehienez ere, sei sarrea erosi ahal izango ditu.

Koldo Eleizalde lehiaketetako izenematea, zabalik

Bergarako Koldo Eleizalde lehiaketan 40. edizioan parte hartzeko deialdia zabalik dago, apirilaren 30era arte. Bergaran jaio-takoek edo Bergaran bizi zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte, bakarka zein taldeka. Bost genero-multzotako lanak aurkez litezke: antzerkia; bertsoa; ipuin idatzia eta poesia; ipuin-kontaketa, podcasta eta txistea; eta komikiak. Aurkeztutako lanek originalak izan behar dute. Sari-emate ekitaldia ekainaren 14an egingo dute, zapatua, eguerdiko hamabietan, Seminarixoan. Lehiaketari buruzko xehetasun guztiak www.labur.eus/DJoWp webgunean daude.

Bayou La Batre, Lokuria eta Daño Dolor gaur gaztetxean

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenak hiru kontzertu antolatuko ditu gaur gauerako. 22:30etan hasita, Gasteizko Bayou La Batre, Oñatiko Lokuria eta Gasteizko Daño Dolor taldeak igoko dira kartzela zaharreko oholtzara. Duela hamar urte eman zuen Oñatiko taldeak lehen kontzertua, kartzela zaharrean, eta hori ospatuko dute leku berean.



Ezkerretik eskuinera: frontoi txikia, futbol zelaia, iraingo lokala eta hilerria. A.R.K.

3.704.852 euroko udal aurrekontua onartu dute, EH Bilduren botoekin

Ingurumenari, kulturari eta euskarari eman diote garrantzia, alkatearen hitzetan, eta 564.000 euro zehaztu dituzte inbertsioetarako. EAJk ezetz esan dio proposamenari, "errealitatearekin zer ikusi gutxi duten zenbakiz osatuta" dagoela nabarmenduta

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

3.704.852 euroko udal aurrekontua onartu dute Antzuolan 2025erako, iazkoa baino 114.879,2 euro handiagoa da, %3,2ko igoearekin, eta Gipuzkoako Foru Funtsetatik dator kopuruaren erdia: 1.858.011,93 euro; aurrekontu osoaren %50,15.

Hain zuzen ere, urtarrilaren 30ean egin zuten ohiko osoko bilkura udal ordezkariak, eta orduan onartu zuten aurrekontua, EH Bilduko zazpi ordezkarien botoekin, EAJko laurek ezezkoa bozkatu baitzuten.

Olatz Lezetak, Antzuolako alkateak, onartu dituzten aurrekontuak "onak" direla dio, eta garrantzia eman diotela, batik bat, ingurumenari, kulturari eta euskarari. "Ingurumenaren alorrean ea Basalderako bidegorria lortzen dugun;

behintzat, proiektua bideratzen saiatuko gara. Kulturari, berriz, herrira zabaldu nahi dugu euskarazko kultura, garrantzia emanda; eta, azkenik, euskarari dagokionez, lanketa indartsua dihardugu egiten Arigune proiektuarekin [gaur aurkeztuko dute, Donostian], Antzuolako taldeekin euskara sustatzeko esperantzarekin".

564.000 euro inbertsioetan

564.000 euro zehaztu dituzte inbertsioetarako, eta handien artean daude frontoi txikiko estalkia jartzea (110.000 euro),

IAZKOA BAINO %3,2 HANDIAGO DA AURREKONTUA, ETA FORU FUNTSETATIK DATOR ERDIA

futbol zelaiko belar artifiziala aldatzea (70.000 euro), baserrietako ur horniduraren hamahirugarren fasea garatzea (50.000 euro) eta hilerrian hobekuntzak egitea (35.000). "Futbol zelaiko belarra zeharo erreta dago, eta aldatzeko asmoa dugu; frontoi txikiko estalkiarekin ere aspaldian gabiltza bueltaka, baina bideratuta dugu, eta aurten egingo da. Horrez gain, Hil Arte Bizi prozesutik ideiak hartuta eta dolu perinatalaren bueltan diharduten gurasoekin lanketa eginda, hilerrian haiei gune bat eskaintzeko asmoa dugu; azkenik, ur-faseari dagokionez, aurten Altzeta eta Loixetara ura eramanda, baserri guztietan izango da".

Badira bestelako inbertsioak ere: udaletxeko teilatua konpontzeko asmoa dute, "hondatuta" dagoelako, 70.000 euroko diru-partida zehaztuta, eta udal biltegi-

Inbertsio nagusiak

3.704.852 euroko udal aurrekontuaren %15,22 bideratuko dute inbertsio nagusietara urte honetan; 564.000 euro, zehazki. Udal Gobernuak hamalau egiteko zerrendatu ditu garrantzitsuen artean. Hauek dira zenbatekoak handienetik txikienera.

Zehaztutako inbertsioen zerrenda

Frontoi txikiko estalkia	110.000 €
Futbol zelaiko belar artifiziala	70.000 €
Udaletxeko teilatua	70.000 €
Biltegi lokala erostea, Irainen	60.000 €
Brigadarako makineria erostea	50.000 €
Baserrietako ur-horniduraren 13. fasea	50.000 €
Hilerrian hobekuntzak	35.000 €
Basalderako bidegorria	35.000 €
Kaleko bideen seinalizazioa	30.000 €
Landaketak eta lurrak erostea	30.000 €
Auzo-konpost proiektua	7.000 €
Baserrien identifikazioa	7.000 €
Futbol zelaiaren azterketa geoteknikoa	6.000 €
Gimnasiarako materiala	4.000 €

tzat erabiliko duten eraikin bat erosiko dute Irainen, 60.000 euroren truke. Horrez gain, brigadarako makineriarako 50.000 euro bideratuko dituzte, Errekaldetik Basalderainoko bidegorria egitera 35.000 euro eta kaleko bideen seinalizaziorako eta landaketen zein lurren erosketarako 30.000na. Azkenik, arreta jarri dute auzo-konpostaren proiektuan, baserrien identifikazioan, futbol zelaiaren estudio geoteknikoan eta gimnasiarako materiala erostean, 10.000 euro baino gutxiagoako diru-partidak zehaztuta.

EAJren ezezkoa

EAJko ordezkariak, "erantzukizunez", ez dute Udal Gobernuak proposatutako aurrekontuen alde egin: "Ez diete erantzuten ez herriaren ez antzuolarren beharrei; akats teknikoak beteta egoteaz gain, errealitatearekin zer ikusi gutxi duten zenbakiz osatuta daude".

Haien hitzetan, proposamen batzuk egin zizkieten Udal Gobernuari: "Autonomoei laguntzeko plan bat garatzea, herriko komertzioa suspertzeko estrategia bat egitea eta, bereziki inportantea, gazteei etxebizitza-

FRONTOI TXIKIKO ESTALKIA ETA FUTBOL ZELAIKO BELARRA DIRA INBERTSIORIK HANDIENAK DIRUTAN

ra sarbidea izatea erraztea". Halere, salatu dute Udal Gobernuak ez duela bat ere onartu, eta "hankamotz" gelditu dela haren erantzuna: "Gai interesgarriak izanik ere konponbide zaila duten gaiak direla dio, eta gobernu berria izanik ez dutela esperientziarik lan horiek egiteko". Jeltzaleek, ordea, ez dute erantzuna onartu: "16 urte darमतzate gobernatzen. Denbora nahikoa izan dute bultzatu nahi dituzten politikak egiteko oinarriak ezartzeko; esperientziarik eza ezin dugu aitzakiatzat onartu". Erantsi dute herritarrek ez dituztela "gai errazak konpontzeko soilik" hautatzen: "Ez dago epe erdi-luzera begirako planik. Antzuolak gai konplikatuaren aurrean pausu bat emango duen gobernu bat merezi du".

Lezetak, etxebizitzaren auziaz, erantzun du "kontziente" direla arazoaz, eta gaia lantzen dabiltzala, diru-partidarik ez zehaztu arren: "Orain dela urte batzuk egin ziren etxebizitza sozialak; gerora, beste batzuk, eta azkenengo bospasei urtetik ikusten da arazoa hor dagoela. Hasi ginen lantzen, baina ez dugu horren garbi: Antzuolak ez du herri-lurrik eraikitzeke". Edozelan ere, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean etxebizitza sozialak eraikitzeke guneak zehazten dabiltzala iragarri du, eta gerakineko diruaren parte bat etxebizitzaren alorrera bidera daitekeela proiektu "indartsu" bat egonez gero.

Katuak "kontrolatu" nahi ditu Mixi elkarteak

Katemeak zikiratzeko asmoa dute elkartekideek, Animalien Ongizateari buruzko Legea gogoan izanda. Horrez gain, lege hori oinarri, etxolak jarriko dizkiete herriko zazpi gunetan, katuei jaten emateko eta horren inguruan mugitzeko, herrigunetik kanpo

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Herriko katuen populazioa "kontrolatuta" izatea da Mixi elkarteko kideen asmoa, hazi ez dadin eta herria, horrenbestez, "txukunago" egon dadin. Elkartekideen hitzetan, hori da lehentasuna, eta ez katu gehiago egotea: "Baizik eta aurkakoa, katemeak zikiratzen baitihardugu azkenaldi honetan".

Zikiratzea da, horrenbestez, lehen urratsetako bat, eta, gaur-gaurkoz, herrian dabilzan bost katu zikiratu dituzte elkarteko kideek, albaitariarena eramanda. Horrez gain, datozen asteetan katuentzako etxolak jarriko dituzte: "Txikiak dira, eta auzoetan jarriko ditugu; haietara bideratuko ditugu katuak, jatera eta kolonia horren inguruan mugitzera, ez daitezen herri inguruan egon". Hain zuzen ere, zazpi etxola jarriko dituzte guztira –Beheko auzoan, Eguzki auzoan, arrandegiaren alboan, Sagastin, abade-etxearen ondoan, Kalegoien eta pilotalekuaren atzean–, eta pare bat aldiz emango diete katuei jaten: "Legeak dioena errespetatuz egingo dugu; neur-tuta. Gainera, baimendutako pertsonak emango diete jaten, izen eta abizenekin".



Katu bat, auto baten gainean, Ondarre auzoan. MIXI ELKARTEA

ELKARLANEAN DIHARDU ELKARTEAK UDALAREKIN, HITZARMEN BAT BAITUTE SINATUTA

Animalien Ongizateari buruzko Legea dela-eta, Udalaren ardura da kaleko katuen segurtasuna eta osasuna bermatzea, baina Antzuolan elkarteak dihardu lanean, aurrez hitzarmen bat sinatuta Udalarekin. "Elkarla-

nean aritzen gara: guk egiten dugu kaleko lana, eta hark dirulaguntzak ematen dizkigu jardunerako; horrez gain, etxolak-eta non jarri ere harekin zehaztu dugu".

Katuen identifikazioak

Zikiratuta dauden katuak identifikatzeko bada modu bat, albaitariak marka bat jartzen baitie belarrarian, hala dela adierazteko, eta, hala, kontrolatuta izateko: emeek eskumako belarrarian dute marka hori eta arrek, berriz, ezkerrekoan.



MUS TXAPELKETA

Otadui eta Errasti garaile

Mus Txapelketako finala jokatu zen hilaren 2an Gorostin, eta Unax Errastik eta Iker Otaduk irabazi dute txapela; Gipuzkoako txapelketan izango dira, Euskal Herrikora jauzi egin ahal izateko. Han izango dira Gotzon Gabilondo eta Iban Unanue, Joxe Mari Lezeta eta Aratz Olabarria, Agurtzane Loidi eta Nekane Berasategi, eta Mikel Gabilondo eta Asier Unamuno.

957 euro bildu ditu Anelkarrek Santa Ageda eskean

Anelkar Elkartasun Taldeak antolatuta, Alboradak txistulari taldeko eta herriko abesbatzako partaideen laguntzarekin, Santa Ageda eskea egin zuten martitzenean, hilaren 4an, herriko kaleetan zehar. Herriko Plazatik abiatu ziren parte-hartzaileak, arratsaldeko seietan, eta 50 inguru batu ziren kantuan egiteko; guztira, 957 euro biltzea erdietsi zuten bi orduan. Orain, Kongon eta Senegalen martxan dauden proiektuak mantendu eta hobetzera bideratuko dute diru hori, Anelkarrek beste urte batzuetan egin bezala, jada ohitura baitu Santa Ageda eskea antolatzea dirua batzeko asmoarekin.

Arkupehotsak ekimenean da Karena musika taldea

Zazpigarrenez antolatu du Kulturaz kooperatibak Arkupehotsak ekimena, musika-sortzaile berriei plaza bat eskaintzeko. Aurten, lau taldek hartuko dute parte, eta horien artean da Karena, Antzuolako –Iratzi Gardoki eta Andoni Zabalo– eta Hernaniko musikariz osatua. Taldekideek Azpeitiko Dinamoaren sormen-guneko Soinuaren Eremua erabili ahaliko dute entseguak egin eta zuzenekoak prestatzeko, eta bi formakuntza-saio jasoko dituzte: teknikoak, Jon Badiolaren eskutik; eta artistikoak, Jon Basaguren eta Libe Garcia de Kortazarrenetik. Azkenik, kontzertu bat egingo dute Sanagustin kulturagunean.

Katakumeak adoptatzeko aukera

Herriko katu guztiak ez daude zikiratuta oraindik, eta, horrenbestez, sarri ageri dira katakumeak. Bada, horietako batzuk adoptatzeko aukera dagoela jakinarazi dute Mixi elkartekoak: "Albaitariarena eramaten ditugu lehenbizi, azterketa egiteko eta dena txukun izateko; ondoren, kontratu bat firmatzen da adoptatu nahi duen

herritararekin, zainketa-arauak zehazteko". Halere, erantsi dute katakumeren bat topatuz gero kalean ez eramateko euren gaitasuna, ez dutelako zaintzeko espaziorik: "Abisua pasatu eta guk zainduko ditugu etxeko bitartez eta".

Diru-ekarpenak

Herritarrek elkarteari diru-ekarpenak egiteko aukera dute,

hala nahi izanez gero, elkartekideek zikiratze-prozesuetarako eta egunerokorako erabili dezaten –janaria eta etxetxoa erosi, albaitariari ordaindu...–. Horretarako, kontu-korronte zerbaki bat jarri dute herritarren eskura: ES14 3035 0040 10 0400026453 (Laboral Kutxa). Horrez gain, janari-bilketa egiteko asmoa dute Eroski supermerkatuan, baina eguna zehaztu gabe dute oraindik.

OHARRAK

'Hamelingo txirularia' musikala

Bergarako Antzerki Musikalak antolatuta, *Hamelingo txirularia* musikala izango da domeka arratsaldean; hala ere, sarrera guztiak agortu dira aurrez.

Ekiolaren aurkezpena

Energia arloko kooperatiba-komunitatea da, eta eguaztenean aurkeztuko dute, 18:30ean, Olarango beheko aretoan.

Autokarabana gunea

Leku bat libre dago Lapatzako autokarabana-gunean, eta, horrenbestez, izen-ematea irekita dago interesa duten herritarrendako; ondoren, zozkatu egingo da plaza libre hori.

"Udaletxeko bilerak oso berandu hasten ziren"

MARI CARMEN ETXEBARRIA ELGETAKO LEHEN EMAKUME ZINEGOTZIA
Elgetan 1983an hartu zuen zinegotzi kargua lehen aldiz emakume batek. Mari Carmen Etxebarria izan zen. Orduetik hona, 26 emakume izan dira udalbatzan

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Mari Carmen Etxebarriak (Elgeta, 1944) bi agintaldi egin zituen Elgetako udal zinegotzi: 1983-1987 eta 1987-1991. EAJko ordezkaria izan zen. Ez zekien Elgetako lehen emakume zinegotzia izan zenik. *Elgetako gobernantza* liburua kaleratu dutenean ohartu da. **Garrantzirik eman zitzaion zinegotzi kargua hartzen zuen lehen emakumea izateari?**

Denbora asko pasa da eta ez naiz ondo gogoratzen, baina esango nuke ezetz. Ni neu ere ez nintzen jabetu. Liburua atera den arte ez dut jakin.

Gogoratzen duzu nondik heldu zitzaizun proposamena?

Esango nuke Bergarako batzokitik helduko zitzaidalda. Lehen agintaldiko taldekideak izan ziren Juan Mari Azkarate eta Javier Arantzeta, eta bigarrenean Maria Jesus Lete. Kargu-hartze ekitaldirik egin ote zen ere zaila da. Ez dut gogoan. *Sartu eta lanera* izaten zen orduan. **Bi agintaldietan Patxi Basauri izan zen alkate, Elgetako Kandidatura Independente izeneko hautagaitzarekin.**

Bai, eta gogoan dut nola goiz batean dei bat jaso nuen Gasteiztik. 09:00 inguru ziren eta tailerrean nengoen lanean. EAJ-tik deitu zuten eta nahi zuten Patxi Basauri 12:00etarako Eusko Jaurlaritzan egotea, Ardanza lehendakariarekin bilera bat egiteko. Berehala joan zen, baina ez genuen ondoren inoiz gaiari buruz hitz egin. Ez dakit bilera hartan zer esan zioten, baina hurrengo udal hauteskundeetan EAJren zerrendan joan zen, eta Elgetako Kandidatura Independentea desegin egin zen. **Urte haietan zein gai nagusi izan zenituzten mahai gainean?**

Ni, gehienbat, hezkuntza kontuez arduratu nintzen. Eskola berria egiteko proiektua dut, bereziki, gogoan. Gure etxe aurrean egin zen, eta gora eta beheara ibili



Mari Carmen Etxebarria. A.G.E.

"HEZKUNTZA KONTUEZ ARDURATU NINTZEN, GEHIENBAT; ESKOLA EGITEKO PROIEKTUA DUT GOGOAN"

ginen. Gero, haserretu ere egin ginen; izan ere, altxatu zuten eraikina ez zen guri hasiera batean aurkeztutako proiektuan zetorrena. Baina horiek beste kontu batzuk dira.

Zer zegoen eskola dagoen lekuan?

Ermita eta moja-etxea, eta herrian bi ikastetxe: ikastola eta eskola nazionala. Ikastolako umeez Domingo Iturbe eraikinean ikasten zuten, eta eskolakoek, gaur egun botata dagoen eta aldamenean zegoen eraikin batean zein gero gaztetxea izan den eraikinean. Beste garai batzuk ziren, eta gurasoek lan handia egiten genuen; batez ere, ikastolakook. Dirua batzeko taberna zabalitzen zen, kontzertuak eta tonbola antolatzen ziren. Gogoan dut ikastolako garbiketa-lanak ere gurasoek egiten genituela, txandaka. Behin, ahaztu egin zitzaizkidan txanda nuela, eta entzun behar

izan nituenak ondo gogoan ditut. Jendeak oso serio hartzen zituen ardura horiek. Implikazioa oso handia zen.

Noiz egiten zenituzten osoko bilkurak? Entzunda daukat oso luzeak izaten zirela.

Udaletxeko bilerak hasten ziren lan-jarduna amaitutakoan; izan ere, denok genuen gure lana. Bilerak berandu hasten ziren, luzeak izaten ziren eta oso berandu bukatzen ziren.

Eta zer-nolako lan giroa zegoen?

Ba, denetik. Batzuetan, ados egoten ginen; eta beste batzuetan, ez; eta saio gogorrak ere izaten genituen. Egoera politikoa ere ez zen erraza.

Ordurako, Maria Angeles Elkoro zegoen idazkari; beraz, gizonen artean bi emakume izango zireten.

[Barre] Hori da. Maria Angeles Elkoro beti hartu izan ditu gauzak trankil, eta eskerrak... Urte asko egin ditu, gainera, udal idazkari.

Zein hizkuntza erabiltzen zenuten?

Udaletxean gaztelera. Noizean behin irteten zen euskara, baina oso gutxitan. Beste garai batzuk ziren eta denak ginen gaztelerez ikasitakoak.

Lan askoko urteak izan ziren orduan?

Batera tokatu ziren lana Elkoronean, udal zinegotzi kargua, ikastolako idazkari-lanak eta Ozkarbi elkarteko junta. Egia esan, laguntza handia jaso nuen lantokiko nagusi Jose Mari Elkorengandik. Sasoi hartan, nik eramaten nituen ikastolako eta Ozkarbi elkarteko paper guztiak ere, baina animatu egiten ninduen horretara eta ez zuen oztoporik jartzen. "Egizu. Zu joan", esaten zidan, eta banuen atzera eta aurrera ibiltzeko la-saitasun hori. Gizon ona zen.

Ozkarbi elkarteko paperak ere zuk eramaten zenituen?

Bai. Elgetako abade Joaquin Gastesik hartu zuen elkarteko zuzendaritzaren ardura, eta sail asko zabaldu zituen: euskal dantzak, pilota, zeramika, mendi taldea, musika eskolak... Herritar asko sartu ziren batean zein bestean. Esango nuke herriko kultura mugimendua Ozkarbitik antolatzen zela, eta ez zen bereizten nor zen EAJkoa edo nor beste alderdi batekoa. Bazkide moduan zuzendaritzan sartzea tokatu zitzaizkidan, eta administrazio kontuak hartu nituen. Ozkarbin ere bilera asko egiten genituen, eta berandu. Akordatzen naiz sarri joan behar izaten nuela Donostiara, hainbat tramite tarteko. Hiriburuko bulego guztiak ezagutzen nituen.

Hartutako ardurak ez dira gutxi izan; non ikasitakoa zara?

Aitak garrantzi handia eman zien gure ikasketei. Enpresa genuen, eta administrari-lanak ikastera bidali ninduen Eibarriera. Hasieran, Leon Olabarriaren autobusean joaten nintzen, egunero, Armeria Eskolan ikasten zuten mutilekin batera, baina gidariak esan zion aitari ni barneko ikasle sartzeko. "Airean" etortzen omen nintzen mutil guztiekin. Eta, hala, *moja frantsesak* izenez ezagutzen zen kongregazio bateko eskolan ikasi nuen.

Hala ere, etxeko tailerrera beharrean, Elkoronera joan zinen lanera.

Tailer handiagoa zen, eta aita eta biak lagunak ziren. Elkoroneko lanak amaitu eta etxeko tailerrekoak egin behar izaten nituen. Gaztea zarenean, horretarako eta gehiagorako indarra duzu. Eta gizartea beste modu batekoa zen. Gogoan dut nola etortzen zen jendea agiriak makinaz pasatzeko eskatzera tailerrera. Elkarri laguntzen genion. Horrela zen.

Pentsiodunen ekimenaren aldeko 190 sinadura

Gehiago jasotzeko asmoarekin, mahaia egongo da eguen iluntzean udaletxean

L.Z.L. ELGETA

Elgetako hainbat eragilek bat egin dute Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua bultzatutako Herri Ekimen Legegilea babesteko ekimenarekin, eta sinadura-bilketa egin zuten aurreko aste bukaeran. Helburua zen 100 sinadura lortzea –biztanleriaren %10–, eta 190 batu zituzten. Balorazioa, beraz, positiboa da.

Sinadura gehiago jasotzeko asmoarekin, mahaia ipiniko dute Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta egunean udaletxeko areto nagusian egitekoa den hitzaldian. Arratsaldeko seieta hasiko da, eta amaieran egongo da sinadura emateko aukera.

"Eskaera da pentsiodunen diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldaterekin parekatzea –1.134 euro–, eta, horretarako, pentsioak osatzeko euskal sistema bat sortzea", azaldu dute.

'Zer ari da gertatzen Osakidetzan?' hitzaldia egunean

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak iragarri du hitzaldia, eta 18:00etan hasiko da, udaletxeko areto nagusian. Hizlariak izango dira Larraitx Arriola familia-medikua, Karlos Ibaguren zaintza intentsiboetako medikua eta EH Belduko legebiltzarkide Rebecka Ubera. "Gertatzen ari denaren inguruko gure begirada azaltzen saiatuko gara", esan du Uberak.

Horrekin batera, otsaileko podologo zerbitzuaren berri ere eman du Xalbadorpe elkarteak: hilaren 19an izango da, 08:45-13:15 artean, kultura etxean. Interesatuak 653 74 19 64 zenbakira deituta eman behar dute izena. Goizez izango da zerbitzua aurrerantzean.

Elgetako motorzaleen festa handia zapatuan

Motorzaleek antolatutako jaia da, auto klasikoaren erakusketa, Egoarbitzako lasterketa, bazkaria eta musika emanaldiak uztartzen dituena; larunbat honetan izango da. Helburua taldearen jarduerak ordaindu ahal izatea da

Sara Lanz Azpiazu ELGETA

Zapatu honetan, otsailak 8, motorzaleen topagune bihurtuko da Elgeta, Mendi Mendia Racing taldeak antolatutako urteroko jaiarekin. Zazpigarren edizioa izango da, eta egunean zehar auto klasikoaren erakusketa, Egoarbitzako lasterketa, herri bazkaria eta kontzertuak izango dira. Jaia taldeko pilotuek eta kopilotuek euren jarduerara finantzatzeko baliatzen dute, eta urtero gero eta parte-hartzaile gehiago erakartzen ditu. "Ilusio handiz prestatzen dugu urtero, eta jende gehiago animatzen ari da", azaldu du Mikel Beretxinagak, taldeko pilotu beteranoak.

Beretxinagak azaldu duenez, 11:30ean egingo den auto klasikoaren erakusketa da ekitaldiaren puntu garrantzitsuenetako bat. "Urtero jende gehiago animatzen da bere ibilgailuak erakustera", dio Beretxinagak. 25 urtetik gorako autoak ikusi ahal izango dira: Mini klasikoak, rallyetako autoak, baita Vespa motorrak ere, besteak beste.

Eguerdiaren, 12:00etan, Egoarbitzako lasterketari emango zaio hasiera. Izen-ematea bertan egin ahal izango dute korrikalariak, 11:30etik aurrera, eta dortsala momentuan jaso ahal izango da. "Urteroko ibilbide bera mantenduko dugu, parte-hartzaileei gustatzen zaielako eta oso egokia delako horrelako probetarako", azaldu du Beretxinagak. Lasterketa amaitutakoan, 13:00etan, sari banaketa egingo da, herriko plazan, eta 13:30ean, taldeko argazkia aterako dute parte-hartzaile eta antolatzaile guztiek.

Arratsaldean, 14:00etan, bazkaria egingo dute antzokian. Antolatzaileek 200 pertsona inguru elkartzea espero dute. "Urtero kopuru horretara iristen gara, eta aurten ere antzeko parte-hartzea aurreikusten dugu", dio Beretxinagak.



2024ko Mendi Mendia Racing jaiko auto klasikoaren erakustaldia. GOIENA

"ILUSIO HANDIZ PRESTATZEN DUGU URTERO; GERO ETA JENDE GEHIAGO ANIMATZEN DA"

Jaia gauean borobilduko da, 21:30ean hasiko diren kontzertuekin. Espaloia kafe antzokian lau talde igoko dira oholatza gainera: Babesgabe, No Limits, Nafarroa 1512 eta Banana Shake, hain zuzen ere. Ondoren, DJ Oier Mendizabalek girotuiko du gaua. Babesgabe herriko talde hasiberria da. "No Limitsekoak gure lagunak dira eta disko berria atera dute, eta aukera bikaina da haien zat Elgetan aurkezteko", adierazi du Beretxinagak.

Sarrerak leku hauetan eskuratu daitezke: Elgetako Janela eta Lola jatetxeetan, Bergarako Arrano tabernan eta Eibarko Beleko tabernan. Prezioei dagokienez, bazkarira eta kontzertuetara joan nahi duenak 25 euroko sarrera erosi ahal izango du, eta kontzertuetakoa bakarrik 10 eurotan.

Aurtengo denboraldia

Jaian batutako dirua gastuak finantzatzeko erabiliko dute: federazio-kuotak, lasterketarako izen-emateak eta autoen mantentze-lanak. Beretxinagak aurreratu duenez, aurten Mendi Mendia Racing taldeko pilotu gisa hura egongo da, eta Oskar Sarasua kopilotu. Lea-Artibaiko Rallyan lehiatuko dira, eta, ondoren, Gorka Igoeran parte hartzea dute helburu. "Kilometroak egin eta auto berrira ohitzea da gure erronka. Iaz, lasterketa gutxi egin genituen, baina aurten, txapelketan egonkortu egin nahi dugu", azaldu du.

Intxortako rallysprinta ere antolatuko dute aurten, urriaren 25ean. "Lehen urtean esperientzia polita izan zen", eta aurten indar handiagoz itzuliko direla dio Beretxinagak.

Taldeko kideen esanetan, etorkizunean ere Mendi Mendia Racing jaia eta Sagardo Eguna ekimenekin, motor mundua eta herriko kultura uztartzen jarraituko dute. "Garrantzitsua da komunitatea motorrarekin lotzea", eta jaia horretarako aukera ona dela esan du Beretxinagak.



T.M.

Hirugarrenez Ikastetxe Klik-en

Energia kontsumo eraginkorragoa bultzatzea helburu du Ikastetxe Klikek, eta Elgetako Herri Eskolak parte hartzen duen hirugarren aldia da.

D2030 barruan dago eta EkoON taldearen laguntza izan du; irakaslez, ikaslez, ikastetxeko langilez eta udal ordezkari osatutako batzordeak eratu dira, prozesuaren eta hartutako neurrien jarraipena egiteko.

Inauterietako mozerroen bigarren eskuko azoka gaur

Eguraldi txarra bada, frontoian egingo dute; Janelako azoka txikia, berriz, atzeratu egin dute

Sara Lanz Azpiazu ELGETA

Bi azoka ziren egitekoak gaur arratsaldean Elgetan. Alde batetik, Udalak antolatutako Inauterietako mozerroen bigarren eskuko azoka. Kiroldegi inguruan egingo dute, eta eguraldi txarra bada, frontoian. 17:00etan hasiko da eta ordubete iraungo du. Helburua da Inauterietako mozerroak berrerabiltzea, eta Udalak jakinarazi dute trukatu, saldu zein oparitu egin daitezkeela mozerroak. Edozein mozerro azokan aurkeztu nahi dutenek bertaratu besterik ez

dute. Behar dutenek ere aukera politik aurkituko dituzte, akaso, azokan.

Janelan azokarik ez

Eguneko bigarren azoka Janela taberna inguruan zen egitekoa. Aurreikusita zegoen hamahiru mahai egotea; batez ere, artisaulariengan. Horrekin batera, Unai Cantabranaren zuzeneko emanaldia zegoen iragarrita. Azoka hori ez da egingo. Eguraldi iragarpena oso txarra dela-eta erabaki du atzeratzea Janelako Maria Cobosek.

Egoera asko ezagutarazteko

Amantalak talde feministak erakusketa bat antolatu du Buztin Gelan; otsailaren 6an zabaldu zuten eta 9ra arte egongo da zabalik. Emakumeen Genitalen Mutilazioaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

Horrekin batera, elgetarrek euren iritzia elkarbanatu ahal izango duten txoko berezi bat prestatu dute.



L.Z.

22 milioi euro pasa 2025erako

"Herri berdinzaleagoa eraikitzeko" aurrekontua da, Udal Gobernuaren ustez; eta "puztutakoa" eta eurekin "partekatu gabea", oposizioaren iritziz

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

22 milioi euro pasatzeko aurrekontua egin du Oñatirako Udal Gobernuak 2025erako, eta hori izango du herriak aurten. "Herriarrak erdigunean dituen eta arduraz landutakoa", Udal Gobernuaren ustez; eta "errepikatzen diren promes hutsez" betea, oposizioaren iritziz. EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren ezezkoekin onartu da.

Egonkortasun ekonomikoa

Oñatik 22.083.888 euro izango ditu guztira aurten, 2025ean.

Joan den urteko Next dirulaguntzen partida berezia kontuan hartu gabe, %5,4 handiagoa, %4,48 txikiagoa bestela. Paskual Elustondo Darpon kontu-hartzaileak emandako datuen arabera, sei adierazle hartu ditu kontuan aurrekontuari buruzko balorazioa egiteko, eta horietatik lau positiboak direla aipatu zuen urtarrileko osoko bilkuran. Azpimarratu zuen autofinantzaketan edo aurrezki arrunt garbia positibo dela, beste behin, eta horri garrantzia eman zion; gaineratu zuen Udalaren zor bizi

erlatiboa Gipuzkoako eta antzerako tamaina duten beste herriekiko batez bestekoaren gainetik dagoela.

Izaro Elorza Arregi alkateak eman zituen aurrekontuaren xehetasun orokorrak, partidak aipatzen hasi aurretik. Elorzak emandako datuen arabera, sarreteretan, aho batez onartu ziren udal ordenantzen bitartez, 314.000 euro jasoko dira hiri hondakin solidoak biltzogatiko tasetan. Foru Funtsaren igoera %2,4koa izan da eta kiroldegiko kantxa urdinean egin diren hobekuntzen

ondorioz 230.000 euroko laguntzak jaso dira. Inbertsioetarako, berriaz, 2,5 milioi inguru izango dira, Elorzaren esanetan, eta 1,8 milioi euroko aurrezki arrunt positiboa izango du, "Udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzeko".

Egitasmo esanguratsu batzuk

Xabier Igartua Loidi Ogasun batzordeburuak eman zituen aurten egiteko asmoa duten egitasmoetako batzuen azalpenak, Udal Gobernuarendako "proiektu denak garrantzitsuak" direla aurrez esanda. Horrela, zaintzaren alorrean aurrerapausoak emango dituztela esan zuen: "Dagoeneko sortuta ditugun zerbitzuak indartuz eta urrats berriak diseinatuz". Esaterako, etxez etxeko laguntza zerbitzuari lotutako partidak %13ko igoera izango du; 2025ean 1,3 milioi eurokoa izango da partida hori. Eguneko arreta zentroa indartzen jarraituko dute eta zaintza eredu berriaren inguruko lanketa egiten hasiko dira.

Berdintasun Departamentura 100.000 euro bideratuko dituzte, hala nola Jabetze Eskolara, hez-

kidetza programara eta aholkularitza juridikora. Emakumeen Etxea antolatzeko parte hartze prozesua ere abiaraziko dute aurten, eta Berdintasun Kontseilua indartzen jarraituko dute, genero-ikuspegia hainbat sailtara eramateko urratsekin jarraitzeaz gain. Energia berriztagarrietan sakontzeko konpromisoa berretsi zuen Udal Gobernuak, eta energia efizientziaren bidean inbertsio esanguratsuak aurreikusuten direla. Energia sorkuntzarako proiektu lokalekin jarraituko dutela ere gaineratu zuten.

Landa Garapen arloan, auzoen dirulaguntza eta inbertsioetarako 300.000 euro pasako partida dago eta beste 50.000 euro landa-lur partzelen digitalizazioarekin jarraitzeko. Herriguneko irisgarritasuna hobetzeko 460.000 euro izango dira eta tokiko elikadura jasangarri eta burujabearen alde, Elikadura Mahaia egonkortzeko, 25.000 euroko partida dago. Asfaltatze lanetarako ere egongo da dirua. Herriko merkataritzaren alde, bestalde, 30.000 euro gorde dituzte eta Natur Eskola indartze-

Urtean egiteko jasota dauden hainbat asmo



Euskaltegia dagoen egoitza, Bidebarrieta kalean. O.E.

Euskaltegia, Euskaldun Berria gela eta Txipistin egitasmoa dauden egoitza eraberritu egingo dira. Obra horietarako ere badago diru partida bat: 400.000 euro.



Kalean, pertsona bat zaintzen. O.E.

Zaintzaren alorrean, etxez etxeko laguntza zerbitzuari lotutako partidak %13ko igoera izango du 2025ean. 1,3 milioi eurokoa izango da partida hori.



Txorimaloak San Migel Txiki jaietan. B.A.

Jai batzordeendako 100.000 euro egongo dira eta beste 110.000 kultur eragile eta sortzaileen proiektuetarako, Kultura eta Haur eta Gazteria sailtatik.



Hainbat herritar gimnasioan martitzen goizean. M.B.

Gimnasioan sei makina berri jarriko dituzte, erabilera askotarikoak; 63 daude egun. Erabilera hobetu egin daitekeela uste du Udal Gobernuak. 20.000 euro.



Olabarrieta auzoko parajea. O.E.

Landa auzoen irisgarritasunerako eta partzelen digitalizatorako egongo da dirua. Dirulaguntza eta inbertsioetarako, 300.000 euro.



Eltzia aurreko jolaslekua. O.E.

Baranda bat jarriko dute Eltzia parean, errepidearen eta jolaslekuaren artean, segurtasuna bermatzeko. Oposizioak egindako ekarpena. 1.500 euro.



Urtarrilaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuten aurrekontua. O.E.G.

ko, 170.000 euro. Lur patrimonialak erosteko 40.000 euro egongo dira, eta 110.000 euroko partida ere bai, herriko jaiegutietatik kanpoko kultur programaziorako.

Kontzeptuek garrantzia

Oposizioaren ustez, baina, "behin eta berriz errepikatzen diren promes hutsez" dago beteta Udal Gobernuak aurkeztu eta onartu duen aurrekontua, eta "joan den urteko exekuzio maila txikia" da. Puntu horri buruz berba egitean, Xabier Mugarza Aiausti zinegotzi jeltzaleak adierazi zuen urtarrilaren 28ko datuei begiratuta Next Generation dirulaguntza duten proiektuek eta Aurrekontu Parte-hartzaileak egitasmokoek exekuzio maila oso baxua izan dutela. Horri erantzunez, Igartuak aipatu zuen Next laguntzen proiektuek prozedura oso zorrotza eta zehatza jarraitu behar dutela egin ahal izateko, eta ondo planifikatutakoak direla, epe barruan bukatu beharrekoak. Horrek parte hartzeko proiektuak atzeratu izana onartu zuen, baina esleitzeko puntuak daudela.

Aurreko bi urteetan proiektu jakinetarako dirua gorde dela baina ezer ez dela egin ere gaineratu zuen Mugarzak; adibideen artean, unibertsitateko obrak aipatu zituen. Iritzi hark eztabaida piztu zuen udalbatza osatzen duten bi alderdien artean. Udal Gobernuak argi utzi gura izan zuen diru partidei baino gehiago, "kontzeptuei" begiratu behar zaiela; hau da, proiektu batzuek lanketa eta prozesu luzea eskatzen dutela, baina horrek ez duela esan gura aurrekontuan jasotako urtean ezer egin ez denik. Unibertsitateko adibidea hartuta, lanketa bati esker hiru milioi euro lortu direla Europatik erantzun zuen, eta 300.000 euro jasota egon arren askoz gehiago lortu direla. Udal Gobernuak gaineratu zuen eskuragarri dutela lantzen ari diren

2,5 MILIOI EURO IZANGO DIRA INBERTSIOETARAKO; AURREZKI ARRUNTA 1,8 MILIOI EURO DA

proiektuen informazioa, eta azalpenak emateko "beti gertu" daudela.

Seitik bat

Euzko Alderdi Jeltzaleak sei ekarpen egin zizkion Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuari, eta horietatik bat txertatu dute. Jeltzaleen udal bozeramaile Amaia Erostarbe Letamendik aurrekontua "zehaztasun gabea eta oposizioarekin landu gabea" dela aipatu zuen, euren ekarpenak zeintzuk ziren gogorarazi aurretik, eta onartutako bakar horrek "aurrekontu osoaren %0,06 baino ez" dela nabarmendu.

Eltzia pareko jolas gune ondoan heldulekua jartzea da jeltzaleek proposatu eta aurrekontua sartu duten ekarpena. Herribusaren hirugarren lineari buruz, eskumena Aldundiarena dela erantzun du Gobernuak. Eltzian gimnasio bat jartzeari buruz, ez dituela dutxak eta irisgarritasuna moduko oinarritzko baldintzarik betetzen eta egungo gimnasioan makina gehiago jartzeko tokia badagoela. *Kontzejupetik* aldizkariaren gaztelerako bertsio digitala ere ez dutela ikusten esan zuten, "euskararen normalizazioari egin diezaiokeen kalteaz" gain herrian hizkuntza gehiago ere badaudela esanez. Pantailak jartzeari buruz, ez luketela "herriak duen agenda osoa ondo jasoko". Musika eskolaren kokapena aztertzeari buruz, Udal Gobernuak erantzun zuen eskolak berak egin behar duela proiektu pedagogikoa eta haren gain dagoela orain lana, eta ekainerako egin behar dutela gaineratu.



O.E.G.

"Zehatza den plangintza dugu"

IZARO ELORZA
ALKATEA

Udal Gobernuaren botoekin onartu da aurrekontua. **Nolako aurrekontua da?** Orokorrean, gure ereduari erantzuten diona. Saiatzen gara herritar guztiengana heltzen, pate-hartzean sinisten dugu, berdinetik berdinerakoan, eta denon ongizatea bilatzen duen aurrekontua da. Hainbat gauza biltzen ditu: plangintza jasotzen ditugun proiektuak zein eguneroko beharregatik sortzen direnak. **Zerk du lehentasuna?** Saiatzen gara eremu guztietara iristen eta arreta zentzu bakarrean ez jartzen. Badaude lan-ildo batzuk estrategikoak direnak eta plangintza bat eskatzen dutenak, adibidez: etxebizitza eta harrera planak eta elikadura mahaia. Hezkuntza, euskararen zein hirigintza eragina izango duten inbertsioak ere badaude, eta martxan daudenekin jarraituko dugu, izan Emakumeen Etxearena zein plazako irisgarritasuna. **Irisgarritasuna aipatu du oposizioak zehaztuen falta dagoela esateko.** Guztiz kontrako da. Plangintza badugu, zehatza dena, eta zehaztuenak ematen dira ematen diren tokietan, batzordeetan, eta tokatzen den momentuan. Horrela egin dugu.



O.E.G.

"Ez dugu zehaztuenik ikusten"

AMAIA EROSTARBE
EAJ-KO BOZERAMAILEA

Ezeko botoa eman dio aurrekontuari EAJK. **Zergatik ezeko botoa?** Hiru arrazoiengatik: partidak orokorrak eta zehaztuen gabekoak dira, exekuzioa oso txikia izan da eta puztutako aurrekontuak dira. Promesak, diru partidak eta konpromisoak urterik urtera errepikatu egiten dira eta ez dugu ikusten planifikaziorik dutenik. **Non ikusten duzue zehaztuen falta?** Zergatik dagoen ez dakigu, eurek jakingo dute. Guk ikusten dugu partida asko direla oso orokorrak; irisgarritasuna aipatu dute, esaterako, baina ez dakigu zer egin behar duten. Inbertsioetarako ere ez dakit zenbat milioi daudela diote, baina benetan partida batzuk lehendik datozenak dira eta puztuta dago. Beste batzuk sartuta daudela diote, baina ez daude, euren buruan egongo da, eta martxorako izango da, baina orain ez daude. **Onartutako zuen proposamenak duen isla txikia nabarmendu gura izan duzue.** Uste dugulako hori nabarmentzea garrantzitsua dela. Sei proposamen egin ditugu, eta bakarra onartu eta sartu dute aurrekontuan: 1.500 euro, aurrekontu osoaren %0,06.

Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2024	2025	ALDEA
Komunikazioa eta Parte-hartzea	588.115	485.780,70	- %17,40
Gizarte Zerbitzuak	2.966.157	2.676.544,72	- %9,76
Kirola	1.741.311	1.528.453,26	- %12,22
Kultura	1.374.154	1.891.022,53	%37,61
Barne Antolaketa	8.464.023	8.552.150,11	%1,04
Sozioekonomia	717.461	612.651,81	- %14,61
Lurralde Antolaketa	5.819.393	4.791.846,51	- %17,66
Aisialdi Hezitzailea	1.449.303	1.545.438,68	%6,63
GUZTIRA	23.119.920€	22.083.888,30€	- %4,48



Izaro Elorza, Zuriñe Rodriguez eta Asier Lauzirika, martitzenean egindako aurkezpenean.. TXOMIN MADINA

LGTBIQ+ kolektiboaren diagnostikoa, abian

Herriko LGTBIQ+ pertsonen errealitatea eta bizipenak jasotzeko asmoz, Udala dagoeneko hasi da diagnostiko bat egiteko lehen pausoak ematen. Azterketan parte hartzeko helbide elektronikoa bat jarri dute martxan, anonimotasuna bermatzeko: 'lgtbiq@onati.eus'

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Oñatiko LGTBIQ+ pertsonen errealitatea eta bizipenak jasotzeko helburuarekin, Udala hasi da diagnostiko bat egiteko lehen pausoak ematen. Hainbat dira azterketaren bidez lortu gura diren helburuak, Oñatiko alkate Izaro Elorzak azaldu duenez: "Prozesu horren bidez, dituzten beharrak eta eskaerak zeintzuk diren jakin nahi dugu, baita egunerokoan zein eragozpen dituzten eta horiei aurre egiteko bideak aztertu ere. Horrekin batera, LGTBIQ+ pertsonen errealitatea ezagutarazi gura dugu, baita haien arteko saretzea indartu ere".

Parte-hartzea

Diagnostikoa egiteko urtebete-ko epea ezarri dute, gutxi gorabehera. Sudergintza kooperatibak gidatuko du hiru fase izango dituen eta ahalik parte-hartzaileena izatea gura duten prozesua. "Ahalik eta informazio gehien biltzeko helbu-

ruarekin, LGTBIQ+ pertsonekin banakako elkarriketak egingo ditugu, baita gai jakinen inguruko talde eztabaidak eta online galdetegi bat ere", adierazi du aurkezpenean Oñatiko Udaleko zinegotzi Asier Lauzirikak, eta gaineratu du ahalik eta parte-hartze "handiena, pluralena eta integralena" nahi dutela.

Sudergintza kooperatibako kide Zuriñe Rodriguezek azaldutakoaren arabera, lan-ildotugari izango ditu diagnostikoak: Oñatiren idiosinkrasiak dituen berezitasunak aztertuko dituzte, baita, herri txikia izanik, sexilioa, ikusgarritasuna eta halako gaiak ere, eta erasoak zein fobiak. Oñatiko LGTBIQ+ kolektiboaren

KOLEKTIBOAK DITUEN BEHARRAK ETA ESKAERAK ZEINTZUK DIREN JAKIN NAHI DU OÑATIKO UDALAK

aliantzetan eta memorian ere jarri gura dute arreta.

Diagnostikoa Udalaren ekimena den heinean, komunitateak erakundearekin duen hartu-emaña ere ikertuko dute. "Udalak badu erantzukizun bat, LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak bermatzeko eta asetzeko erakundea izan behar duelako. Hori horrela, aztertu nahi dugu baita ere nola harremantzen den LGTBIQ+ komunitatearekin; ea leku eroso den eta ea zerbait gertatzen bada Udalera etortzea baden estrategia bat eta nola hobetu daitekeen hori", nabarmendu du Rodriguezek. Alde horretatik, Udalarekin lotuta hartu daitezkeen neurriak ere identifikatuko dituzte.

Helbide elektronikoa

Parte hartu gura duten LGTBIQ+ pertsonen euren interesa adierazteko lgtbiq@onati.eus helbidea jarri dute. Azpimarratu dute parte-hartzaileen anonimotasuna bermatuta egongo dela.



LeeKore eta Hoben taldeetako kideak, diskoa grabatu ostean. LEEKORE

LeeKore eta Hoben Antixenean zuzenean, diskoa aurkezten

Oñatiarrek eta zumaiarrek elkarrekin grabatu duten lehen diskoa aurkeztuko dute zapatuan gaztetxean

A.T.G. OÑATI

Aurretik ezagutzen zuten elkar Oñatiko LeeKore taldeko abeslariak eta Zumaiako Hoben taldekoak, etak antzeko musika-ideiak dituztenez, lan berria elkarrekin argitaratzea erabaki dute. *Antifa hardcore* izeneko diskoa grabatu dute, Zumaiako Ozen estudioan; hardcore eta metal doinuak jorratzen dituzte bi taldeek, eta bi asteburutan zazpi kantu grabatu zituzten: *introa* eta beste sei abesti.

Diskoan elkarrekin egin dituzten bi kantu dituzte –horietako bat beste kantu original baten moldaketa bat da–, eta bakoitzak bere taldearen izenean beste bina kantu grabatu ditu. LeeKore taldeko Pello Uriartek azaldu du diskoa zein asmorekin argitaratu duten: "Eskuin muturreko gorakada horren aurrean, gure posizioa azaldu nahi izan dugu eta esan nahi dugu guk

defendatzen ditugun gauza asko ez datozela bat gaur egun gertatzen diren beste gauza askorekin; hori salatu nahi izan dugu diskoan".

Diskoaren aurrekari bezala, lanaren izen bereko bideoak ere argitaratuta dute.

Zuzenekoa, etxean

Gaur, egubakoitza, Zumaiako gaztetxean aurkeztuko dute lan berria, eta bihar, zapatua, Oñatiko Antixena gaztetxean izango dira, 22:00etan. Uriartek esan du gogoz daudela: "Alde batetik, urduri gaude, aurrez inoiz ez dugulako horrelako zerbaitetan parte hartu zuzenean; izan ere, kanturen batzuk elkarrekin nahastuta joko ditugu. Baina zuzenekora gogoz joango gara, eta ea publikoa ere animatzen den". Gaineratu du Antixenean jotzea beti izaten dela "plazera" eurenentzat.

Elene Guridiri omenaldia egingo diote Azkoagainen

Aloña Mendik Ohorezko Erregional Mailako partidua jokatuko du domekan, 16:30ean, Azkoagainen, Zarautzen kontra, eta, partidua hasi aurretik, omenaldia egingo diote emakumezkoen Real Sociedad taldeko Lehenengo Mailan jokatzen ari den Elene Guridiri. Aipamen hori egingo diote Aloña Mendin hasi zuelako ibilbidea Guridik.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aukien konponketa
Zumezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

Eskola, auzoa, herria

MATRIKULAZIO EPEA otsailaren 3tik 14ra



Ondorengo bi asteetan eskola bisitatzeko aukera izango duzue.
Hitzordua eskatzeko 2 aukera daude:

- Eskolako korreoa: idazkaritza@urgainerrekalde.eus
- 943 89 91 34



HH bideoa



Xabier Urtzelai ARRASATE

Orri askoko liburu bat beharko litzateke Asier Zengotitabengoaren (Gasteiz, 1988) kirol ibilbidea jasotzeko, saskibaloiak Espainiako eta Frantziako makina bat taldetara –hamabost baino gehiago– eraman du eta. 13 urterekin Bartzelonako harrobirako fitxatu zutenetik, ia 25 urte egin ditu batera eta bestera. Espainian, bereziki, Urrezko LEB Mailan jokatu du, eta lau iguera lortu ditu, denak talde ezberdinekin. Apustu serioena, baina, 2017an egin zuela aitortu du, Frantziako Alliance Sport Alsace fitxatu zuenean, eta sei urte egin zituen mugaz bestalde, profesional jokatzeko. Hastapenei errepasoa eginez hasi du berriketaldia Zengo-k, La Masian Lionel Messi izeneko batekin logela partekatzen zuen garaie-tatik hasita.

Ibilbide osoa errepasatzeak luze joko liguke...

[Barre] Gasteiztarra naiz eta 13 urterekin Bartzelonak fitxatu ninduen harrobirako, eta La Masiara joan nintzen. Eta handik Valentziako Pamesak fitxatu ninduen...

Barkatu etetea... Uste nuen La Masia futbol jokariendako zela.

Ez ginen saskibaloia jokari asko, zazpi edo zortzi izango ginen, eta gainontzekoak futbol jokariak ziren, beste 50 edo 60. Elkarrekin egoten ginen hango erresidentzian, eta eskolara ere batera joaten ginen, hori ere La Masian bertan.

Bartzelonako futbol izar bat baino gehiago ezagutuko zenituen...

Pentsa, Leo Messirekin logela partekatu nuen. Badut harekin anekdotaren bat edo beste; Googlen bilatu beharko duzu [Barre], ez dizut gehiagorik aurreratuko [Eskolako patioan futbolean zebiltzala, Zengotitabengoak orkatilan min egin zion Messiri]. **Eta baduzue gaur egun harremanik?** Harekin eta Cesc Fabregasekin egin nuen bat La Masian. Frantziar jokatzeko nengoela joan nintzen Messiren partiduren bat ikustera, Fabregasek Lille-ren kontra jokatu zuenean ere bai... Aireporturen batean egin izan dugu topo, mezuren bat idatzi... **Itzul gaitzen saskibaloiara.**

Egia esan, harro nago egin dudan kirol ibilbidearekin, baina aitortuko dut zorte apur bat falta izan zaidala. Esaterako, Urrezko LEB Mailan lau taldeekin lortu dut mailaz igozteza,

"Etorri berri den jokalaririk egokitu behar du taldera"

ASIER ZENGOTITABENGOA MU-KO JOKALARIA

SASKIBALOIA Arrasatekoen azken fitxaketak Bartzelonako harrobian hasi zuen kirol ibilbidea, La Masian, Leo Messi gelakide zuela: "Baditut anekdotak harekin, bai"



Asier Zengotitabengoa, domekako debutean, Grupo Santiagoren kontra. I.SORIANO

baina arrazoi ekonomikoengatik edo lesioren bat tarteko, beti izan dut eragozpenen bat maila gorenean jokatzeko.

Bilbon, Huescan, Caceresen, Kanarietan, Coruñan, Andorran, Burgozen, Melillan, Mallorcan... jokatu ostean, 2017an Frantziara joatea erabaki zenuen.

Bizitzan hartu dudana erabaki on horietako bat, apustu pertsonala izan zen. Saskibaloia profesionala beste maila batean eza gutu nuen; alde horretatik, Frantzia beste maila batean dago. Hemen Urrezko LEB Maila ez da kategoria erabat profesionala, denetariko egoerak bizi izan ditut, baina Frantziar oso serioak dira horretarako: gutxieneko kontratuak bermatuta, hitz emandakoa bete egiten dute... Kirol arloak izaten du lehentasuna, eta, kontrara, hemen beste lehentasun batzuk ikusi izan ditut.

Badut kuriositatea: zelan fitxatu zaitu Ointxe!-k?

Egia esan behar badizut, denboraldi hasieran bospasei eskaintza izan nituen, baina emazteak eta biok Gasteizera etortzea erabaki genuen. Emaztea Kroaziakoa da, Splitkoa, eta ohitu-

"LA MASIAN LEO MESSIREKIN ETA CESC FABREGASEKIN EGIN NUEN BAT; BATERA GEUNDEN ESKOLAN"

ta dago batera eta bestera ibiltzera. Bizitza, baina, aurrera doa eta lehentasunak aldatzen joaten dira. Gaur egun, 4 eta 2 urteko bi txiki ditugu etxean, eta Gasteizera etorri gara, bereziki, eurak ere eskolan has daitezten. Emaztea lanean dabil Gasteizen, eta nik ere lan egiteko telefonoa eta ordenagailua, ez dut besterik behar.

Zein da zure ogibidea?

Batetik, Mallorcan trastelekuak diren lokal baten jabe naiz, eta horiek kudeatzen ditut, eta, bestetik, merkatutik kanpo dauden higiezinaren aktiboekin egiten dut lan: bulegoak, hotelak... Horrek askatasuna ematen dit edozein lekutatik lan egin ahal izateko.

Horrenbestez, Gasteizen zeundetela jaso zenuen Ointxe!-koen deia.

Kasualitatea izan zen. Martin Buesarekin gimnasio batean topo eginda sortu zen dena. Gaztetan Gasteizen elkarren kontra jokatutakoak gara, adin berekoak gara, eta taldearekin entrenatzera etortzeko esan zidan. Ondoren, Arri-ren [Iñaki Ogaran] deia jaso nuen... Eta hemen nago.

Bada, denbora tarte laburrean izango zaitugu Arrasaten...

Batek daki! Aspaldi ikasi nuen 2-3 hilabete baino haragoko planak egiteak buruko minak baino ez dituela sorrarazten. Arrasateko proiektua zein zen ikusi nuen, gustatu egin zitzaidan, eta hemen nago.

Arrasatekoa ez da proiektu profesionala, kategoria ere ez, baina aldagela horrek badu zerbait... Jendeari kosta egiten zaio Ointxe!-tik joatea.

Iritsi berria naiz, baina segituan antzematen da harreman sanoa dagoela jokalarien artean, giro ona, lagun taldea dela. Egun hauetan, duela 15 urteko saskibaloira bueltatu naiz, eta esker-tu egin dut, egia esan. Ohituta nengoen leku guztietara musika entzuteko kaskoekin joaten diren taldekideak izatera.

Zer eskatu dizute taldean?

Egin dut Julenekin [Berrocal] berba, eta, azken batean, esperientzia duen jokalaria naizenez, momentu jakin batzuetan taldeari lasaitasuna transmititzea eskatu dit; ahal dudana laguntza saiatuko naiz. Azken batean, ni iritsi naiz taldera, eta, horrenbestez, nik neuk egokitu behar dut taldera. Kategoria ere ez dut ondo ezagutzen, baina jokalariek maila polita dute.

Aretxabaletara iritsiko da Master Laboral Kutxa

PILOTA Irati Betegi pilotari aretxabaletarrak etxeko zaleen aurrean jokatu du domekan, Bidania-Goiatzeko Miren Larrarte pilotariarekin bikotea osatuz. Amaia Aldai eta Andrea Capellan izango dituzte aurkari, 12:00etan, Iturrigorri pilotalekuan

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Master Laboral Kutxa txapelketako Eskuz Binakako txapelketa nagusiko jardunaldia jokatu du domekan Aretxabaletako Iturrigorri (12:00). Eguerdian jaialdi nagusia egingo dute, baina aurretik ere partiduak izango dira, 10:30ean hasita, eta hor pilotak mistoko promesen bi norgehiagoka jokatu dituzte. Esan moduan, elitekoen beste bi partiduak 12:00etan etorriko dira, elite mailakoa eta Urrezko Ligaxkakoa.

Elite mailakoa, etxekoa

Eta, hain zuzen, elite mailako lehenengo jardunaldian, Irati Betegi aretxabaletarrak etxeko zaleen aurrean jokatu du, Miren Larrarterekin bikotea osatuz. Eta aurrean izango dituzte Aldai eta Capellan. Bertako pilotari batek jokatu-ta, Aretxabaleta eta inguruko pilotazaleentzat pizgarri berezia izango duela domekako ikuskizunak adierazi du Iker Amarikak, Emakume Master Cup txapelketaren sortzaileak: "Txapelketatik kanpo bada ere, Irati Betegi pilotaria bertatik bertara ikusteko aukera izango dute zaleek, lehen mailako partida batean. Miren Larrarte lagun duela, Aldai-Capellan



Master Cup txapelketako pilotariak talde argazkian. GOIENA

bikote indartsuari egin behar-ko diote aurre, eta ikusiko dugu etxeko aurrean nola moldatzen den atzelari debagoiendarra".

Urrezko Ligaxkako partidua

Jarraian etorriko da pilota mistoko Urrezko Ligaxkako norgehiagoka, eta hor bailarako beste ordezkari bat izango da, Binakako Txapelketa Nagusiari hasiera ematen: Arrarte Bergarak Olatz Arrizabalagarekin batera jokatu du, eta aurrez aurre izango dituz-

te Goiuri Zabaleta eta Uxue Oses oñatiarra.

Iker Amarikak azpimarratu duenez, "nekez izan zezakeen Binakako Txapelketa Nagusiak hasiera hoberik", bi aurrelari txapeldun izango dira-eta Iturrigorri pilotalekuko norgehiagokan. "Bi aurrelari txapeldunen arteko lehiarekin ekingo zaio finalerdiak erabakiko dituen ligaxkari -Olatz Arrizabalagak azkeneko Binakakoa irabazi zuen Erasunekin, eta Goiuri Zabaleta da azkeneko Lau eta Erdikoaren garailea-

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta-Baskonia

Domeka. 16:30. Ibarra.

GAZTEAK MAILA NAZIO.

Bergara - Durango

Zap. 16:30. Agorrosin.

O.ERREGIONALA GIZON.

Real Union - Mondra

Zapatua. 14:00. Gal.

Anaitasuna - Bergara

Zapatua. 16:30. Txerloia.

Aloña Mendi - Zarautz

Dom. 16:30. Azkoagain.

O.ERREG. EMAKUM

Irauli - Bergara

Dom. 15:00. Matigoxotegi.

GORENGO GIZONEZ.

Urki - Aretxabaleta B

Zapatua. 18:00. Unbe.

GORENGO EMAK.

Orioko - Debagoiena

Bailara Zap. 18:30. Mendi Beltz

Goierri - Mondra

Zap. 18:00. Altamira.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mondrate - Nainap

Ostirala. 22:20. Iturripe.

Esko. - Eibartarrak

Ostirala. 22:30. M. Muñoz.

GIPIZKOAKO TXAP.

Idiazabal- Aloña Mendi

Equb. 22:30. Zelaa.

GAZTEAK

Ingou Aloña Mendi - Laskorain

Domeka. 10:45. Zubikoa.

Mondrate - Eguzki

Bodegas Ayesa Domeka. 12:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN MAILA

Getariako-Eskoriatza B

Equb. 20:15. Sahatsaga.

ESKUBALOIA

GIP. BIGARREN MAILA

Mugarri Ingou-Urnieta

Zapatua. 18:30. Iturripe.

Fagor P. - Ordizia

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GAZTEAK NESKAK

Lana Aloña - Dhemén

Orio Domeka. 12:15. Zubikoa.

SASKIBALOIA

FEB HIRU. MAILA

Blendio - MU

Zapatua. 17:30. Santander.

EMAKUM. LF2 MAILA

Port Management

Andratx - MU

Domeka. 12:30. Andratx

EUSKADIKO JUNIORRAK

Alter Consulting ISB

- MU

Zapatua. 11:15. Azkoitia.

EUSK. MUTILAK 1

MU - Aisla

Zapatua. 16:00. Iturripe.

GIP. SENIOR NESKAK

Añorga-Bergara

Zapatua. 20:00. Bentaberri.

MU-CD Intrnacional

Domeka. 16:00. Iturripe.

EUSK. MUTILAK 2

Bergara Soralue - Goierri

Domeka. 18:00. Labegarieta.

ESKUPILOTA

TXAPELKETA

Bergara / Arrizabalaga

- Zabaleta / Oses Domeka. 12:00. Iturrigorri.

FUTBOLA Gora iristeko, aurrekoei irabazteko gogoz dago UDA

Hirugarren Mailako UDA futbol taldea denboraldi ona egiten ari da aurten, eta 21. jardunaldia etxean jokatu dute Unai Calzonen mutilek. Aretxabaletarrek sailkapeneko goiko postuetan dagoen Basauriko Baskonia taldea hartuko du Ibarra futbol zelaian, domekan, 16:30ean, eta norgehiagoka zaila aurreikusten dute. Izan ere, zazpigarren pos-

tuan dago UDA, eta Baskonia, berriz, hirugarrena da sailkapenean, sei puntuko aldearekin.

Gorengo hiru postuak garesti daude; Aretxabaletaren antzera, Deusto, Eibar eta Beasain taldeak gorantz egiteko gogoz daude. Hala, garaipen garrantzitsua izango litzateke domekako neurketakoa. Aurreko jardunaldian Leioa liderraren aurka galdu ostean, etxeko babesean hiru puntu batzea da orain aretxabaletarren helburu nagusia.



Realaren eta Leganesen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Leganes norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua otsailaren 23an izango da, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 17a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

"Ahalik eta gehien ikasten jarraituko dut"

AITOR GARITANO ABESLARIA

Tenerifeko Auditoriumean kantatu berri du eta Sevillako Maestranzako antzokian ari da lan berria prestatzen Bergarako musikari gazte baina eskarmentu handikoa

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

Haurra zela, kanturako eta antzezpenerako dohainak zituela ondo erakutsi zuen Aitor Garitanok (Bergara, 2000). Antzoki handietan dabil gaur egun askotariko operak egiten.

Tenerifeko Auditoriumean eskaini duten *Trouble in Tahiti* operan parte hartu duzu; zer moduz?

Oso ondo! Aurten bigarren aldia izan da; iaz bi emanaldi egin genituen, eta, arrakasta handia izan zuten, emanaldi gehiago antolatzea erabaki zuten; hori horrela, urtarrilaren 18ko eta urtarrilaren 25eko asteburuetan banatuta, lau saio egin ditugu.

Kanarietatik etxera itzuli eta segidan Sevillara joan zara, beste proiektu baten lan egitera.

Hala da; martitzenean heldu nintzen, eta hilabete, behintzat, egingo dut Sevillan. Manuel Garcíaren *I Tre Gobbi* ganbera-operan abestuko dut, Maestranzako antzokian; musikari gazteei zuzendutako egitasmo batek bultzatutakoa da. Bilbon jaioetako Ruben Fernandez Agirre piano-jole ezaguna da zuzendaria, eta bost abeslari izango gara, pianoarekin lagunduta, kantuan. Protagonistetako bat naiz, *Bellavita*

kondea. Hilabete osoa entseatzeko egingo dugu eta martxoaren 4an eta 5ean egingo ditugu emanaldiak.

Lantalde askorekin ari zara azkenaldian; gustura?

Esperientzia aberasgarria da hori, eta asko ikasten da.

Apirilerako beste proiektu bat duzu, Mallorcan.


Bach-en *Pasiones segun San Juan* kantata ezaguna abestuko dut, baina, oraingoz, ez dut informa-

zio askorik. Aurretik, beste kontzertu batzuk ere egingo ditut, Bilboko Musika Musika jaialdiaren baitan, eta Cuencara ere joango naiz.

Antzoki handietan ari zara.

Bai, eta ez da bakarrik non, norekin ere garrantzitsua da; erakusleho onak dira beste toki batzuetara salto egiteko.

Zortekoa zarela uste duzu ala egingo lanaren fruitua jasotzen hasi zarela?



Aitor Garitano, ezkerrean, Tenerifeko Auditoriumean. TENERIFEKO OPERA

Opera modernoan kantuan

Opera baten ezaugarriak baditu ere, Leonard Bernstein-ek 1952n sortutako *Trouble in Tahiti* obra berritzailea da, entzuteko, ikusteko, baita antzetzeko ere. Aitor Garitano bergararrak Tenerifeko Auditoriumean egin du, Kanarietatiko musikariek batera.



Aitor Garitano, Bergarako Orfeoaren egoitzan, astelehenean. TXOMIN MADINA

Biak, nire ustez. Alde batetik, zortekoa naiz, nire ezaugarriak dituen jende asko ez dagoelako; hau da, 24 urteko mutil tenore asko ez daude, eta horrek eragiten du. Zortea dut. Baina, bestetik, egindako eta egiten dudana lanaren fruitua ere bada. **Gaztea zara; aisialdirako astirik geratzen zaizu?**

Bai; asko zaintzen dut hori ere. Alderdi profesionalak garrantzia du, baina aisialdiak edo emozionalak ere bai. Lanaz gainera, oso garrantzitsua da familiarekin, lagunekin eta bikotekidearekin egotea. Garrantzitsua da bi aldeen arteko oreka izatea.

Proiektu horiez guztiez gainera, abesbatzetako zuzendari ere badiharduzu.

Gipuzkoako hiru abesbatzaren arduraduna naiz eta Beasaingo Musika Eskolan irakasle lanetan ere badihardut. Gure lan-esparruan dugun handicap handiena lan ziurtatua izatea da; beraz, beti mantendu izan dut lan finko bat. Oso gustuko

ditut, gainera, abesbatza eta hezkuntza arloak; hortaz, kanpoko proiektuak eta bestelako bete-beharrak bateratzen saiatzen naiz.

Musikene Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ere jarraitzen duzu, ezta?

Bai, baina aurten ez naiz horren sarri joaten. 2024ko ekainean bukatu nuen Interpretazio gradua, eta arlo bereko masterra abiatu nuen irailean, eta oso gustura ari naiz.

Aurrera begira zein asmo dituzu?

Ez dut helburu zehatzik. Pozik nago. Ahalik eta gehien ikasten jarraituko dut bizitzak eramanango nauen bidetik, eta aukeratzen edo hartzen ditudan bide berriak ahalik eta aberasgarrienak izaten saiatuko naiz.

"ESPERIENTZIA ABERASGARRIA DA HAINBAT MUSIKARI ETA TALDEREkin LAN EGITEA"

DUINTASUNAREN ALDEKO MARTXA CEUTAN

'BERBAGAI' SAIOAN

OTSAILAREN 12AN, EGUAZTENA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN

GONBIDATUAK: JONE ARRUABARRENA KAZETARIA ETA HOTZ OÑATIKO EDURNE SAEZ



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



"Liburu zoragarria da, geruza asko dituena"

GEMA LOPEZ LAS HERAS ITZULTZAILEA

AED elkarteak eta Elkarrek Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin antolatzen duten Jokin Zaitegi lehiaketaren baitan, 'Barazkijalea' liburua itzuliko du

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE HAEEn ari da lanean. Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean, administrazioko itzulpengintzan jarduten du Gema Lopez Las Herasek (Azkoitia, 1989), baina trebea da literatur itzulpenak egiten ere. **Bigarren aldiz eskuratu duzue Jokin Zaitegi sariketako beka; pozik? Oso pozik! Sekulako liburua da; oso gogotsu nago lanari ekiteko. *Chasikjuujja* (Barazkijalea) liburua itzuliko duzue; zelakoa da?**

Liburu zoragarria da. Istorio benetan ezohikoa da, ederra eta lazarria, aldi berean. Liburuak geruza asko ditu, eta, aurrera egin ahala, alderdi ilunagoetan sakontzen du, eta gai ugari ukitu: indarkeria –bai soziala bai domestikoa–, matxismoa eta zapalkuntza, gorputza, identitatearen galera eta bilaketa, lotsa, sexualitatea eta desira, heriotza... **Han Kang idazle korearrak idatzitakoa da; ezagutzen zenuen?**

Iaz Literaturako Nobel saria eman zioten arte, ez nuen Han Kang ezagutzen. Saria eman eta gero irakurri nuen lehen aldiz, eta deskubrimendu handia izan da niretzat. Oraingo, *Barazkijalea* baino ez diot irakurri, baina irakurtzeko zerrendan ditut haren beste liburu batzuk. **Idazteko moduari dagokionez, zein ezaugarri nabarmendu zenituzke? *Barazkijalea*-ren idazkera, berez, nahiko soila da, guztiz narratiboa, baina sakontasun handikoa, eta hasieratik harrapatzen zaitu. Deskribapen sinboliko asko dago, adibidez ametsenak, eta eszena horiek zoragarriak dira. Hala ere, esango nuke ez dela idazkera hain poetikoa; poetikoa baino gehiago, irmoa da, sendoa. Autoreak hutsune asko uzten ditu, nahita, irakurlea joan dadin hutsune horiek osatuz.**

Zein izango da zure lan-prozesua? Nik nahiago izaten dut hasieratik ahalik eta txukunena utzi itzulpena; hau da, lehenengo bueltako itzulpen hori ez izatea



Gema Lopez Las Heras itzultzailea, Goiena telebistako platoon. GOIENA

"IDAZKERA, BEREZ, NAHIKO SOILA DA, GUZTIZ NARRATIBOA, BAINA SAKONTASUN HANDIKOA ERE BAI"

zirriborro moduko zerbaite, bai zik eta ia-ia amaierako bertsioa. Horrek lan handia eskatzen du hasieran, baina gero samurragoa da niretzat, oztopo eta zailtasun handienak hasieratik kenduta asko arintzen da-eta ondorengo zuzenketa-fasea. Beraz, orain, buru-belarri jarriko naiz itzulpenarekin, eta gero, bizpahiru buelta beharko ditut itzulpena orrazteko. Bitartean, idazleari buruz dokumentatzen ere joango naiz, haren lanak irakurritan. Frantsesa eta gaztelania erabiliko ditut zubi-hizkuntza gisa. **Gustura geratu zinen *Emakume izotzua* liburuaren itzulpenarekin?** Itzulpena oso zaila egin zitzaidan, nahiko prozesu aldatzua izan zen: batetik, itzulpenaren beraren zailtasunengatik, eta, bestetik, neure egoera pertsonalarengatik, ama izan berri-berritan itzuli bainuen liburua. Nik uste baino

askoz ere testu gaitzagoa topatu nuen, eta, hori jakin izan banu, ez dakit lehiaketara aurkeztuko nintzatekeen... Egia esan, ez nuen disfrutatu prozesuarekin, eta arantzatxo hori hor dago; espero dut orain *Barazkijalea*-rekin kentzea arantza hori. Dena dela, bukaerako emaitzarekin oso pozik eta konforme gelditu nintzen. ***Emakume izotzua*-k oso idazkera partikularra du, oso adierazkorra, eta bihurria ere bai, baina nik uste dut asmatu nuela euskarara ekartzen.**

Sekulako oihartzuna izan du. Itzulpena izateko, nik uste dut liburuak egin duela bidea, eta aipatu izan dute han eta hemen. Annie Ernaux sona handiko idazlea da, are gehiago Literaturako Nobel saria irabazi zuenetik, eta jarraitzaile asko ditu. **Beharrezkoak dira halako sariketak?** Beharrezkoak dira, noski, lehen lerroan jartzen dutelako euskarazko itzulpengintza, eta behar duen prestigioa ematen diotelako. Izugarritzko ekarpena egiten diote euskarazko itzulpengintzari eta literaturari, euskal irakurleoi eskura jartzen dizkigutelako literatura unibertsaleko izen handietako batzuk.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
ONATZKO SAKIA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Otarrea: Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE

*"sarearen oinarri" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

*"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean artean egingo da zozketa.

Indarrendapen LPD/15/1999 legearen arabera, gurekin duzue zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren itxeragaitzat hartzen ditugula. Datu-bilaketan haren helburuak eta nola erabiltzen diren datuak zuzenean gurekin partekatu. Eskubidea zuzenean aldatu dezake, baina zuzentze edo ezartzeak helbide horietan dituzte: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker

"Zepo zepo" haur-antzerkirako sarrerak ditugu
Arrasate | Amala Artzokia | Otsailak 15 | 17:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "antzerkia"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

*"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean artean egingo da zozketa.

Indarrendapen LPD/15/1999 legearen arabera, gurekin duzue zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren itxeragaitzat hartzen ditugula. Datu-bilaketan haren helburuak eta nola erabiltzen diren datuak zuzenean gurekin partekatu. Eskubidea zuzenean aldatu dezake, baina zuzentze edo ezartzeak helbide horietan dituzte: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi pertsonarendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: otsailak 11

943 25 05 05

goienakide@goiena.eus

"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

2025eko kuota 67 € da; eta orain, %50eko deskontuarekin: 33,50 €.
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Mekolalden baserria salgai. 12 hektarea, pinu eta fruitu arbola ezberdinez inguratuta. 943 76 49 61 edo 644 40 93 67

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Alokairu bila gabiltzan bi gazte gara. Lana daukagu. Ez haurrik eta ez animaliarik. 2 logela izatea gustatuko litzateke. Arrasaten eta Bergaran lan egiten dugu. 631 68 09 17

Bergara. Alokairu bila nabil Bergaran. 2 edo 3 logela izatea eskertuko nuke. Bergarako Udaltxan ari naiz lanean. 645 72 92 87.

Bergara. Bergarako neska gazte bat naiz eta alokairuzko pisu baten bila nabil. Etxebizitza niretzat bakarrik izango litzateke eta 750 euro arte ordaintzeko prest egongo nintzateke. Ahal dela, bi logela eta argitasuna izango litzateke. 684 14 95 54 edo 608 15 45 37

Debagoiena. Pisu txiki edo apartamentu baten bila nabilen pertsona arduratsua naiz. Telefonoa: 665 18 47 28

Oñati edo Aretxabaleta. Pisu bat alokatu nahi duen gazte oñatiarra naiz. Euskalduna, langilea eta arduratsua. 679 86 77 04 edo 609 48 65 12

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Arrasateko Kontzezio kalean garaje itxia salgai. 699 83 07 82

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergarako Angiozar auzoa. Neska euskaldun baten bila gabiltza, pertsona nagusi batzuen etxean garbiketa egiteko. Goizez, astean 4 orduz. Soziosanitario titulua eta kotxea izatea beharrezkoak dira. 655 73 10 54

402. ESKAERAK

Arrasate. Zaintzan zein garbiketarako egiten lan egingo nuke. Atarrien, etxean zein fabrikaren garbiketarako egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 29 97 05

Bergara. Bergarara iritsi berria den neska gazte bat naiz eta lan bila nabil. Esperientzia daukat garbiketarako, sukaldari laguntzaile gisa eta nagusiak zaintzen. Etxea zein atariak garbitzeko, nagusien laguntzeko eta bestelako lanak egiteko gertu nago. 631 87 56 29 edo 684 14 95 54

Bergara. Zuzenbidea ikasten duen neska euskalduna eta arduratsua umeak zaintzeko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 62 90 09

Debagoiena. Arrasaten bizi den 27 urteko gazte bat naiz. Asteburuetan edo asteazken zehar 15-20 orduko lanaldiko lan bila nabil. Esperientzia dut tabernetan, garbiketetan, haurrekin... Telefonoa: 662 47 28 88

Debagoiena. Asteburuetan edo asteazken zehar gauez lan egingo nuke. Etxe zein ospitaletan. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest dagoen emakume esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 80 15 38

Debagoiena. Astelehenerik ostegunera goizez eta ostiral, larunbat eta igandetan egunean zehar lan egiteko gertu. Soziosanitario titulua daukat. Pertsona zein umeak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 624 09 84 65

Debagoiena. Astelehenerik ostiralerako orduka lan egiteko eta asteburuetan prestutasun osoa duen emakumea naiz. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko nituzke. 611 09 17 94

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 600 41 80 86

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edota garbiketarako lanak egiteko gertu. Arratsaldez lan egingo nuke. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 682 31 97 37

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edota garbiketarako lanak egiteko prest. Etxean bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 37 01 92

Debagoiena. Emakume pertsonak zaindu, garbiketarako lanak egiteko prest. Malgutasuna dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 49 05 35

Debagoiena. Erizaintzako laguntzaile naiz eta Soziosanitario ikasketak ditut. Pertsona nagusien edo haurren zaintzan edota garbiketetan lan egingo nuke. Berehalako prestasuna. Pertsona arduratsua eta errespetuzkoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 64 41 99

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketarako lanak egiteko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 90 15 92

Debagoiena. Etxe etxe-laguntzaile gisa edo garbiketarako lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Soziosanitario eta garbitzaile titulua ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 09 24 23

Debagoiena. Garbiketarako egiteko edo eraikuntzan lan egiteko prest dagoen gizona. Malgutasun osoa. Deitu telefono zenbaki honetara: 671 25 12 09

Debagoiena. Gidari-zerbitzuak eskaintzen baita garraiolari lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 17 89 88

Debagoiena. Gizonak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest. Asteburuetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 55 67 35

Debagoiena. Gizonak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest dagoen emakumea. Esperientzia handia dut zaintza lanetan. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 654 71 55 99

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. Astelehenerik ostiralerako lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edota garbiketarako lanak egiteko gertu. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 25 87 78.

Debagoiena. Gizonak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest. Asteburuetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 55 67 35

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. Astelehenerik ostiralerako lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edota garbiketarako lanak egiteko gertu. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 25 87 78.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketarako lanak egiteko gertu. Beste lan mota batzuetara molda naiteke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Berehalako prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 33 90 92

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke asteburuetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 82 91 39

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 644 05 98 53


Oñati. Oñatin, bi logela dietuen pisu bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 11 75 10

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Word-en erabileran espezializatutako pertsonaren batekin harremanetan jarri nahiko nuke, nire lanarekin lotutako zereginak egiteko laguntza jasotzeko. Eskertuko nuke, gainera, maketazioari buruzko ezagutzak izatea. 679 74 00 61

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Aloña Garitaonandia
Otsailaren 11n, 49 urte. Zorionak, Alo! Ondo pasa eguna!



ARETXABALETA
Haizea Azkarate Bilbao
Otsailaren 10an, 11 urte. Zorionak, Haizea! Egun ederra pasau! Patxo potolo bat danon partetik!



BERGARA
Libe Garitaonandia Igartua
Otsailaren 10an, 4 urte. Zorionak, politxo! 4 urteko ia! Disfrutatu egunaz eta segi holaxe! Patxo handi bat etxeko danen partetik.




ARRASATE
Malen Zugasti Larrañaga
Otsailaren 10an, 8 urte. Zorionak, poxpolin! Gozatu zure urtebetetze eguna familiaren berotasunean. Muxu potolo bat etxekoan partetik.



ARAMAIO
Bidane Larrañaga Ibaruren
Otsailaren 9an, 7 urte. Zorionak, lazтана! Zelako aguro zabitzen handi itxen! Jarraitu holako alai eta jator! Familia danen partetik, asko guretzue!



ANTZUOLA
Aitzol Gabilondo Olaortua
Otsailaren 8an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Egun ederra pasa etxekuekin ta baitxa laguntxo danekin. Muxu handi bat, Aitzol!




ARRASATE
Garazi Bragado Alvarez
Otsailaren 7an, 11 urte. Zorionak, pirata! Espero dou merezi dozun bezala ospatzial! Pillo bat maite zaitugu!



ARETXABALETA
Agate Etxebarria Zabala
Otsailaren 6an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Jarraitu zaren bezalakoa izaten! Asko maitxe zaitugun etxeko danon partetik!



ARRASATE
Defe Etxebarria Uriarte
Otsailaren 1an, urtebete. Zorionak, potxola! Muxu erraldoiak denon partetik. Jarraitu betiko moduan pozik eta alaia.



ARETXABALETA
Unax Zuazo Oianguren
Urtarrilaren 31n, 13 urte. Zorionak, Unax! Ederto ospatu zure eguna eta ez ahaztu iñoiz asko maitxe zaitugula! Besarkada handi bat lazтана!

Korosti
Inmobiliaria

Bergara:
Herrilagunak,
52m² erdigunean,
2 logela, igogailua,
trasteleku.
195.000€



Bergara: Zubieta,
79m² 4 logela,
lursail ederra, teilatua
berrituta, erdigunetik
gertu.
190.000€

Bergara:
Zurradero,
81m² 3 logela,
2 komun, trasteleku,
igogailua.
280.000 €



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehigo:



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Garajea Saldu/Errentan.
- Lokala Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza eman.
- Motorra Saldu/Alokatu.
- Animaliak/Saldu.
- Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro
- 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoko argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
- Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

ESKELA



Junkal Legorburu Lamarain 

2025eko otsailaren 5ean hil zen, 75 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan
Lazkanotar ilobak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur izango da, ostirala, otsailak 7, Santa Marina parrokian.

Bertaratuko zaretenoi, aurrez esker on.
Bergaran, 2025eko otsailaren 7an.

OROIGARRIA



Junkal Legorburu Lamarain 


2025eko otsailaren 5ean hil zen, 75 urte zituela.


Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Miren, Jose M^a(t), Marta, Ane, Amaia eta Bitxor, Iñigo eta Eba.

Mujika Sorozabal familia.
Bergaran, 2025eko otsailaren 7an.

OROIGARRIA



Avelino Lopez de Munain 

Gure besarkada beroena familiari.

Aitzolen lagunak.
Arrasaten, 2025eko otsailaren 7an.

OROIGARRIA



Josune Askasibar Agirre 

2025eko urtarrilaren 31n hil zen, 57 urte zituela.

Beti gure bihotzetan.

Kornerreko zure lagunak.
Ketxus, Pruden, Mikel eta Maite.

Arrasaten, 2025eko otsailaren 7an.

ESKER ONA



Arantxa Igarzabal Lizarralde 

Ramon Irizarren alarguna


2025eko otsailaren 2an hil zen, 92 urte zituela.

Mila esker egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Seme-alabak, bilobak, birbilobak eta gainerako ahaideak.
Oñatin, 2025eko otsailaren 7an.

ESKER ONA



Iñigo Olañeta Zubiate 

2025eko urtarrilaren 28an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Uberan-Bergaran, 2025eko otsailaren 7an.

HILDAKOAK

- Jose Antonio Zubikarai Arrieta.** Antzuolan, otsailaren 30ean. 91 urte.
- Martin Zugasti Mascarano.** Arrasaten, urtarrilaren 31n. 79 urte.
- Elvira Pascual de Frutos.** Arrasaten, otsailaren 1ean. 92 urte.
- Jose Maria Iriberrí Larrion.** Arrasaten, otsailaren 2an. 89 urte.
- Maria Iglesias Aguado.** Arrasaten, otsailaren 2an. 97 urte.
- Manoli Herrero Vallejo.** Arrasaten, otsailaren 1ean. 90 urte.
- Bonifacio Ferreira Delgado "Moreno".** Arrasaten, otsailaren 1ean. 84 urte.
- Josune Askasibar Agirre.** Arrasaten, urtarrilaren 31n. 57 urte.
- Nieves Velez Cabia.** Arrasaten, otsailaren 2an. 70 urte.
- Arantza Tena Waliño.** Zumaian, otsailaren 5ean. 71 urte.
- Josefa Marin Campo "Pepi".** Bergaran, urtarrilaren 30ean. 79 urte.
- Jose Fernandez Payno.** Bergaran, urtarrilaren 31n. 78 urte.
- Maria Carmen Perez Albizua.** Abadiño-Bergaran, otsailaren 2an. 64 urte.
- Leona Larrañaga Zabaleta.** Osintxun, otsailaren 5ean. 91 urte.
- Arantxa Igarzabal Lizarralde.** Oñatin, otsailaren 2an. 92 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**
- Egubakoitza, 7 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 8 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
Domeka, 9 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 10 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 11 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
Eguaztena, 12 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguena, 13 IRIZAR: Eguin 11 / 943 79 12 39
- BERGARA EGUNEZ**
- Egubakoitza, 7 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 8 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 9 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 10 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Martitzena, 11 ESTELLA: Matxiategi 3 / 943 76 19 63
Eguaztena, 12 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 13 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
- Egubakoitza, 7 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 8 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 9 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 10 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 11 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 12 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 13 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)**
- 2025: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
- BERGARA GAUEZ EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)**
- 2025: ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

Oroilore BABESLEA

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtuak gertatzen diren bidean aurkitzen lagunduz, diruz, orain arte bezala, eta gurek zurego dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak gogor izan dituzten laguntzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Murgu OSATI



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.



ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**MALKOREN KONZERTUA**

VI. Danbaka lehiaketa irabazi zuen Oñatiko taldearen kontzertua osorik entzutekoa aukera.

'Bereziak' Egubakoitza, 20:00 eta 22:00

**GIMNASIA ERRITIMIKOA**

Bergaran jokatu den Gipuzkoako txapelketako irudiak eta protagonisten adierazpenak jasoko ditu Xabi Urzelaik.

'Harmailatik' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**BRASILERA BISITA**

Brasilen bizi den Ander Larrañaga gatzagarrarekin egingo du berba Eneko Azurmendik, hango ohiturak ezagutzeko.

'Mundutik' Martitzena, 14:30, 16:30, 19:30 eta 21:30

**ALAI MARTINI
ELKARRIZKETA**

Gipuzkoako bertsolari txapeldunarekin egingo du berba Idoia Torregarai kazetariak. Askotariko gaien inguruan jardungo dute.

'Elkarrizketa'

Martitzena, 20:00 eta 22:00

**DUINTASUNAREN ALDEKO MARTXA CEUTAN**

Jone Arruabarrena kazetaria eta Hotz Oñatiko Edurne Saez gonbidatu ditu Goiatz Aranek.

'Berbagai' Eguaztena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 7**ELGETA Amantalak taldearen erakusketa**

Hilaren 9ra arte ikusgai.

Zeramika-gelan, 16:00etan.

ELGETA Bigarren eskuko mozorro azoka

Trukatze, saltze zein oparitzeko. Eguraldi txarra bada, frontoian.

Kiroldegi kanpoan, 17:00etan.

ARRASATE Akuarela erakusketa

Pilar Ansoategiren lanak ikusgai, hilaren 27ra arte.

Kulturaten, 17:30ean.

ELGETA Azoka txikia (bertan behera)

Artisautza, nekazaritza eta bigarren eskuko produktuen azoka.

Janela taberna ondoan, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Zapalduen pedagogia' hitzaldia

Izen bereko liburua aurkeztuko du Ane Ablaneda Larrionek.

Zaraia aretoan, 18:30ean.

ARAMAIO Kuadrillako Bertso Eguna

Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketaren baitan. Herriko Izena Pentsua Bida 2 taldearen aurkezpena egingo dute, bertso eskolako txikiaren laguntzarekin.

Sastiñan, 19:00etan.

BERGARA 'Gerniak. Begiradak' erakusketaren irekiera

Xanti Arrietaren bilduma ikusgai egongo da hilaren 23ra arte. Egilea bera eta Txema Ramirez de la Piscina egongo dira irekieran.

Aroztegin, 19:00etan.

ARRASATE 'Ellas' erakusketaren irekiera

Kornelioren argazki bilduma. Egilea egongo da ekitaldian.

Kajoi tabernan, 19:00etan.

BERGARA Bayou La Batre, Lokuria eta Daño Dolor taldeak

Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoaren baitan. Sarrerak, zortzi euro.

Kartzela zaharrea, 22:30ean.

ZAPATUA 8**BERGARA Gimnasia erritmikoa**

Gipuzkoako Amateur Txapelketako jardunaldia.

Labegarietan, 09:00etan.

BERGARA Bisita gidatuak museoan

11:00etan eta 12:30ean. Izena emateko: 943-76 90 03.

Laboratoriumen.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko zuzendutako aisialdia, Txatxilipurdiren eskutik.

Ordutegia: 11:30-13:30.

Musakolako gazte txokoan.

ELGETA Mendi Mendia Racing jaia

11:30ean, ibilgailu klasikoaren erakusketa; 12:00etan, Egoarbitzara mendi lasterketa; 13:00etan, sari banaketa; 13:30ean, talde argazkia; 14:00etan, bazkaria; eta 21:30ean, Babesgabe, No Limit, Nafarroa 1512 eta Banana Shake taldeak.

Elgetan.

BERGARA Elkarteko pinturak ezagutzen: Sagarpe

Miguel Okinaren mendeurrenaren ekitaldien baitan egingo dute bisita, hango artelanak ezagutzeko.

Edukiera mugatua. Izena emateko: 613 44 82 17.

Sagarpe elkartearen, 12:00etan.

OÑATI Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean ospatuko diren Oñatiko Inauteriak prestatzeko.

Eltzian, 12:00etan.

ANTZUOLA Santa Ageda eguneko ospakizuna

Galartza auzoko Santa Ageda ermitan.

Santa Ageda ermitan, 12:00etan.

ESKORIATZA Kinttada Eguna

Itzartu Gazte Asanbladaren eskutik. Informazioa osoa 19. orrian.

Fernando Eskoriatzan plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA 'Birus' jokoaren txapelketa

Jolasenea elkartearen eskutik. Irabazleak Birus Marvel joko

eskuratuko du. Bestelako mahai-jolasetan jarduteko aukera ere izango da.

Olaran etxean, 17:00etan.

ARAMAIO Palestinako zinema-zikloa

Soshana pelikula; eta ostean, hitzaldia, Markel Elortza historialariarekin.

Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Sukaldaritza tailerra

San Blas opilak egingo dituzte gaztetxoek.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Tu-K eta Nize taldeak

Bi taldeek euren azken diskoak aurkeztuko dituzte: Tuka esaten da eta Gaur ez naiz!!, hurrenez hurren. Sarrerak, bost euro.

Gaztetxean, 21:00etan.

OÑATI Leekore eta Hoben

Elkarrekin grabatu berri duten Antifa hardcore lana aurkeztuko dute. Sarrerak: arruntak bost euro eta murriztuak hiru.

Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 9**ARETXABALETA Master Cup pilota txapelketako kanporaketa**

Promes eta elite maletako partiduak.

Iturrigorri frontoian, 10:30ean.

ARETXABALETA 'Txino dantza: 50 urte' ekitaldia

Sasoi hartako kontuak ekarriko dituzte gogora; eta ondoren, topa egingo dute Durana kalean.

Udaletxe zaharrea, 13:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrak dituzten familiendako.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE Ginkana herrikoia

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARETXABALETA Kintoen dantzak

2006an jaiotakoak.

Herriko Plazan, 19:00etan.



NAFARROA 1512

ELGETA Nafarroa 1512 taldea

Mendi Mendia Racing jaiaren baitan emango du kontzertua. Talde hauek ere egongo dira oholta gainean: Babesgabe, No Limits eta Banana Shake taldeak. Kontzertutako sarrerak, hamar euro.
Bihar, zapatua, Elgetan, 21:30ean

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilen dantzak

2007an jaiotakoak.
Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

ANTZUOLA 'Hamelingo txirularia' musikala

Begarako Antzerki Musikalaren eskutik. Aurrez, 13:30ean txirularien eta arratoi desfilea egingo da, eta 14:00etan, aurkezpena kioskoan.
Torresoroan, 19:00etan.

ASTELEHENA 10**ARRASATE 'Unibertsoa: bere historiaren ezagutza' hitzaldia**

Zientzia Fisikoetan lizentziatu Fernando Plazaolak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatu eta Herri Ekimen Legea babesteko sinadurak batuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten.
Herri horietan, 12:00etan.

MARTITZENA 11**BERGARA Mahai-ingurua**

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira, Sara Fermin, Izaskun Larrañaga eta Annie Narvaez batuko dira, Laida San Sebastianek gidatuta.
Seminarioan, 10:00etan.

OÑATI Komikia tertulian

Paco Roaren *El abismo del olvido* komikiaren gaineko saioa, Kike Infamek gidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

OÑATI Inauterietako entsegua

Martxoaren 1ean ospatuko diren Oñatiko Inauteriak prestatzeko.
Eltzian, 19:00etan.

EGUAZTENA 12**ARRASATE 'IAin oinarritutako erreklutamendia.**

Erreklutatzaileentzat eta hautagaientzat' jardunaldia
Erkoreka Consultores enpresako kide Maria Erkorekak egingo du berba.
Garaian, 09:00etan.

ARRASATE Haziera eta haur masaje tailerra

0-2 urte arteko seme-alabak dituztenendako, Itziar Rosadoren eta Jon Urdinetaren eskutik. Izena emateko: 943-25 20 00.
Txiki txokoan, 10:00etan.

OÑATI Joan Perez Lazarragakoia eta euskal literatura berbagai

Gidor Bilbao filologoak egingo du berba, Esperientziaren Gelak gonbidatuta.
Zinema-aretoan, 10:00etan.

BERGARA Kafe-konpon

Hondatutako etxeko trasteak konpontzen ikasteko saioa.
San Xosepe elkarte, 16:00etan.

BERGARA Odol-ateratzeak

Ordua hartzeko: *Gotatanta.eus*.
San Xosepe elkarte, 16:30ean.

ARRASATE Bizipen tailerra

2-6 urte arteko seme-alabak dituztenendako, Itziar Rosadorenkin. Izena emateko: 943-25 20 00.
Herri Eskolaren Erguin gunean, 17:00etan.

ARRASATE 'Osasun mentaleko gaitz kroniko bat duen batekin bizitzea; nola jakin noiz ez duen nahi edo noiz ez den gai?' hitzaldia

Idoia Madarieta psikologoarekin.
Kulturaten, 18:00etan.

ANTZUOLA Ekiola proiektuaren aurkezpena

Interesa duten herritarrendako.
Olaran etxean, 18:30ean.

OÑATI Helduendako ipuin-kontakteta

Ixabel Agirresaroberekin.
Zinema-aretoan, 19:00etan.

EGUENA 13**ARETXABALETA Odol-ematea**

Autobusa egongo da.
Durana kalean, 16:45ean.

BERGARA Adineko Pertsonen III. Kontseilua

Hainbat gai izango dituzte hizpide.
Osoko bilkuren aretoan, 17:30ean.

ARRASATE 'Irudi-liburuak kontatzen' saioa

Pello Añorgaren eskutik, 2 eta 3 urteko umeendako. Aurrez eman behar da izena.
Kulturaten, 18:00etan.

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Ni ez naiz Mikel Laboa komiki-liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Baby girl
Domekatik astelehenera: 19:30.

BERGARA**SEMINARIOA**

Ciudad de asfalto
Domeka eta astelehena: 19:30.

Mi amigo el pingüino
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA****Septiembre 5**

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

Azerik eta Errik: basoa salbatzen dute
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE****Sin instrucciones**

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Sonic 3

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA****A different man**

Egubakoitza, zapatua, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00.
Domeka eta martitzena: 16:30.

Bodegon con fantasmas

Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 18:30.

Conclave

Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 21:45.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Emilia Perez

Egubakoitza eta zapatua: 19:30.
Domeka: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Flow, un mundo que salvar

Egubakoitza: 17:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:15.
Domeka: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

Itoiz, udako sesioak

Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 12:00, 21:00.

La acompañante

Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

La semilla de la higuera sagrada

Egubakoitza: 19:00, 21:00.
Zapatua eta domeka: 19:00.
Astelehenetik eguenera: 16:30.

Memorias de un caracol

Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:25.

No hay amor perdido

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30.

The brutalist

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:45.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 16:30, 18:30.
Martitzena: 16:30, 18:45.

Vaiana 2

Domeka: 12:00.

Mufasa

Domeka: 12:00.

KRIKA**Memorias de un caracol**

Zuz.: Adam Elliot. **Herr.:** Australia (2024). **Iraupena:** 94 minutu.

★★★★★

'Stop-motion' liluragarria

Antonio Zabala

Animazio filmak, orokorrean, haurrei zuzenduta egoten badira ere, noizean behin helduendako animaziozko filmak estreinatzen dira. Horien artean, Adam Ellioten *Memorias de un caracol* dugu. Zuzendariak erabiltzen duen teknika *stop-motion*-a da. Hau da, panpinen mugimenduak eskuz eragiten dira. Planoz plano panpina mugitzen dute, eta, planoak segidan proiektatzerakoan, mugimenduaren sentsazioa sortzen da. Dena askoz artisaugoa da, eta halako film bat egiteko urte asko behar izaten dira. Hori bai, emaitzak liluragarriak izaten dira.

Filmatzeko modua nahiko berezia izanik, bertan agertzen diren pertsonaiak eta azaltzen diren istorioak askoz bereziagoak dira. *Memorias de un caracol*-en Grace eta Gilbert bikiak dira protagonistak. Aitarekin bizi dira. Aita hildakoan, bi anaiak banandu egiten dituzte, familia banak adoptatu ostean. Ellioten pertsonaiak bizitzak kolpatutako gizakiak izaten dira. Bakartiak dira, baita nahiko bereziak ere. Horri kolore itzaliak erabiltzen dituela gehitzen badiogu, film triste baten aurrean gaudela pentsa genezake.

Eta hori egia izanda, umorez beteta dago pelikula. Pertsonaiek esaten dituztenek eta agertzen diren pertsonaia bitxiak istorioaren gogortasunarekin kontrastatzen dute. Krudeltasun eta samurtasun nahasketak oso ukitu berezia ematen dio filmari.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Karla Sofia

Joan den urtarrilaren 23an, mundu mailako albiste izan zen Karla Sofia Gascon aktore madrildarrak Oscar sarietarako izendapena jaso zuela. *Emilia Perez* filmagatik, emakumezko aktore nagusi saria trans emakumezko batek jaso dezake historian lehen aldiz, eta, Gasconek berak onartuta, izendapenak mundu osotik etorritako zorion mezu oldea ekarri zion.

Sarietarako promozio betean, baina, lore aparretan zela, Gasconen hautagaitzak kolpe gogorra jaso du asteon. Bere sare sozialetako iraganean begiratuta, musulmanen kontrako mezuak eta poliziak hildako George Floyd-en aurkakoak azaleratu dira, ordura arteko laudorioak gaitzespen ozpindu bihurtuta. "Txio hauek ilusio handia pizten zuten izendapena zikindu dute", esan du Ernest Urtasun Kultura ministroak, aingerua deabru bihurtuta.

Ez dakit, ba, aitona falangista zuen politikariak besteen iraganean arakatzeko zein zilegitasun izan dezakeen, baina badirudi moralkeria eta hipokrisia erakustaldi hauek, beste behin, eskuin muturrarentzat gasolina izango direla. Gasconek barkamena eskatu du, bai, baina berandu, ez baitu Oscarrik irabaziko.

GAZTE GARA GAZTE

"Buenos Airesen ere jarraituko dut jendeari ilea mozten"

MARKEL BILBATUA ALBIZU
IRAKASLETZA IKASLEA ETA ILE-APAINZAILEA

Julen Murua Mesonero BERGARA
Irakasletza graduko hirugarren mailako ikaslea da Markel Bilbatua (Bergara, 2004), eta Lehen Hezkuntzan jarduteko ikasten ari da, hain justu. Horrez gain, eskalatzea gustuko du, eta ile-apaintzailea ere bada. Gainera, bergararrei ez ezik, Deba-goieneko gainontzeko herrietako gazteei ere mozten die ilea. **Irakasletzako gradua ikasten diharduzu; zein zen, txikitan, zure ikasgai gustukoena eta zein gorrotatuena?**

Betidanik gustatu izan zait Euskara eta Literatura ikasgaia; beraz, hori aukeratuko nuke. Gorrotatuena, berriz, Ingelesa izan dela uste dut; denborarekin gero eta gehiago gustatu bazait ere, txikitan gutxien gustatzen zitzaidana zen.

Ilea mozten ere ibiltzen zara; nolatan?

Beti izan dut lanbide horrekiko interesa; ilea moztera joaten nintzanean, beti egiten nizkion galderak ile-apaintzaileari. Duela urte eta erdi, lagun batek erabiltzen ez zuen makina utzi zidan, eta orduan hasi nintzen jendeari ilea mozten. Gero, nire marka pertsonala sortu nuen: *Txinbostyle*; eta, ordutik hona,

gertukoak ez direnak ere etortzen dira ilea moztera. Aprobetxatu egin nuen sare sozialetan edukia sortzeko, eta uste dut jendeari gustatu zaiola. Pozgarria da bezeroek zerbitzua irribarre batekin amaitzea.

Ilea mozteko erabiltzen duzun ispilua pegatinaz beteta dago; zein da guztietatik bereziarena?

Bezero bakoitzak dauka pegatinak ispiluan jartzeko aukera, eta oso harrera ona izan du ekimenak; pegatinaz beteta dago. Bereziarena Sotoalde taldearena da, lehenengoa izan zelako eta bertako kide *Linzo*-k lagundu zidalako guztiarekin.

Unibertsitateko hirugarren urtea izanik, kanpora ikastera joateko asmorik bai?

Bai. Hirugarren urtea izanik, Buenos Airesera joango naiz martxoan, eta han egongo naiz uztailaren bukaerara arte.

Ikastera bakarrik?

Ikasi ere zerbait ikasiko dugu, baina asmoa da herrialdea, jendea eta kultura ere ezagutzea. Denetik egingo dugula uste dut. **Tartean, parranda, ezta?**

Bai, noski! Astero hainbatetan irtengo gara. Ezagutu egin behariko dugu Argentinako parranda ere; kar-kar.



Markel Bilbatua Albizu bergararra, ilea mozten duen lokalean. M.B.A

MOTZEAN

Bisitatzeko toki bat?
Budapest.

Itzuliko ez zinatekeena?
Fuengirola.

Boulderra ala mendia?
Mendia.

Basamorturako kita.
Txapela, ura eta lo-zakua.

Ilea luze ala kaskamotz?
Niretzat bada, luze samar.

Ametsetako ogibidea?
Usainen dastatzailea izan nahi nuen txikitan.

Buenos Airesen ilea mozten jarraitzeko asmorik baduzu?

Bai; hemendik eramango dut beharrezko materiala, eta uste dut han *Txinbostyle*-ren norabidea aldatu egingo dela. Beste eduki mota bat sortzeko asmoa dut, eta baditut ideia batzuk. Aberasgarria izango dela uste dut; herrialde berri bat da eta jende berriarekin ibiliko naiz, etengabe.

Ispilua eramango duzu?
Ez daukat asmorik, ez. Traste handiegia da, eta Bergaran geldituko da; kar-kar.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

EZKERRA ETA
ESKUBIA
(POLITIKAZ ARI NAIZ)

